



Agindua, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, aurretiaz onartzen duena Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratzen eta onartzen duen Aginduaren proiektua.

Orden de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente por la que se aprueba con carácter previo el proyecto de orden por la que se actualiza y aprueba el Listado vasco de tecnologías limpias.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko apirilaren 18ko Aginduaren bidez, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratu eta onartzea arautzen duen Aginduaren proiektua egiteko prozedura hasteko agindua eman zen.

Por Orden de 18 de abril de 2023, de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, se resolvió ordenar el inicio del procedimiento de elaboración de la orden por la que se actualiza y aprueba el Listado Vasco de Tecnologías Limpias.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.1 artikulua araber, xedapen orokorren proiektuak idatzi ondoren, hasteko agindua eman duen organoak onartu behar du dena delako testu artikulatua, egin beharreko negoziatio-, entzunaldi- eta kontsultazapideak egin aurretik.

Dispone el artículo 15.1 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, que, una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, y antes de evacuar los trámites de negociación audiencia y consulta que procedan, el texto articulado correspondiente deberá contar con la aprobación previa acordada por el órgano que haya distado la orden de inicio.

Hori horrela, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen araber,

Por todo lo expuesto, en virtud de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, y de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi,

EBAZTEN DUT

RESUELVO

Lehenengoa.- Aurretiaz onartzea Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratzen eta onartzen duen Aginduaren proiektua.

Primero.- Aprobar con carácter previo el proyecto de orden por la que se actualiza y aprueba el Listado Vasco de Tecnologías Limpias.





Bigarrena.- Aipatutako proiektua egiteko prozedurarekin jarraitzeko agintzea, prozedura horri hasiera emateko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko apirilaren 18ko Aginduan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritako izapideekin bat etorritz.

Segundo.- Ordenar la continuación del procedimiento de elaboración del proyecto de referencia, de conformidad con los trámites establecidos en la Orden de 18 de abril de 2023, de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, y en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

**Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua
La Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente**

Izpta./Fdo.: MARIA ARANZAZU TAPIA OTAEGI
(Elektronikoki sinatuta / Firmado electrónicamente)



AGINDUA, 2023ko XXaren XX(e)koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratzen eta onartzen duena.

ORDEN de XX de XX de 2023, de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, por la que se actualiza y aprueba el Listado Vasco de Tecnologías Limpias.

EAEEn, Eusko Jaurlaritzaren —Ekonomia eta Ogasun Sailaren eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bitartez— eta hiru foru-aldundietako zerga-organoen lankidetzaz estu eta arinari esker, ekoizpen-prozesuen efizientzia sustatzen duen zerga-tresna bat dago; alegia, ingurumen-jokaera hobea duten ekipoak EAEko ekoizpen-sarean ezartzea sustatzen duena. Ingurumenaren aldetik eraginkorrenak diren teknologien eta materialen euskal zerrenda izeneko tresnak lotura zuzena du indarrean dauden plan, programa, estrategia eta legeekin.

En Euskadi, gracias a la estrecha y ágil colaboración entre el Gobierno Vasco, a través de los Departamentos de Economía y Hacienda y Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, y los órganos tributarios de las tres Diputaciones Forales, se dispone de un instrumento fiscal que impulsa la eficiencia de los procesos productivos mediante la implantación de equipos con un mejor comportamiento ambiental en el tejido productivo vasco. El instrumento, denominado Listado vasco de tecnologías y materiales ambientalmente más eficaces, enlaza directamente con los distintos planes, programas, estrategias y leyes vigentes.

Honako hauek bereiz ditzakegu:

En este sentido, podemos destacar:

- Euskadiko Ekonomia Zirkularraren 2030erako Estrategiaren 5. jarduketako 26. puntuan jasota dago Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren agindu berria idatziko dela, material sekundarioak eta baliabide-erabilera efizienteko teknologiak txertatzeari buruzko ikerketa zerrendan txertatuta.

- La Estrategia de Economía Circular de Euskadi 2030, en la línea de actuación 5 punto 26, marca la elaboración de la nueva orden del Listado Vasco de Tecnologías Limpias incorporando el estudio para la incorporación de materiales secundarios y tecnologías eficientes en el uso de recursos en el listado.

- Euskadiko Energia Estrategia 2030en 1. jarduketa-lerroko 1.1.1.5 ekimenean jasota dago energia-aurrezpena sustatzea zerga-pizgarriak emanaz ETE-etan energia jasangarrietan egindako inbertsioetarako.

- La Estrategia de Sostenibilidad Energética de Euskadi 2030, en la línea de actuación 1 en la iniciativa 1.1.1.5., marca el fomento del ahorro energético a través de incentivos fiscales a la inversión en energía sostenible en PYMEs.

- Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren 2021eko Planaren 5.4 jarduketa-lerroan jasota dago material sekundarioak eta baliabide-erabilera efizienteko teknologiak teknologia

- El Plan de Economía Circular y Bioeconomía de 2021, en su línea de actuación 5.4., marca el estudio para la incorporación de materiales secundarios y tecnologías eficientes en el uso de



garbien zerrendan txertatzeari buruzko ikerketa.

- Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Euskadiko 2030 Planean, 9. lan-lerroan, ingurumenaren aldetik eraginkorrenak diren teknologien eta materialen euskal zerrenda dago, funtsezko tresna delakoan hondakinen proiektuetarako finantzaketa errazago eskuratzeko, tresna ekonomikoak eta fiskalitate berdekoak garatzeko, bigarren mailako material eta produktuen lehiakortasuna bultzatzeko eta isuriei pizgarriak kentzeko.

- Klima Aldaketaren Aurkako 2050erako Euskal Estrategiaren 14. jarduketa-lerroaren barruan, “*Hiri-hondakinen sorrera murriztea*” 38. ekintza barne: “*Ingurumenaren arloko zerga-sistemaren neurriak definitzea eta abian jartzea*” (adibidez, isuri-kanona, ordainketa sortzeagatik, tasa lehengaiak erauzteagatik), baita zerga-pizgarriak ere, hondakinen sorkuntza, baliabideen erauzketa eta hondakinak zabortegetan uztea gutxitzeko.

- Halaber, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 85.2 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean ingurumen-arloko eskumena duen sailak jarduera ekonomikoetan ingurumenaren aldetik eraginkorrenak diren teknologien eta materialen zerrenda bat onartu eta aldi behin eguneratuko du. Zerrenda hori sektore publikoko kontratuetan sartu ahal izango da, eta lehenetsuneko irizpidetzat hartu ahal izango da hura baliatzea, bai zerga-onurak ezartzeko orduan eta bai enpresei ingurumena hobetzeko inbertsioak egiteko dirulaguntzak emateko orduan, tributuen eta dirulaguntzen arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoari jarraituz betiere.

recursos en el Listado de tecnologías limpias.

- El Plan de Prevención y Gestión de Residuos de Euskadi 2030, en la línea de trabajo 9, incluye el Listado vasco de tecnologías y materiales ambientalmente más eficaces como instrumento clave para facilitar el acceso a la financiación de proyectos de residuos, desarrollar herramientas económicas y de fiscalidad verde y favorecer la competitividad de los materiales y productos secundarios y desincentivar el vertido.

- La Estrategia de Cambio Climático 2050 del País Vasco, dentro de la línea de actuación 14 sobre “*Reducir la generación de residuos urbanos*”, incluye la acción 38 “*Definición e implantación de medidas de fiscalidad ambiental*” (ej: canon de vertido, pago por generación, tasa a la extracción de materias primas), así como incentivos fiscales para minimizar la generación de residuos, la extracción de recursos y el depósito en vertedero.

- Asimismo, el artículo 85.2 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, señala que el Departamento competente en materia de Medio Ambiente de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco aprobará y actualizará periódicamente un Listado de tecnologías y materiales ambientalmente más eficaces en las actividades económicas cuyo uso podrá ser incluido en los contratos del sector público y también podrá ser considerado como criterio preferente tanto en el establecimiento de beneficios fiscales como en la concesión de subvenciones a empresas para la realización de inversiones destinadas a la mejora ambiental, todo ello de acuerdo a lo dispuesto en la normativa vigente en



materia tributaria y subvencional.

Ingurumenaren arloan eskumena duen sailburuaren 2006ko ekainaren 30eko, 2012ko irailaren 10eko eta 2016ko uztailaren 13ko aginduen bidez, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda onartu zen, martxoaren 14ko 64/2006 Dekretuarekin bat etorriz. Dekretu horrek Teknologia Garbien Euskal Zerrenda arautzen du, ingurumenaren ikuspegitik lehentasunezko teknologiak zein diren identifikatzeko, eta zerga-politikaren bi aldeak teknologia horietara bideratzeko, hau da, zerga-arloko neurrien bidez nahiz gastu-politikaren bidez teknologia horiek enpresen ekoizpen-prozesuan sar daitezzen sustatzeko.

Prospekzio aktibo sakon bat egin da, eta zenbait teknologia detektatu dira, gehienak prebentziozkoak, ingurumenaren aldetik eraginkorra den teknologiaren kontzeptuarekin bat datozenak, hau da, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 85.2 artikuluan aipatzen direnetakoak.

Ingurumenaren aldetik eraginkorrakoak diren materialak zerrendan sartzeko aukera abenduaren 9ko 10/2021 Legearen onarpenaren ondorioenez eta aukera hori martxoaren 14ko 64/2006 Dekretuan aurreikusita ez dagoenez, ezin izan da prospekzio aktiborik egin material horiek detektatzeko. Zerrenda eguneratzen den hurrengo aldietan sartuko dira.

Era berean, adierazi behar da zerrendaren izena martxoaren 14ko 64/2006 Dekretuan eman bezala utzi dela, hau da, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda, uste baita abenduaren 9ko 10/2021 Legeak ez duela aldatu izen hori berariaz. Legeak *“ingurumenaren aldetik eraginkorrenak diren teknologiak eta materialak”* kontzeptuari egiten dion

Por Órdenes de 30 de junio de 2006, de 10 de septiembre de 2012 y de 13 de julio de 2016 de la Consejera competente en materia de Medio Ambiente, se aprobó el Listado Vasco de Tecnologías Limpias, de acuerdo con el Decreto 64/2006, de 14 de marzo, que establece la regulación del Listado Vasco de Tecnologías Limpias con el fin de identificar las tecnologías prioritarias desde la óptica medioambiental hacia las cuales orientar la política fiscal en sus dos vertientes; tanto en el sentido de incentivar la introducción de dichas tecnologías en el proceso productivo de las empresas a través de medidas de carácter tributario, como mediante la política de gasto.

Tras la realización de una exhaustiva prospección activa se han detectado una serie de tecnologías, mayoritariamente preventivas, que responden al concepto de tecnología ambientalmente más eficaz al que alude el artículo 85.2 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre.

Dado que la posibilidad de incluir materiales ambientalmente más eficaces en el Listado es una consecuencia de la aprobación de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, que no está prevista en el Decreto 64/2006, de 14 de marzo, no ha sido posible concluir la prospección activa para detectar dichos materiales. Será en las próximas actualizaciones del Listado cuando se proceda a su inclusión.

Asimismo, es preciso señalar que se mantiene la denominación del Listado en los términos del Decreto 64/2006, de 14 de marzo, esto es, Listado Vasco de Tecnologías Limpias, dado que se considera que la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, no ha modificado dicha denominación de forma expresa. La referencia de la Ley al concepto de



aipamena «zerrenda» terminoarekin batera doan «garbi» adjektiboaren deskribapen gisa hartu behar da.

“*tecnologías y materiales ambientalmente más eficaces*” únicamente debe entenderse como una descripción del adjetivo «limpias» que acompaña al término «Listado».

Hori horrela, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikulua, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2022 Legearen 85.2 artikulua eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuak esleitzen didaten eskumena baliatuz, hau

En su virtud, y en el ejercicio de la competencia que me atribuye el artículo 26.4 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, el artículo 85.2 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, así como el Decreto 68/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente.

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratzea eta onartzea, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 85.2 artikulua arautua, eta eranskinean zerrendatzen diren teknologiek osatua geratzen da.

Artículo 1.– Objeto.

Es objeto de la presente orden la actualización y aprobación del Listado Vasco de Tecnologías Limpias regulado por el artículo 85.2 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, quedando este configurado por las tecnologías que se relacionan en el anexo.

2. artikulua.- Teknologia garbiak hautatzeko irizpideak.

1.– Teknologia Garbien Euskal Zerrendan sartuko diren teknologiak ebaluatu eta hautatzeko, kontuan hartu dira Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren araubidea ezartzen duen martxoaren 14ko 64/2006 Dekretuaren irizpideak.

Artículo 2.– Criterios de selección de las tecnologías.

1.– La evaluación y selección de las tecnologías a incluir en el Listado Vasco de Tecnologías Limpias se ha realizado tomando en consideración el conjunto de los criterios contemplados en el Decreto 64/2006, de 14 de marzo, por el que se establece la regulación del Listado Vasco de Tecnologías Limpias.

2.- Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren araubidea ezartzen duen martxoaren 14ko 64/2006 Dekretuaren 3.3 artikuluan jasotako irizpide aldagarriak aplikatzeko balio zehatz hauek erabili dira:

2.– Los valores concretos que se han utilizado para la aplicación de los criterios variables recogidos en el artículo 3.3 del Decreto 64/2006, de 14 de marzo, por el que se establece la regulación del Listado Vasco de Tecnologías Limpias, son los



siguientes:

- a) Aplikatzekoa den sektoreetan duen ezarpen-maila: kasuan kasuko teknologia sektorean % 40an baino gutxiagoan ezarrita egotea.
- b) Teknologiaren transferigarritasuna, haztapan honen arabera:
- 1.– 0 eta 10 enpresa artean: 2 puntu.
 - 2.– 11 eta 50 enpresa artean: 4 puntu.
 - 3.– 51 eta 300 enpresa artean: 7 puntu.
 - 4.– 300 enpresa baino gehiago: 10 puntu.
- c) Teknologiaren prebentzio-izaera, haztapan honen arabera:
- 1.– Prozesu-amaierako teknologia, inpaktu edo karga kutsatzailea suntsitzeko edo deuseztatzeko: 1 puntu.
 - 2.– Prozesu-amaierako teknologia, balorizatzeko: 2 puntu.
 - 3.– Prozesu-amaierako teknologia, birziklatzeko: 3 puntu.
 - 4.– Prozesu-amaierako teknologia, karga kutsatzailea gutxitu edo minimizatzeko: 4 puntu.
 - 5.– Prozesu-amaierako teknologia, berrerabiltzeko: 5 puntu.
 - 6.– Teknologia prebentiboa substantzia eutrofikotarako eta hurrengo apartatuetan aipatzen ez diren bestelakoetarako: 6 puntu.
 - 7.– Partikulen teknologia prebentiboa (PM10, PM2,5), hidrokarburoak eta KOLak, hidrokarburo halogenatuak, fitosanitarioak eta beste pestizida batzuk:
- a) Grado de implantación en los sectores en que es de aplicación: implantación de la tecnología en el sector inferior al 40%.
- b) Transferibilidad de la tecnología, de acuerdo con la siguiente ponderación:
- 1.– Entre 0 y 10 empresas: 2 puntos.
 - 2.– Entre 11 y 50 empresas: 4 puntos.
 - 3.– Entre 51 y 300 empresas: 7 puntos.
 - 4.– Más de 300 empresas: 10 puntos.
- c) Naturaleza preventiva de la tecnología, de acuerdo con la siguiente ponderación:
- 1.– Tecnología a fin de tubo para destruir-eliminar el impacto o carga contaminante: 1 punto.
 - 2.– Tecnología a fin de tubo para valorizar: 2 puntos.
 - 3.– Tecnología a fin de tubo para reciclar: 3 puntos.
 - 4.– Tecnología a fin de tubo para reducir o minimizar la carga contaminante: 4 puntos.
 - 5.– Tecnología a fin de tubo para reutilizar: 5 puntos.
 - 6.– Tecnología preventiva para sustancias eutróficas y otros no mencionados en posteriores apartados: 6 puntos.
 - 7.– Tecnología preventiva de partículas (PM10, PM2,5), Hidrocarburos y COVs, Hidrocarburos Halogenados, fitosanitarios y otros plaguicidas: 8



8 puntu.

8.– Teknologia prebentiboa metal astunentzat, POP, PCB, PCT eta dioxinentzat: 10 puntu.

d) Gutxieneko inbertsioa: 2.000 eurotik gorakoa.

e) 5 urte baino gehiagoko amortizazio-aldia, honela kalkulatuta: aparteko inbertsioaren kostua zati urteko aurrezki gehigarriak, ken urteko kostu gehigarriak.

3.– Aurreko apartatuetan zehaztutako hautaketa-irizpideak aldatu egin daitezke Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren ondorengo eguneratzeetan.

3. artikulua.– Informazioa bidaltzea.

1.– Agindu honetako ekipo edo instalazioetan inbertsioak egiten dituztenek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko ingurumen-organuari informazio hau bidali beharko diote organo eskudunari dagokion zerga-hobaria aitortzeko eskaera bidali baino lehen:

a) Enpresaren sozietate-izena eta inbertsioa gauzatuko den jarduketaren EJSNa.

b) Inbertsioaren kokapena.

c) Ekipoaren identifikazio-kodea eta izena.

c) Erositako ekipo kopurua.

e) Ekipoaren kostu hautagarriak.

2.- Ez dute zerga-hobaririk jasoko enpresa talde bereko enpresei erositako ekipoek.

puntos.

8.– Tecnología preventiva para Metales Pesados, POP's, PCB, PCT y dioxinas: 10 puntos.

d) Inversión mínima: superior a 2.000 euros.

e) Periodo de amortización superior a 5 años calculado como costes de inversión extra dividido por los ahorros anuales adicionales, menos los costes anuales adicionales.

3.– Los criterios de selección especificados en los apartados anteriores podrán variar en posteriores actualizaciones del Listado Vasco de Tecnologías Limpias.

Artículo 3.– Remisión de información.

1.– Quienes lleven a cabo inversiones en equipos o instalaciones incluidos en la presente Orden, deberán notificar al órgano ambiental de la Administración general de la Comunidad Autónoma del País Vasco la siguiente información con carácter previo a la solicitud al órgano competente para reconocer el beneficio fiscal correspondiente:

a) Razón social y CNAE de la actividad que lleve a cabo la inversión de la empresa.

b) Emplazamiento de la inversión.

c) Código identificativo y denominación del equipo.

d) Número de equipos adquiridos.

e) Costes elegibles del equipo.

2.- No serán objeto de reconocimiento del beneficio fiscal los equipos adquiridos a empresas del mismo grupo empresarial.

**XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Indargabetuta geratzen da Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuaren 2016ko uztailaren 13ko Agindua, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratzen eta onartzen duena.

XEDAPENETAKO AZKENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko XXaren XX(e)(a)n

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la Orden de 13 de julio de 2016, de la Consejera de Medio Ambiente y Política Territorial, por la que se actualiza y aprueba el Listado Vasco de Tecnologías Limpias.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente orden entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a XX de XX de 2023.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua

La Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente

MARIA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI



ERANSKINA

1. URA

| Ekipoa | Mikroiragazketa |
|----------------------|--|
| Kodea | A-1000 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - GSEen (gutzizko solido eseki) % 100 inguru atxiki dezake. - Metalen industrian, efluenteetatik metal astunak bereiztearen errendimendua horien arteko loturen araberakoa da. Metalak uretan disolbatu gabe badaude (forma konplexuak) edo pH-a ez bada egokia, bereizketa-errendimendua txikia izango da. Orokorrean, 100 eta 500 µg/l artean lor daitezke. Baldintzak ezin hobeak badira, berriz, efluentean metal-hondakinen mikrogramo dozena batzuk lor daitezke. - Koipegabetze-bainuen bizitza luzatzea % 10etik % 20ra artean, koipeak eta olioak bereiziz; erreaktibo, koipegabetzaile, ur eta lohi gutxiago kontsumitzea. |
| Honetan datza | <p>Mintz bidezko bereizketa-teknika da, eta mintzaren alde bietako presio ezberdinagatik funtzionatzen du. Substantzia disolbagarriak eta molekula tamainako partikulek poroak zeharkatzen dituzte. Partikula esekiak, partikula koloidalak, bakterioak, birusak eta makromolekulak, berriz, mintzean atxikita geratzen dira. Mikroiragazketaren bidez, 0,1 µm-tik gorako partikulak atxikitzen dira (1–3 bareko presioarekin). Mintzak hainbat materialez egindakoak izan daitezke; beira-zuntza, polikarbonatoak, PVDF (fluoridoen polibiniloak), zelulosa-azetatoa, poliamidak, etab. PVDFzko mintzen abantaila da azido sendoekin garbitu daitezkeela, esaterako, soda kaustikoa edo lixiba. Zeramikazko mintzak ere erabiltzen dira, pH handi eta txikiekiko sendoak direlako eta tenperatura altuekiko erresistenteak direlako; 80 °C-tan 300 l/h-tik gorako ahalmenak lortzen dira mintz-eremuen m² bakoitzeko. Badaude mintz erresistenteago batzuk ere; CFCC mintzak (Carbon Fiber – Carbon Composite), kimikoekiko eta 165 °C-ra arteko tenperaturekiko erresistenteak eta mekanikoki egonkorak direnak (40 bar arte).</p> <p>Teknika hori erabiltzen da partikula solidorik gabeko efluentea lortu nahi denean beste prozesu batzuk egin aurretik, adibidez, alderantzizko osmosia, edo kutsatzaile arriskutsuak deuseztatzea (besteak beste, metal astunak). Teknika hori hautatuko da atxiki beharreko partikularen tamainaren arabera. Teknika honen aplikazioetako batzuk honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Desugerketa-bainuen bizitza luzatzea. |



| | |
|--|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> - Koiepegabetze elektrolitikoa. - Koiepegabetze kimikoa, eta - Gasolina-iragaztea. <p>Hainbat formatako iragazkiak daude: forma kiribila, hodi forma, laua edo hariztatua izan dezakete, eta, gainera, mintzak moduluetan eraikita egon ohi dira (horrela, beharrezkoa den ahalmenera egokitzeko). Sistema hori ziklo itxian erabil daiteke, etengabe, koiepegabetze-bainuetarako, 300 l/h-ko emariarekin.</p> <p>Iragazki-garbiketa normalean mekanikoki gertatzen da, une batez alderantzikatuta fluxuaren norabidea, iragazte-ahalmena konstante egonik. Koiepegabetze-bainuen sistema itxietan, koipe-educia % 50ekoa denean, mikroiragazketa ez da efizientea, eta, beraz, kontzentratuaren zati bat deuseztatu egiten da eta bainu-bolumen berdinarekin ordezkutzen da.</p> |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitekeen</p> | <p>Kanpoan geratzen dira kutsaduraren prebentzio eta kontrol integraturako araudiaren mende dauden jarduerak (IPPC jarduerak), baldin eta teknologia hori ezartzeko eskatzen bazaie edo ezartzen badute beren baimenetan zehaztutako gehieneko isurketa-balioak betetzeko.</p> <p>Ezin da aplikatu azken tratamenduko teknologia gisa. Bakarrik ekoizpen-prozesuetako modulu-arazketarako onartuko da, birsortze-asmoz eta sektore hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Industria kimikoa (NACE 20). - Ehungintza (NACE 13). - Metalaren industria (NACE 24). - Tratamendu metalikoen industria (NACE 25). |

| | |
|-----------------------------|--|
| Ekipoa | Ultrairagazketa |
| Kodea | A-1001 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - GSEen (gutzizko solido eseki) % 100 inguru atxiki dezake. - Ez da kimikorik edo malutatzailerik behar bereizketa egiteko. - Koiepegabetze-bainuen bizitza luzatzea % 10etik % 20ra artean, koipeak eta olioak bereiziz. Lehen mailako koiepegabetze-bainuetan 2.000 mg/l-ko koipe-kontzentrazioak lortzen dira, eta bigarren mailakoetan 25 mg/l-koak. Erreaktibo, koiepegabetzaile, ur eta lohi gutxiago kontsumitzen |



| | |
|------------------------------|---|
| | <p>da.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ibilgailuak garbitzeko industrian, erabili gabeko detergenteek (% 20-30) mintza igarotzen dute. Beraz, iragazitako ura beste garbiketa-ziklo batzuetan erabil daiteke. |
| <p>Honetan datza:</p> | <p>Mintz bidezko bereizketa-teknika da, eta mintzaren alde bietako presio ezberdinagatik funtzionatzen du. Substantzia disolbagarriak eta molekula tamainako partikulek poroak zeharkatzen dituzte. Partikula esekiak, partikula koloidalak, bakterioak, birusak eta makromolekulak, berriz, mintzean atxikita geratzen dira. Ultrairagazketaren bidez, 0,001 µm-tik gorako partikulak atxikitzen dira (6 bareko presioarekin). Mintzak hainbat materialekin eraiki daitezke, normalean polimero organikoak (merkeagoak dira, baina mintz inorganikoak, esaterako, zeramika-mintzak, bezain erresistenteak ez). Mintz motaren arabera, pH ezberdinak eta 90 °C-ra arteko tenperaturak jasan daitezke.</p> <p>Teknika hori erabiltzen da partikula solidorik gabeko efluentea lortu nahi denean beste prozesu batzuk egin aurretik, adibidez, alderantzizko osmosia, edo kutsatzaile arriskutsuak deuseztatzea (besteak beste, metal astunak). Gainera, geroz eta gehiago, interesgarria da prebentzioaren eta berrerabiltzearen filosofiarekin kontzentratzeko metodo gisa. Teknika hori hautatuko da atxiki beharreko partikularen tamainaren arabera. Teknika honen aplikazioetako batzuk honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kutsatzaile degradagarri ez toxikoak deuseztatzea, adibidez, proteinak eta beste makromolekula batzuk. Adibidez: 1.000tik gorako pisu molekularra duten pinturak eta tintak. - Olio eta emulsio-ura bereiztea, esaterako, ebaketa-likidua garbitzea. - Metal astunak bereiztea, konplexuak eratzearen edo hauspeatzearen ondoren. - Hustubideetako efluenteen tratamenduan erraz degradatu daitezkeen osagaiak bereiztea, ondoren tratamendu biologikoetan birziklatzeko. - Alderantzizko osmosiaren edo ioi-trukearen aurreko tratamendua. - Garbiketa-uretako lakak eta bernizak berreskuratzea. - Fotoerresistentziarako hondakin-ur alkalinoen tratamendua serieko inprimatzeen ekoizpenean. <p>Hainbat formatako iragazkiak daude: forma kiribila, hodi forma, laua edo hariztatua izan dezakete, formen diametroaren arabera. Diametroa zenbat eta txikiagoa, atxikitako partikulak paketatzeko gaitasuna orduan eta handiagoa. Gainera, mintzak moduluka egiten dira –jarraituak edo etenak– edozein ahalmenetara egokitzeko. Sistema hori ziklo itxian erabil daiteke, etengabe,</p> |



| | |
|---|---|
| | <p>koipegabetze-bainuetarako.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Iragazki-garbiketa normalean mekanikoki gertatzen da, une batez alderantzikatuta fluxuaren norabidea, iragazte-ahalmena konstante egonik. Koipegabetze-bainuetako sistema itxietan garbiketa etengabe egiten da, iragazkiarekiko paraleloan dagoen fluxu baten bidez. |
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | <p>Kanpoan geratzen dira beren baimenetan zehaztutako gehieneko isurketa-balioak betetzeko asmoz teknologia hori ezartzeko eskatzen zaien edo ezartzen duten IPPC jarduerak.</p> <p>Aplikazio-sektoreetatik kanpo daude honako hauek: industria kimikoa (NACE 20) eta ura edangarri egiteko industria (NACE 41).</p> <p>Iragazketaren bidez 0,001 µm-tik gorako partikulak bereizi nahi direnean dira aplikatzekoak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ehungintza (NACE 13). - Metalaren industria (NACE 24). - Tratamendu metalikoen industria (NACE 25). - Ibilgailuak garbitzeko industria (NACE 4520). - Hondakinak tratatzeko industria (NACE 38). |

| | |
|-----------------------------|---|
| Ekipoa | loi-trukagailuak |
| Kodea | A-1002 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Azken produktua ur garbia da eta inolako ingurumen-arazorik gabe berrerabili daiteke; arazteko uren ioi-kontzentrazioa 10-1000 mg/l-koa denean, % 80 eta % 99 arteko errendimendua lortzen da, eta hondakin-kontzentrazioa 0,1 eta 10 mg/l artekoa izaten da. - Irakuzketa-uren arazketan, % 98ra arte aurreztu daiteke ur-kontsumoan. |
| Honetan datza: | <p>Teknika honekin, kutsatzaileak hondakin-uretatik bereizten dira, eta, horien ordez, ioi-trukeko erretxinetatik sortutako ioiak jartzen dira. Erretxinak kutsatzaileak atxikitzen ditu aldi baterako, eta gero birsorkuntza-uretan askatzen dira. Teknika hori erabiltzen da, batez ere, sulfato-kontzentrazio txikia eta materia organiko gutxi duten urak tratatzeko.</p> |
| | <p>Ekipoak normalean honako hauek izaten ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zutabe zilindriko bertikal presurizatu bat, korrosioarekiko erresistentea |



| | |
|---|--|
| | <p>den estaldurarekin, eta erretxina daukana.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Balbulaz eta hodiz osatutako sistema bat, hondakin-uren emaria eta birsorkuntza-disoluzioa bideratzen dituena. - Erretxina birsortzeko sistema bat, diluzioa eta gatzten disoluzioa kontrolatzeko ekipoa duena. <p>Erretxina mikroporotsuak erabil badaitezke ere (10-30 Å), normalean, pikor makromolekularren erretxinak (300-500 Å) erabiltzen dira, anioi edo katioi talde funtzionalekin. Honelakoak izan daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Katioi-trukatzaile oso azidoak: base sendoak neutralizatzen ditu eta gatz neutroak dagozkien azido bihurtzen ditu (normalean HCL-rekin edo H₂SO₄-rekin). - Azidotasun gutxiko katioi-trukatzaileak: base sendoak neutralizatzen ditu eta desalkalinizatzeko erabiltzen da (normalean HCL-rekin edo H₂SO₄-rekin). - Anioi-trukatzaile oso basikoak: azido sendoak neutralizatzen ditu eta gatz neutroak dagozkien baseetan bihurtzen ditu (normalean NaOH-rekin). - Basikotasun gutxiko anioi-trukatzaileak: azido sendoak neutralizatzen ditu eta desmineralizatze partzialerako erabiltzen da (normalean NaOH-rekin). <p>Ziklo operatiboa aldizkakoa edo jarraitua izan daiteke, eta honetan datza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ioi-trukearen eragiketa. - Garbiketa-fasea, metatutako partikulak deuseztatzea eta erretxina-ohea birsailkatzea barne. - Birsorkuntza-fasea: bolumen txikiko eta kontzentrazio handiko soluzio bat erabiltzen da; ioi-trukerako erretxina berriz kargatzen da emandako ioiarekin, eta nahi ez diren ioiak ezabatzen dira birsorkuntza-soluziotik. - Lekualdaketa edo irakuzketa leuna birsorkuntza-soluzioarekin, erretxina-ohearen bidez. - Irakuzketa azkarra, birsorkuntza-soluzioan gera daitezkeen arrastoak ezabatzen. |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitezkeen</p> | <p>Ekoizpen-prozesuetako arazketa modularrerako bakarrik onartzen da, helburua birsorkuntza eta irakuzketa-urak tratatzea denean:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Industria kimikoa (NACE 20). - Metalen industria (NACE 24). |



| | |
|--|--|
| | <ul style="list-style-type: none"> - Metalak tratatzeko industria (NACE 25). - Metalikoak ez diren mineralen industria (NACE 23). - Hondakin-ur publikoen tratamendua (NACE 37). - Edateko uraren tratamendua (NACE 36). - Hondakinen tratamenduaren industria (NACE 38). |
|--|--|

| | |
|---|--|
| Ekipoa | Elektrodialisia |
| Kodea | A-1005 |
| Ingurumen-hobekuntza | loi-kontzentratua eta/edo katioi-kontzentratua berreskuratzea, berrerabiltzeko; eta ur garbia ere berrerabiltzea. |
| Honetan datza: | <p>Elektrodialisia (ED) mintz bidezko prozesu bat da, hondakin-uretako ioiak mintz erdiiragazkor batetik garraiatzen dituen potentzial elektriko baten eraginpean. Aplikatutako potentzial- gradienteari esker, ioiak mintzen bidez barreiatzen dira, katodoaren edo anodoaren norabidean. Katodoaren eta anodoaren artean, anioiak eta katioiak hautatzen dituzten mintzak jartzen dira txandaka. Anioiek soilik zeharkatzen dituzte anioiak hautatzeko mintzak, eta katioiek soilik zeharkatzen dituzte katioiak hautatzeko mintzak. Horrela, konpartimentuen erdian fluxua kontzentratuta egongo da, eta gainerako konpartimentuetan ioiak deuseztatu egiten dira, eta efluente garbia sortzen da.</p> <p>Hautatzeko gaitasun handia izan behar dute mintz horiek, bai eta elektrizitatea eroateko gaitasun handia ere. Halaber, hantura-indize txikia eta indar mekaniko handia izan behar dituzte. Litekeena da mintzen efizientzia txikiagoa izatea hondakin-uretan solido esekiak edo materia organiko disolbatuak egonez gero. Horrenbestez, litekeena da hondakin-urak aurrez tratatu behar izatea.</p> |
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | <p>Anioi-kontzentratuak eta/edo katioi-kontzentratuak berreskuratze eta berrerabiltzeko aplika daiteke, urak birsortzea eta berrerabiltzea helburu izanez gero, industria-sektore hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elikagaien industria (NACE 10). - Industria grafikoa (NACE 18). - Industria kimikoa (NACE 20). - Industria ez-metalikoa (NACE 23). |



| | |
|--|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizko metalen industria (NACE 24). - Gainazalen tratamendua (NACE 25.6). - Ehungintza (NACE 13). <p>Hauek dira elektrodialisiaren aplikazio potentzial garrantzitsuenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ur gazia eta itsasoko ura gezatzea. - Itsasoko ura kontzentratzea. - Seruma desmineralizatzea. - Metalak eta estalketa elektrolitikoko garbiketa-urak berreskuratzea. - Zuntz-uraren purga gezatzea eta hoztea. - Efluente azido erabilietako azidoak eta baseak berreskuratzea. - Ardoa desmineralizatzea. - Azukrea desmineralizatzea. |
|--|---|

| | |
|-----------------------------|---|
| Ekipoa | Elektrokoagulazioa (EC) |
| Kodea | A-1006 |
| Ingurumen-hobekuntza | Hondakin-urak arazten dira, eta ondoren ekoizpen-prozesuan berrerabiltzen dira, isuri bat deuseztatuz eta ur-kontsumoa murriztuz. |
| Honetan datza: | <p>Elektrokoagulazioa da ingurune urtsu batean esekita, emultsifikatuta edo disolbatuta dauden kutsatzaileak desegonkortzea, korronte elektriko bat igaroarazita. Korronte elektrikoak ematen du erreakzio kimikoak eragiteko indar elektroeragilea. Erreakzio horiek sortzean edo behartzean, ingurune kutsatzaileek egonkortzeko joera dute. Eskuarki, egoera egonkor horrek partikula solidoak sortzen ditu, oreka-egoeran bezain koloidalak eta emulsionatuak (edo disolbagarriak) ez direnak. Hala gertatzean, kutsatzaileek osagai hidrofobikoak eratzen dituzte; osagai horiek hauspeatzen dira eta erraz ken daitezke, bigarren mailako bereizketa-metodoren bat erabilia. Beste hitz batzuetan esanda, elektrokoagulazioak korronte zuzena erabiltzen du, elektrodoen sakrifizio-ioien bidez kutsatzaileak ezabatzeko, bai erreakzio kimikoen eta hauspeatzearen bidez, bai material koloidalak pilatzera behartuz eta flotazio elektrolitikoarekin deuseztatuz.</p> <p>Elektrokoagulazio-prozesuan, korronte elektriko bat uretan induzitzen da askotariko materialez egindako xafla metaliko paraleloen bitartez, eta horiek, mugitze-prozesua optimizatzen dute. Gehien erabiltzen diren bi metalak</p> |



| | |
|---|---|
| | <p>burdina eta aluminioa dira.</p> <p>Faraday-ren legearen arabera, ioi metalikoak ingurune likidoan askatzen eta barreiatzen dira. Ioi metaliko horiek oxido metalikoak eratzeko joera dute, eta oxidoek elektromekanikoki erakartzen dituzte egonkortasuna galtutako kutsatzaileak. Partikula osatu berri horiek hauspeatu eta deuseztatu egiten dira.</p> <p>Elektrokoagulatuzaile bat sortzeko garaian, garrantzi handikoa da disoluzio anodikorako potentziala kontrolatzea; izan ere, lan-potentzialak oso handiak badira, anodoak pasibatzea gerta daiteke, eta disoluzio-erreakzioa geldituko litzateke. Horrenbestez, lan-potentziala aplikatzerakoan tentu handiz ibili behar da.</p> <p>Burdina ioiak sortzeko erreakzioaz gain, H_3O^+ espezieak erreduzitzeko erreakzio katodikoa ere gertatzen da. Horrenbestez, sortzen diren H_2 burbuilak erabiltzen dira flokulo edo hauspeatuak gora garraiatzeko. Ingurunekeo pH-a igotzean, malutapena errazten da. Prozesu hau gertatzen da:</p> <p>Abiapuntua anodo disolbagarri bat da, adibidez, burdina (edo aluminioa), eta oxidazio-potentzial jakin bat aplikatzen zaio. Fe^{2+} ioiak sortzen direnean, katodoan sortutako OH-ekin erreakzionatu dezakete, eta hidroxidoak sortu daitezke, hauspeatu egiten direnak, soluziotik kanpoko kutsatzaileak adsorbatuz. Alabaina, Fe^{2+} oso ezegonkorra da, oxidatu eta Fe^{3+} bihurtzeko joera du; horrenbestez, burdina hidroxidoak sortzen dira.</p> |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitezkeen</p> | <p>Elektrokoagulazioaren teknologia aplika daiteke olio-emultsioak, koloideoak eta/edo ioi metalikoak dituzten hondakin-urak garbitzeko, baldin eta arazketa-prozesuaren bidez lortutako ur garbia ekoizpen-prozesu berean erabiltzen bada. Hainbat industria sektoretan aplikatu daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Meatzaritza-industria (NACE 05 eta 07). - Elikagaien industria (NACE 10). - Ehungintza (NACE 13). - Paper-industria (NACE 17). - Industria kimikoa (NACE 20). - Metalak tratatzeko eta estaltzeko industria (NACE 25.6). - Elektrokoagulazioaren teknologia aplikatu daiteke, baita ere, zabortegetako lixibiatua arazteko (NACE 38.2). |



| | |
|-----------------------------|--|
| Ekipoa | Alderantzizko Osmosia (AO) |
| Kodea | A-1007 |
| Ingurumen-hobekuntza | Hondakin-urak arazten dira eta ondoren ekoizpen-prozesuan berrerabiltzen dira, isuri bat deuseztatuz eta ur-kontsumoa murriztuz. |
| Honetan datza: | <p>Osmosia da disolbatzaile baten mugimendu fisikoa mintz erdiiragazkor batean zehar. Mintz horren alde bietako soluzioen potentzial kimikoen arteko desberdintasuna da prozesuaren oinarria.</p> <p>Adibide hau baliagarria da puntu hori egiaztatzeko eta argitzeko. Urez betetako ontzi baten erdian mintz erdiiragazkor bat jartzen dugu. Mintz erdiiragazkor horrek disolbatzailea soilik barreiatu ahal du; dagokigun kasuan, ur-molekulak soilik barreiatu ahal ditu. Gatza (NaCl) botatzen diogu mintzaren alde bateko soluzioari. Gatz-soluzioaren potentzial kimikoa handiagoa da mintzaren bestaldeko urarena baino, eta ura, mintzean zehar, soluzio urtsutik soluzio gazira barreiatzen hasten da, bi aldetako potentzial kimikoa berdintzeko. Mugimendu disolbatzaile hori osmosia da. Masa-transferentziak sortzen duen presioa presio osmotikoa da.</p> <p>Uraren barreiapenak jarraitu egiten du bi mugetako batera heldu arte. Lehenengo muga da bi soluzioen arteko oreka lortzea, edo, gutxienez, erresistentzia edo mintzaren barreiatze- presioaren galera handiagoa izatea potentzial kimikoen arteko desberdintasuna baino. Bigarren muga da gero eta handiagoa den gatz-soluzioaren alderdiak presio hidrostático nahikoa eragitea eta barreiapena geldiaraztea. Behaketa bidez, soluzio baten presio osmotikoa neur daiteke, erreparatuz gero presio hidrostáticoak zein puntutan eragozten duen barreiapen handiagoa. Presio hidrostático handiagoa eraginez gero mintzaren bidez galdutako presioaren eta presio osmotikoen arteko desberdintasunen batura baino, eragin dezakegu urak kontrako norabidea hartzea, soluzio kontzentratuena dagoen aldera, alegia. Prozesu horri alderantzizko osmosia esaten zaio. Aplikaturako presioa zenbat eta handiagoa, hainbat eta azkarragoa da barreiatzea. Alderantzizko osmosiaren bidez, soluzio batean disolbatutako zenbait solutu kontzentratzeko gaitasuna daukagu.</p> <p>Aurretiazko baldintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eskuarki, hondakin-urak aurretiaz tratatu behar dira (mintza kaltetzea eta/edo buxatzea eragin dezaketen partikula handiak kenduta) alderantzizko osmosia egiteko instalazioan sartu aurretik. - Temperatura: < 65 °C. - Presio operatiboa: 10-60 bar. |



| | |
|---|--|
| | <ul style="list-style-type: none"> - pH-a: 4-8. - Ahalmena: gehienez 1.000 m³/h. - Mintzean hazkunde biologikoa prebenitzea. |
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | <p>Batez ere ioi-nahasketa daukaten aurrez tratatutako hondakin-uretarako izan ezik.</p> <p>Hondakin-urak araztu eta lortutako ur garbia ekoizpen-prozesu berean erabiliz gero, honako sektore hauetan aplika daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elikagaien industria (NACE 10) (bereziki edarien ekoizpenean – (NACE 11). - Ehungintza (NACE 13) (hondakin-uren tintak deuseztatzeko). - Industria grafikoa (NACE 18). - Industria kimikoa (NACE 20). - Paper-industria (NACE 17). - Metalaren industria (NACE 24). - Gainazalen tratamendua (NACE 25.6) (urberritze-ura berreskuratzea, kontzentratuaren lehengaia berreskuratzea). - Hondakinak birziklatzeko industria (NACE 38). - AOren teknologia aplikatu daiteke, baita ere, zabortegetako lixibiatua garbitzeko. |

| | |
|-----------------------------|---|
| Ekipoa | Mintzen bioerreaktorea |
| Kodea | A-1008 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Hondakin-uren karga organiko handia kentzea. - Araztutako ura berrerabiltzea, eta, horrenbestez, uraren kontsumoa gutxitzea. |
| Honetan datza: | <p>Mintzen bioerreaktorea da hondakin-urak tratatzeko sistema trinko bat, lohi aktiboen errektore baten lana eta mintz bidezko iragaztea uztartzen dituena. Mintzak erabiltzen dira materia esekia (biomasa) eta hondakin-ur araztuak bereizteko. Lohi aktiboak tratatzeko ohiko sisteman dekantazio-andelak egiten duen zeregina betetzen dute mintzek.</p> <p>Mintzen bioerreaktore batek bi zati dauzka integratuta: batetik, arazketa</p> |



| | |
|---|---|
| | <p>biologikoaz arduratzen den errektore biologikoa; eta, bestetik, biomasa eta ura fisikoki bereiztea, mintzen bitartez iragazketa zuzena egiteko sistema baten bidez. Gainera, bi prozesuen integrazioak eragin sinergikoa du, batetik, mintzetatik igarotzeak biomasaren egoera fisiologikoan dituen ondorioengatik, eta, bestetik, sistemak gaitasun handiagoa duelako OEK koloidala ezabatzeke, izan ere, mintza igarotzen ez duenez, denbora luzeagoz ukitzen du biomasa.</p> <p>Mintzen bioerreaktoreek bi zati dauzkate integratuta: batetik, arazketa biologikoaz arduratzen den errektore biologikoa, eta, bestetik, biomasaren eta uraren bereizketa fisikoa, mintzekiko iragazketa zuzena egiteko sistema baten bidezkoa. Bi prozesuak prozesu batean integratzeak, gainera, efektu sinergikoa du, mintzetatik igarotzeak biomasaren egoera fisiologikoan duen eraginagatik, batetik, eta sistemak oxigeno-eskari kimiko (OEK) koloidala ezabatzeke gaitasun handiagoa izateagatik, bestetik; izan ere, mintza igarotzen ez duenez, askoz denbora luzeagoan ukitzen du biomasa..</p> |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitezkeen</p> | <p>Teknika hori erabili daiteke EOK (EOK mg/l milaka gutxi batzuk) eta/edo N (N mg/l-ren ehunka gutxi batzuk) asko duten industriako hondakin-uren tratamenduan. Teknologia hori emari gutxi samarreko hondakin-uretarako erabiltzen da, eskuarki (10–100 m³/egun).</p> <p>Hondakin-urak arazteko prozesuetan aplikatuko da, ur garbiak berrerabiltzeko sektore hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elikagaien eta edarien industria (NACE 10). - Ehungintza (NACE 13). - Paper-industria (NACE 17). - Industria kimikoa (NACE 20). - Metalak tratatzeko eta estaltzeko industria (NACE 25.6). - Eta beste industria-sektore batzuk, hondakin-urekin arazo berdinak dituztenak. |

| | |
|------------------------------------|---|
| <p>Ekipoa</p> | <p>Ura biltzeko iragazki estatikoa, < 10 mm-ko zuloarekin</p> |
| <p>Kodea</p> | <p>A-1010</p> |
| <p>Ingurumen-hobekuntza</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Ez dio eragiten ura hartzen den inguruneko florari eta faunari. - Hondakinen sorkuntza ia erabat minimizatzen da. - Ur-bilketaren eraginkortasuna handitzen da. |



| | |
|--|--|
| <p>Honetan datza:</p> | <p>Iragazki estatikoa zati mugigarririk gabeko iragazki urperagarri bat da, ibaietako, aintziretako, urtegiatiko eta itsasoko ura biltzeko diseinatua. Ura biltzeko erabiltzen da, ingurune erauzlean mailaren sare-zuloa baino handiagoak diren solidoak, flora eta fauna utzita. Hala, horiek erauztea saihesten da, biltzeko ekipo tradizionalak ez bezala.</p> <p>Bere egitura oso sendoa da, erabat soldatua, azalera laua eta ertzik gabea du, V formako profitez osatua. Xurgatze-abiadura txikiak hargunea buxatzea minimizatzen du. Ur-hargunearen azalera irekia handia denez, bildu beharreko ur-emaria zirrikituetatik jariatzen da, uherdurarik gabe eta oso abiadura txikian, eta biltzen den uraren norabidearekiko paraleloan instalatzen denez, solidoak, flora eta fauna hargunearen azalera gelditu gabe igarotzen dira (solidoek arrastaka daramatzen korrontearekin jarraitzea ahalbidetzen du).</p> <p>Zuloen neurria 0,5 mm eta 10 mm artekoa da, instalazioaren beharren arabera, eta ura danborraren harietatik edo iragazte-zirrikituetatik pasatzeko abiadurak oso txikiak dira ($v=0,15$ m/s, gehienez).</p> <p>Garbitzeko, hargunearen barrura airea presioz injektatzen da, korrontearen kontra. Barruan eta bertan zehar, aire-banagailu bat instalatzen da garbiketa egiteko. Eskuz edo automatikoki egin daiteke, garbiketa sekuentzialki egingo duen programatzaile zikliko baten bitartez.</p> <p>Aireak atxikitako solidoak iragazte-azaleratik urrutira botatzen ditu. Jaurtitzen dituen ura bildu den ingurune berean geratzen dira (itsasoa, ibaia, urtegia edo aintzira). Hala, ez dago horiek jaso edo manipulatu beharrik.</p> <p>Normalean, ekipo horiek hainbat motatako altzairu herdoilgaitzez eta aleazio bereziz egiten dira, aplikazioaren arabera. Ekipo horiek honakoek osatzen dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ura biltzeko ekipo edo unitate espezifiko bat. - Aire-metaketarako tanga kargatzeko beharrezkoa den aire kopurua hornitzen duen konpresore bat. - Aire konprimatua metatzeko biltegi edo tanga bat, konpresorearen bidez elikatua. - Balbula elektro-pneumatikoz eta hodiz osatutako sistema bat, metatze-biltegia ur-hargune bakoitzeko konexioarekin lotzeko. - Aginte eta kontroleko armairu bat, ekipoak eskuz edo automatikoki funtzionatzeko. |
| <p>Zein sektoretan aplikatu</p> | <p>Ur-hargune bat duten sektore guztietan aplikatu daiteke, adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - gezatzeko instalazioetan, (EJSN 36). |



| | |
|------------------|---|
| daitekeen | <ul style="list-style-type: none"> - ura edangarri bihurtzeko instalazioetan (EJSN 36). - ureztatze-sistemetan (EJSN 01). - suteen kontrako sistemetan (EJSN 10, 11, 16, 17, 19, 20, 21, 22, 23, 24...). - arrain-haztegietan (EJSN 03). - igerilekuetan eta spa-guneetan (EJSN 551, 553, 93). - hozte-sistemetan (EJSN 10, 11, 16, 17, 19, 20, 21, 22, 23, 24...). - prozesatzeko uren bilketetan (EJSN 10, 11, 16, 17, 19, 20, 21, 22, 23, 24) etab. |
|------------------|---|

| Ekipoa | Finen bahe autogarbitzailea |
|-----------------------------|--|
| Kodea | A-1011 |
| Ingurumen-hobekuntza | <p>Hondakinen sorkuntza minimizatzen da.</p> <p>Uraren kontsumoa murrizten da, eta aipatutako baliabidea modu efizienteagoan kontsumitzen da.</p> |
| Honetan datza: | <p>Hondakin-uren aurretratamendua ekipoek ondo funtzionatzeko hondakin-uren tratamenduko ezinbesteko etapa bat da.</p> <p>Hondakin-ura sartzeko kutxatilara mota guztietako materialak iristen dira: adarrak eta hostoak, paperak, olioak eta koipeak, partikulak... Horiek hondakin-uren funtzionamendua aldatu edo moteldu dezakete eta esperotako emaitzak lortzea eragotzi. Aurretratamendua oso garrantzitsua da eta ez da komenigarria prozesuaren zati hori saihestea. Horretarako, hainbat teknologia erabiltzen dira, baheak, kasu.</p> <p>Baheek arbastatzearen antzeko funtzioa betetzen dute (solido jalkikor eta flotatzaile lodienak erretiratzeko aurretratamendu mekanikoa): ura iragazten dute, uretan solido eseki gehiegi izatea saihesteko. Bahe bat erabiltzearen helburua solido horiek erretiratzea da, araztegiak babesteko aurretiazko etapa gisa; bolumen handiko elementuak eta solidoak erretiratzea, bereiztea eta erraz ebakutzea, araztegia buxatzeko arriskua saihesteko.</p> <p>Gaur egun, hainbat motatako eta modelotako baheak daude, baina, ingurumen aldetik ohiko baheak baino teknologia onuragarriagozat jo ahal izateko, ezaugarri batzuk eduki behar dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Diseinu simple eta sendoko teknologiak izan behar dute, existitzen diren kanalen barruan zuzenean instalatu edo bertara egokitzeko modukoak eta |



| | |
|---|---|
| | <p>uretan dauden solido esekiak bereizi, erauzi eta deskargatu behar dituzte.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gorputza, bahea edo pantaila iragazlea, urradura bidez higitzea saihesteko diseinatuta dago, eta, horregatik, erresistentzia handiko iragazte-elementuz osatuta, adibidez: ABSz edo bestelako material bereziz. Hor egiten da bahetzea, jariakinak daramatzen solidoak bereziz. - Garbiketa-sistematik behar ez duten bahe autogarbitzaileak, funtzionamendu eraginkorrekoak, iraupen luzekoak, ia ez dute zaintzarik behar eta mantentze minimoa eskatzen dute. Sistema horiek funtzio bikoitza daukate: iragazlea eta autogarbitzailea. <p>Sistema horiek bi funtzio dituzte: iragazlea eta autogarbitzailea. Sistema horien adibidea dira «hortz» izeneko elementu iragazle bat duten baheak; elementu hori ondoz ondoko bi ardatzen gainean muntatzen da eta horien muturretan pantaila iragazlearen arraste-kateak doaz. Hortza diseinatzea eta hura pantaila iragazlean muntatzea iragazketako bi etapa dira, erauztekoa den solidoaren tamaina baldintzatzen dute eta baheko zuloen neurria definitzen dute.</p> <p>Hortzek mugimendu bikoitza egiten dute, hortz bakoitza eta hortz-lerro bakoitza ondoz ondoko bi ardatzen gainean muntatzearen eta pantailaren biraketa-mugimenduaren ondorioz, eta hala:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Aurreranzko lehenengo mugimenduan, ateratako solidoak deskargatzen dira eta ▪ Atzeranzko bigarren mugimenduan, hortzak beraiek eta pantaila osoa garbitzen dira. <p>Autogarbitzeta-sistema honi esker, likidoaren korronteko pantaila beti garbi egoten da.</p> |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitezkeen</p> | <p>Kanpoan geratzen dira teknologia hori ezartzea eskatzen zaien jarduerak, bai eta dagozkien baimenetan zehaztutako emisioen muga-balioak betetzeko ezarri nahi dutenak ere.</p> <p>Efluenteko solidoak iragaztea beharrezkoa den sektore guztietan aplikatu daitezke, adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ospitale eta kliniketan (EJSN 86). - Zur-industrietan (EJSN 16). - Elikagai-industrietan (EJSN 10). - Ur prozesatua erabiltzen duten mota guztietako industria-enpresetan (EJSN 10, 11, 16, 17, 19, 20, 21, 22, 23, 24). |



2. AIREA

| | |
|--|---|
| Ekipoa | Xurgatzeko kabina eramangarria, emisioak arazteko sistemarekin |
| Kodea | B-2001 |
| Ingurumen-hobekuntza | % 80ra arte murrizten ditu konposatu organiko lurrunkorrak (KOL), eta langileen lan-osasuna hobetzen du. |
| Honetan datza: | <p>Xurgatzeko kabina eramangarri bat da; alegia, pintatzen den lekura garraiatu eta hantxe jar daiteke. Gainera, xurgatzeko kabinak sistema bat dauka, araztutako airea instalazioaren barruan hustu baino lehen emisioak arazteko. Arazketa-sistema horrek, lehenik eta behin, pinturaren partikulak/tantatxoak atxikitzen ditu iragazki mailakatuen bidez, eta, ondoren, disolbatzaileak adsorbatzen ditu ikatz aktibozko iragazkietan.</p> <p>Ekipoaren egitura metalezkoa izaten da normalean, berariaz diseinatua pintura lixatzeko eta lainoztatzeko lanak egiten diren eremutik datorren airea xurgatzeko eta iragazteko, usainak eta dioxinak ezabatzeko, etab. Airea xurgatzen duenez, lainoztatzearen hondakin- lainoak ez dira lokalean barreiatzen.</p> <p>Ekipo horiek motor bat edo bi izaten dituzte. Motorrek mugitzen dute industria-lokal edo pabiloi bateko airea xurgatzeko ahalmena duen erauzgailua.</p> <p>Pintura-pigmentuak (edo usainak, dioxinak...) dituen aireak zenbait iragazki mailakatu igarotzen ditu. Iragazki horiek beira- zuntzezkoak edo zuntz sintetikoak izan ohi dira, atxikipen-ahalmen handia dute eta karga gutxi galtzen dute. Ondoren, porositate egokia duen karbono aktibozko geruza zeharkatzen du aire horrek, eta pinturetan erabilitako disolbatzaileen lurrunkor geruza horretan atxikita geratzen dira.</p> <p>Azkenik, airea kabinatik kanporatzen da, partikula solidorik eta disolbatzailearik gabe. % 80ra arte murrizten ditu KOLak eta langileen lan-osasuna hobetzen du.</p> <p>Ekipoak guztiz autonomoak dira; pintaketa-lanak egiten diren edozein lekura eraman eta bertan jar daitezke.</p> |
| Zein sektoretan aplikatu daitezkeen | <p>Kanpoan geratzen dira urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretua bete behar duten eta indarreko legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatzen duten jarduerak, edo dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzeko eskatu zaienak.</p> <p>100 eta 1.000 mg COV/Nm³ arteko emarrietan eta hezetasun erlatiboa % 70 baino handiagoa ez den lekuetan aplikatzen da. Adibidez, honako sektore</p> |



| | |
|--|--|
| | <p>hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Karrozeria-industria / automobilgintza (NACE 29). - Metalaren industria (NACE 24). - Altzarien akaberen industria (NACE 16). - Elikagaien industria (NACE 10). - Industria farmazeutikoa (NACE 21). - Industria petrokimikoa (NACE 19). - Inprentaren industria (NACE 18). |
|--|--|

| | |
|--|--|
| Ekipoa | KOLen emisioak adsortzioaren bidez tratatzeko unitatea, disolbatzaileak berreskuratzen dituena |
| Kodea | B-2002 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - KOLen emisioak minimizatzea. - Disolbatzaileak berreskuratzea, erabiltzeko. |
| Honetan datza: | <p>Emisioak tratatzeko sistema bat da, konposatu organiko lurrunak (KOL) ikatz aktiboaren poroetara adsorbatzen dituena. Disolbatzaileak dituen airea iragazi eta hozte-bateria batera bidaltzen da. Haizagailu baten bidez, adsorbatzailera bidaltzen da, ikatz aktiboan zehar pasatzen da, eta disolbatzaileak adsorbatuta geratzen dira.</p> <p>Karbonoa disolbatzailez kargatuta dagoenean, adsortziotik desortziorako aldaketa hasten da. Desortzioan lurrina injektatzen da korrontearen kontra, ikatz aktiboan zehar. Disolbatzailea arrastatu egiten da, eta ur- eta disolbatzaile-lurrunen nahastura kondentsazio- eta hozte-trukagailuetara pasatzen da. Kondentsatu ezin direnak sarrerako hodira itzultzen dira.</p> <p>Ur- eta disolbatzaile-lurrunen nahastura, kondentsatu eta hoztu ondoren, dekantagailura edo distilagailura pasatzen da.</p> <p>Ikatx aktiboa lehortu eta/edo hoztu egiten da, xurgatzailean bihurtu dadin.</p> |
| Honako hauetan aplikatu daiteke | <p>Kanpoan geratzen dira IPPC jardura hauek: teknologia hori teknika erabilgarri onentzat (TEO) daukaten, urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretua bete behar duten eta indarreko legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatzen duten edo dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzeko eskatu zaien jarduerak.</p> |



| | |
|--|---|
| | <p>Disolbatzaileetatik datozen KOLen emisio atmosferikoen tratamendua:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Egurra prozesatzeko industria (NACE 16). - Ehungintza (estaldurak) (NACE 13.3). - Inprenta (NACE 18). - Automobilgintza (NACE 29). - Industria kimikoa (NACE 20). - Metalaren industria (NACE 24). - Industria farmazeutikoa (NACE 21). - Oinetakoen industria (NACE 15.2). - Findegiak (NACE 19.2). |
|--|---|

| | |
|-----------------------------|---|
| Ekipoa | KOLen emisioak oxidazio termikoaren bidez eta beroa berreskuratuz tratatzeko unitatea |
| Kodea | B-2004 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - GSEen (gutzizko solido eseki) % 100 inguru atxiki dezake. - KOLen eta KOen emisioak minimizatzea. - Usain eta lotura organiko halogenatuak minimizatzea. - Beroa berreskuratzea. |
| Honetan datza: | <p>KOLen oxidatze termikoa da, eta beroa berreskuratzeke efizientzia handiko sistema bat du. Funtzionamendua:</p> <p>Aire kutsatua errekontza-ganberara iristen da. Gasek egote-denbora izan dezaten egindako ganbera da, eta ia oxidazio-tenperatura hartu arte berotzen da (1.200 °C inguru). Gas-erregailu laguntzaile batek tenperaturari eusten dio.</p> <p>Oxidazioan sortzen den beroa berreskuratzeke, olio termikoko galdara dago.</p> <p>Berreskuratze-galdararen irteerako gasekin sarrerako airea berotzen da (sartu aurretik) bero-trukagailu baten bidez.</p> <p>Behar diren zerbitzuak: gas naturala eta elektrizitatea.</p> |



| | |
|--|---|
| Honako hauetan aplikatu daiteke | <p>Kanpoan geratzen dira teknologia hori TEO gisa aplikatu beharra daukaten IPPC jarduerak, 117/2003 Errege Dekretua urtarrilaren 31koa bete behar dutenak, indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko dutenak, eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> <p>500.000 euro baino gutxiagoko kostua duten ekipoak eta bakarrik KOLEkin egiten diren emisio etenentzat eta 50.000 m³/h baino gutxiagoko sarrera-emarientzat.</p> <p>Zein sektoretan aplikatu daitekeen:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Industria kimikoa (NACE 20). - Galdaketa-industria (NACE 24.5). - Zur-industria (NACE 16). - Metalaren industria (NACE 24). - Haragi-industria (NACE 10.1). - Oinetakoen industria (NACE 15.2). - Tratamendu metalikoen industria (NACE 25.6). - Pinturak, lakak, bernizak eta tintak ekoizteko industria (NACE 20.30). - Industria farmazeutikoa (NACE 21). - Inprenta (NACE 18). - Tangak eta edukiontziak garbitzeko industria (NACE 81.2). - Findegiak (NACE 19.2). - Karrozeria-industria (NACE 45). |
|--|---|

| | |
|-----------------------------|---|
| Ekipoa | Bide lehorreko elektroiragazkia PM₁₀-etik PM_{2,5}-era bitarteko partikulentzat |
| Kodea | B-2005 |
| Ingurumen-hobekuntza | PM _{2,5} baino txikiagoak diren partikula formako kutsatzaile arriskutsuak deuseztatzea (adibidez, metalak, merkurioa salbu). |
| Honetan datza: | Elektroiragazkia edo hauspeatzaile elektrostatikoa (ESP, ingelesezko siglen arabera) partikulak kontrolatzeko indar elektrikoa erabiltzen duen gailua da, keek arrastatutako partikulak plaka biltzaile batzuetara eramateko. |



| | |
|---|---|
| | <p>Arrastatutako partikulek karga elektriko bat jasotzen dute ioi gaseosoak dauden koroa batetik igarotzen direnean. Korrontearen erdiko elektrodoak goi-tentsioan daude, eta eremu elektriko bat sortzen dute, partikulak plaka biltzailearen paretetara bultzatzen dituena. 20 eta 100 kV arteko pultsaziozko tentsio zuzena behar izaten da.</p> <p>Bide lehorreko elektroiragazkietako plaka biltzaileei kolpe arinak ematen zaizkie hainbat bitarteko mekanikoren bidez, itsatsitako partikulak askatzeko eta tobera batera erortzeko. Halaber, bide lehorreko elektroiragazkiak modu akustikoan garbi daitezke, soinu-sorgailuen bidez.</p> <p>Elektrodoen diseinuaren arabera, plaka bidezko elektroiragazkiak eta tutu bidezkoak bereizten dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Plaka bidezko elektroiragazkien kasuan, txapazko plaka bertikalekiko modu horizontalean eta paraleloan ibiltzen dira keak. Goi-tentsioko elektrodoak luzera handiko alanbreak izaten dira, eta pisu batzuk izaten dituzte, plaken artean zintzilikatzeko. Keen pasabide bakoitzean, keek elektrodoak zeharkatzen dituzte modu sekuentzialean, unitatea igaro ahala. - Tutu bidezko edo tutu-formako elektroiragazkien kasuan, keak bertikalki joaten dira tutuetan zehar, eta, normalean, aldi berean martxan dauden tutu paralelo asko izaten dira. Goi-tentsioko elektrodoak luzera handiko alanbreak dira, eta elektroiragazkiaren goialdean egoten den euskarri batetik zintzilik egoten dira. Hartara, tutu bakoitzaren ardatzean kokatuta egoten dira. <p>Hauak dira bide lehorreko elektroiragazkiaren osagai nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Deskargarako elektrodoak (alanbreak). - Elektrodo biltzaileak (plakak edo tutuak). - Biltzaileak garbitzeko gailuak (mekanikoak edo sorgailu akustikoekin). - Hautsak jasotzeko tobera bat. - Elektroiragazkiaren kutxa. |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitezkeen</p> | <p>Kanpoan geratzen dira teknologia hori TEO gisa aplikatu beharra daukaten IPPC jarduerak, indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko dutenak, eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> <p>Kanpoan geratzen dira bildu beharreko materialak oso hezeak, itsaskorrek, sukoiak, lehergarriak edo erresistentzia handikoak diren prozesuak.</p> <p>Kanpoan geratzen dira 500.000 euro baino gehiagoko kostua duten instalazio guztiak.</p> <p>Teknika hau sektore askotan aplikatu daitezke hautsak bereizteko, baina</p> |



| | |
|--|---|
| | <p>iragazkiaren diseinuak 5 mg/Nm³-ko emisioak onartu behar ditu gehienez, errausketen kasuan, edo 20 mg/Nm³-ko emisioak errekontza-instalazio handi batzuen kasuan.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Haragia edo haragizko produktuak ekoiztea, prozesatzea eta kontserbatzea (NACE 10.1). - Landare- nahiz animalia-gantz eta -olioen fabrikazioa (NACE 10.4). - Esnekien fabrikazioa (NACE 10.5). - Zereal, almidoi eta almidoizko produktuen fabrikazioa (NACE 10.6). - Animalientzako pentsu prestatuen fabrikazioa (NACE 10.9). - Bestelako elikagaien fabrikazioa (NACE 10.8). - Edarien fabrikazioa (adibidez, garagardo-fabrikak) (NACE 11.05). - Produktu kimikoen fabrikazioa (NACE 20). - Elementu zeramikoen fabrikazioa (adreiluak, lauzak eta bestelakoak) (NACE 23.2-23.3). - Zementuaren, karearen eta igeltsuaren fabrikazioa (NACE 23.5). - Burdinaren eta altzairuaren fabrikazioa eta lehenengo prozesatzea (NACE 24 eta 25). - Oinarrizko metal preziatuen eta ez-ferrikoen fabrikazioa (NACE 24.4). - Bestelako hondakinak biltzea eta tratatzea (NACE 38). |
|--|---|

| | |
|-----------------------------|--|
| Ekipoa | Disolbatzaile gutxiko pinturak eta estaldurak izpi ultramoreen bidez ontzeko unitatea |
| Kodea | B-2007 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Konposatu organiko lurrunkorren emisioak murrizten ditu. - Energia-kontsumoa murrizten du. |
| Honetan datza: | <p>Unitate hori pinturak eta estaldurak ontzeko erabiltzen da, produktu horiek erradiazio ultramorearen eraginpean jarrita. Tradizioz, beroa erabili izan da pinturak eta estaldurak ontzeko eta disolbatzailea edo ura lurruntzeko. Izpi ultramoreen bidez ontzeko mekanismoa, berriz, pinturan eta estalduran dauden hainbat osagaiaren (monomero eta oligomero) arteko polimerizazio-erreakzioan oinarritzen da. Polimerizazio-erreakzio horien ondorioz, pintura edo estaldura likidoa ia bat-batean solido bihurtzen da. Izpi ultramoreekin</p> |



| | |
|---|---|
| | <p>ondu daitezkeen pintura eta estaldurek disolbatzailerik izaten ez dutenez, edo izatekotan gutxi izaten dituztenez, izpi ultramoreen bidez ontzeko prozesu horrek ez du konposatu organiko lurrunkorren emisiorik sortzen, edo oso gutxi sortzen ditu.</p> <p>Izpi ultramoreen bidez ontzeko unitate batek honako hauek ditu normalean:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Izpi ultramoreak irradiatzeko lanparak (adibidez, merkuriozko lanparak, xenonezko pultsazio-lanparak edo laserrak). - Lanparek funtzionatzeko behar diren osagai elektrikoak edo elektronikoak. - Islatzaile bat, substratuan ahalik eta argi ultramore gehien islatzeko. - Lanparak –eta, agian, substratua ere– hozteko sistema bat, eta lanparentzako kutxa bat. - Beharbada, sistema erradiometriko bat sistematik ateratzen den energia ultramorearen kantitatea zehazteko. - Agian, uhal garraiatzaile bat edo bestelako sistema bat, substratua lanpararen azpitik pasarazteko. |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitezkeen</p> | <p>Kanpoan geratzen dira indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko duten jarduerak, bai eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> <p>Teknika hau estaldura-lanetan aplikatu daiteke honako sektore hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Egurrezko produktuen fabrikazioa (NACE 16), adibidez, egur gogorrezko lurzoruen fabrikazioa. - Gomazko eta plastikozko produktuen fabrikazioa (NACE 22), adibidez, tutuen edo hodian estaldura, binilozko lauzak. - Produktu metaliko aurrefabrikatuen fabrikazioa, makineria eta ekipoak barne direla (NACE 25 eta 28). Adibidez, lata metalikoak, bobina metalikoak, automobilgintzarako piezak. |

| | |
|------------------------------------|--|
| <p>Ekipoa</p> | <p>Bide hezeko elektroiragazkia PM₁₀-etik PM_{2,5}era bitarteko partikulentzat</p> |
| <p>Kodea</p> | <p>B-2008</p> |
| <p>Ingurumen-hobekuntza</p> | <p>Partikulen emisioak murrizten ditu.</p> |



| | |
|--|---|
| <p>Honetan datza:</p> | <p>Elektroiragazkia edo hauspeatzaile elektrostatikoa (ESP) partikulak kontrolatzeko indar elektrikoa erabiltzen duen gailua da, keek arrastatutako partikulak plaka biltzaile batzuetara eramateko. Arrastatutako partikulek karga elektriko bat jasotzen dute ioi gaseosoak dauden koroa batetik igarotzen direnean. Korrontearen erdiko elektrodoak goi-tentsioan daude, eta eremu elektriko bat sortzen dute, partikulak plaka biltzailearen paretetara bultzatzen dituena. 20 eta 100 kV arteko pultsaziozko tentsio zuzena behar izaten da.</p> <p>Bide hezeko elektroiragazkian, garbitzeko urarekin ihintzatzen dira biltzaileak, modu etenean edo jarraian. Efluente hezea jaso eta tratatu egiten da. Jariakinaren parte bat birziklatu egin daiteke, ur gutxiago erabiltzeko.</p> <p>Elektrodoen diseinuaren arabera, plaka bidezko elektroiragazkiak eta tutu bidezkoak bereizten dira.</p> |
| | <ul style="list-style-type: none"> - Plaka bidezko elektroiragazkien kasuan, txapazko plaka bertikalekiko modu horizontalean eta paraleloan ibiltzen dira keak. Goi-tentsioko elektrodoak luzera handiko alanbreak izaten dira, eta pisu batzuk izaten dituzte, plaken artean zintzilikatzeko. Keen pasabide bakoitzean, keek elektrodoak zeharkatzen dituzte modu sekuentzialean, unitatea igaro ahala. - Tutu bidezko edo tutu-formako elektroiragazkien kasuan, keak bertikalki joaten dira tutuetan zehar, eta, normalean, aldi berean martxan dauden tutu paralelo asko izaten dira. Goi-tentsioko elektrodoak luzera handiko alanbreak dira, eta elektroiragazkiaren goialdean egoten den euskarri batetik zintzilik egoten dira. Hartara, tutu bakoitzaren ardatzean kokatuta egoten dira. <p>Hauek dira bide hezeko elektroiragazki baten osagai nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Deskargarako elektrodoak (alanbreak). - Elektrodo biltzaileak (plakak edo tutuak). - Biltzaileak garbitzeko gailua (ihinztadura). - Efluenteen biltzailea eta tratamendurako sistema. - Elektroiragazkiaren kutxa. |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitekeen</p> | <p>Kanpoan geratzen dira teknologia hori TEO gisa aplikatu beharra daukaten IPPC jarduerak, indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko dutenak, eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> <p>Kanpoan geratzen dira 500.000 euro baino gehiagoko kostua duten instalazio guztiak.</p> <p>Teknika hau aplikatzen da hautsa bereizteko hainbat prozesutan, bildu</p> |



| | |
|--|--|
| | <p>beharreko materialak hezetasan-maila handiak baditu edo itsaskorra, sukoia, lehegarria edo erresistentzia handikoa bada, adibidez, sektore hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ehungintza (NACE 13). - Esnekien fabrikazioa (NACE 10.5). - Zur-industria (NACE 16). - Zereal, almidoi eta almidoizko produktuen fabrikazioa (NACE 10.6). - Animalientzako pentsu prestatuen fabrikazioa (NACE 10.9). - Bestelako elikagaien fabrikazioa (NACE 10.8). - Edarien fabrikazioa (adibidez, garagardo-fabrikak) (NACE 11.05). - Industria kimikoa (NACE 20). - Elementu zeramikoen fabrikazioa (adreiluak, lauzak eta bestelakoak) (NACE 23.2, 23.3 eta 23.4). - Karearen eta igeltsuaren fabrikazioa (NACE 23.5). - Burdinaren eta altzairuaren fabrikazioa eta lehenengo prozesamendua (NACE 24.1). - Oinarrizko metal preziatuen eta ez-ferrikoen fabrikazioa (NACE 24.4). - Metalen forjaketa, estanzazioa eta enbutizioa (NACE 24.5). |
|--|--|

| | |
|-----------------------------|---|
| Ekipoa | Oxidazio termiko birsortzailea |
| Kodea | B-2010 |
| Ingurumen-hobekuntza | KOL emisioak murrizten ditu. |
| Honetan datza: | <p>Hondar-gasen korrante bateko konposatu erregaiak (KOL-ak) oxidatzeko erabiltzen da. Horretarako, airea edo oxigenoa dagoen leku batean gas-korrante bat berotzen da, bere sutze-puntutik gorako tenperaturan, eta tenperatura handiari eusten zaio errekontza hori amaitzeko behar den denbora guztian. Horrenbestez, karbono dioxidoa eta ura lortzen dira. Denborak, tenperaturak eta oxigeno-eskuragarritasunak eragina dute errekontza-prozesuaren tasan eta efikazian. Faktore horien bidez, KOLak oxidatzeko sistemak diseinatzeko oinarrizko parametroak lortzen dira.</p> <p>Halaber, oxidazio termiko birsortzaileak irteera-gasen beroa berreskuratzen</p> |



| | |
|---|---|
| | <p>du. Hortaz, energia-eraginkortasun handiagoa du, oxidazio termiko ez birsortzaileek baino. Ezaugarri hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gas-korrontea instalazioan sartzen da eta birsorkuntza-ganbera batera igarotzen da. - Ondoren, gas-korrontea matrize zeramiko termotrukatzaille batetik igarotzen da. Hartara, gasaren tenperatura igotzen da, ia oxidaziorako behar den mailara. - Gero, gas-korrontea errekontza-ganberan sartzen da. Ganbera hori 800 °C inguruko tenperaturan mantentzen da, erregailu eta berogailu elektrikoek bidez (gas-korrontearen tenperatura-igoerarekin energia-kontsumoa murriztu egiten da). |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitezkeen</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Gas-korrontea errekontza-ganberatik ateratzen da beste matrize termotrukatzaille baten bidez. Matrize horrek bere energia termikoa transferitzen du, eta berriz erabiltzen da hurrengo zikloa berotzeko. - Amaitzeko, gas garbia daraman korrontea deskargatzen da. <p>Oxidatzaile termiko birsortzaile baten osagai nagusiak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Matrize zeramiko termotrukatzailleak. - Errekuntza-ganbera. - Erregailu edo berogailu elektrikoak. - Haizagailua. |
| | <p>Kanpoan geratzen dira teknologia hori TEO gisa aplikatu beharra daukaten IPPC jarduerak, 117/2003 Errege Dekretua urtarrilaren 31ekoa bete behar dutenak, indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko dutenak, eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> <p>Kanpoan geratzen dira 500.000 euro baino gehiagoko kostua duten instalazio guztiak.</p> <p>Teknika hori KOLak eta bestelako osagai erregaiak deuseztatzeko erabiltzen da (usaintsuak...) sektore askotan, adibidez, honakoetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ibilgailu motordunen fabrikazioa (NACE 29). - Haragia edo haragizko produktuak ekoiztea, prozesatzea eta kontserbatzea (NACE 10.1). - Arraina eta arrainkiak prozesatzea eta kontserbatzea (NACE 10.2). |



| | |
|--|--|
| | <ul style="list-style-type: none"> - Landare- nahiz animalia-gantz eta -olioen fabrikazioa (NACE 10.4). - Esnekien fabrikazioa (NACE 10.5). - Landare-olioak erazte eta gantzak eta olioak fintzea (NACE 10.4). - Bestelako elikagai-produktuen fabrikazioa (NACE 10.8). - Edarien fabrikazioa (NACE 11). - Egurrezko produktuen fabrikazioa (NACE 16), adibidez, lehorketa, egurrezko estaldurak, laminatuak. - Oinetakoen fabrikazioa (NACE 15). - Inprentak (NACE 18). - Produktu kimikoen fabrikazioa (bernizak, tintak eta itsasgarriak) (NACE 20.3). - Plastikozko (eta kautxuzko) produktuen fabrikazioa (NACE 22). - Elementu zeramikoen fabrikazioa (adreiluak, lauzak eta bestelakoak) (NACE 23.3). - Produktu metaliko gainestalien fabrikazioa, makineria eta ekipoa barne (NACE 25, 26, 27 eta 28). Adibidez, estaldurak. - Gainazalen tratamendua (NACE 25.6). - Lehorreko garbiketa (NACE 81.29). |
|--|--|

| | |
|-----------------------------|---|
| Ekipoa | Oxidazio katalitikoa |
| Kodea | B-2011 |
| Ingurumen-hobekuntza | KOL emisioak murrizten ditu. |
| | <p>Oxidazio katalitikoa erabiltzen da hondar-gasen korrante bateko konposatu erregaiak (konposatu organiko lurrunkorrak –KOL–, konposatu usaintsuak eta abar) oxidatzeko. Horretarako, airea edo oxigenoa duen gas-korrante bat berotzen da, eta geruza katalizatzaile batetik pasatzen da. Geruza horrek oxidazio-tasa hazten du, eta konbertsioa egin daiteke erreazio-tenperatura baxuagoan, oxidazio termikoko unitateetan baino. Erregailu batzuek gasa berotzen dute gutxi gorabehera 300-500 °C inguruko tenperaturan, geruza katalizatzailean sartu aurretik. Geruza fluidotuko edo finkoko sistema katalizatzaileak erabiltzen dira.</p> |



| | |
|---|--|
| <p>Honetan datza:</p> | <p>KOLak oxidatzeko erabiltzen diren katalizatzaileak metalezkoak izaten dira normalean (adibidez, platinozkoak, paladiozkoak edo rodiozkoak, zeramikazko edo metalezko oinarri baten gainean), edo zeramikazko pastilletan oinarritutako metalak, edota metal oxido arrunt nahiz konbinatuak. Askotan eramaile oso mekaniko batean oinarritzen dira, esate baterako, kobre oxidoan, kromoan, manganesoan, nikelan eta kobaltoan.</p> <p>Kromo oxidoan edo aluminio oxidoan oinarritutako katalizatzaileak, kobalto oxidoan oinarritutakoak, eta kobre oxidoan edo manganeso oxidoan oinarritutakoak erabiltzen dira konposatu kloratuak dituzten gasak oxidatzeko. Platinozko oinarria duten katalizatzaileak, berriz, aktiboak dira sufrea duten KOLak oxidatzeko, baina, kloroa dagoenean, azkar desaktibatzen dira.</p> <p>Katalizatzaileen pozoiak hondar-gasean egoteak kalte handia egin dezake katalizatzaileen bizi-erabilgarrian. Katalizatzaileen pozoi izan daitezke sufrea, halogenoak, zinka, beruna... Beraz, pozoi horiek dituzten gas korrontek ez dira egokiak oxidazio katalitikorako (gas-korrontea tratatu eta pozoi horiek erauzten ez badira behintzat).</p> <p>Oxidazio katalitiko berreskuratze energetikoarekin konbina daiteke. Horretarako, oxidatzaile katalitiko berreskuratzaileak eta birsortzaileak erabiltzen dira. Energia berreskuratzearen printzipioa oxidazio termiko birsortzailearen printzipioaren antzekoa da (TGEBn ere aditzera emandakoak).</p> <p>Hauek dira oxidazio katalitiko baten osagai nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Errekuntza-ganbera, katalizatzailearekin. - Gas-erregailuak edo berogailu elektrikoak (erresistentziak). - Haizagailua. - Energia berreskuratze edo birsortze gailuak. |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitezkeen</p> | <p>Kanpoan geratzen dira teknologia hori TEO gisa aplikatu beharra daukaten IPPC jarduerak, indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko dutenak, eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> <p>Oxidazio katalitiko sektore askotan erabiltzen da KOLak eta bestelako konposatu erregaiak (konposatu usaintsuak eta abar) oxidatzeko. Adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Haragiaren eta haragi-produktuen ekoizpena, prozesamendua eta kontserbazioa (NACE 10.1). - Arraia eta arrainkiak prozesatzea eta kontserbatzea (NACE 10.2). - Landare- nahiz animalia-gantz eta -olioen fabrikazioa (NACE 10.4). |



| | |
|--|--|
| | <ul style="list-style-type: none"> - Esnekien fabrikazioa (NACE 10.5). - Bestelako elikagaien fabrikazioa (NACE 10.8). - Edarien fabrikazioa (NACE 11). - Egurrezko produktuen fabrikazioa (NACE 16), adibidez, egurraren lehorketa, egurrezko estaldurak, laminatuak. - Inprenta (NACE 18). - Produktu kimikoen fabrikazioa (NACE 20). - Plastikozko (eta kautxuzko) produktuen fabrikazioa (NACE 22). - Elementu zeramikoen fabrikazioa (adreiluak, lauzak eta bestelakoak) (NACE 23.3). - Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoa barne direla (NACE 25, 26, 27 eta 28). - Ibilgailu motordunen fabrikazioa (NACE 29). - Lehorreko garbiketa (NACE 81.29). - Ibilgailu motordunen fabrikazioa (NACE 29). - Gainazalen tratamendua (NACE 25.6). |
|--|--|

| | |
|-----------------------------|--|
| Ekipoa | NO_x emisio gutxiko erregailuak (NO_x emisioak < 100 mg/ Nm³ gas-erregailuetan, NO_x emisioak < 300 mg/ Nm³ erregai likidoko erregailuetan) |
| Kodea | B-2012 |
| Ingurumen-hobekuntza | Nitrogeno oxidoen emisioak murrizten ditu. |
| Honetan datza: | <p>NO_x emisio gutxiko erregailuak dira nitrogeno oxidoen emisioak murrizteko diseinatutako errekontza-instalazioak. Erregailu horien diseinuari buruzko xehetasunetan alde handia dago, fabrikatzaileen arabera; beraz, txosten honetan, funtzionamenduaren printzipio orokorra soilik azalduko dugu.</p> <p>Errekuntza klasikoko instalazio batean, oxigenoa/erregaia eta airea konbinatzen dituzten nahasturak leku berean injektatzen dira. Horrenbestez, errekontza horren ondorioz sortzen den sugarrak eremu nagusi bat izaten – beroa eta oxidaziozkoa– sugarraren erroan eta bigarren mailako eremu bat – hotzagoa– sugarraren muturrean. Eremu nagusi horrek sortzen du NO gehiena, eta esponentzialki hazten da tenperaturarekin batera. Bigarren</p> |



| | |
|--|---|
| | <p>mailako eremuak, berriz, nitrogeno oxidoen emisio gutxi sortzen du.</p> <p>NO_x emisio gutxiko erregailuek airea eta erregaia sartzeko bitartekoak aldatzen dituzte nahastura atzeratzeko, oxigenoaren eskuragarritasuna murrizteko eta sugarraren puntako tenperatura murrizteko. Erregailu horien bidez, erregaiarekin elkartutako nitrogenoa NO_x bihurtzea eta NO_x termikoa sortzea atzeratzen da, eta, aldi berean, errekuntzak eraginkortasun handia du.</p> <p>NO_x gutxiago sortzeko printzipioak oinarri hartuta, NO_x emisio gutxiko erregailuak garatu dituzte, eta aire-etapa, erregaia/gasa berriz zirkulatzea eta erregai-etapa duten erregailuak sortu dituzte. Azkenaldian diseinatutako erregailuek aire-etapa, erregai-etapa eta erregaia/gasa berriz zirkulatzea nahasten dituzte teknika berriekin, NO_x emisio oso txikiak lortzeko.</p> |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitekeen</p> | <p>NO_x emisio gutxiko erregailuak instalatzeko inbertsioetarako laguntzetatik kanpo geratzen dira > 500 Mwth-ko errekuntza-instalazioak.</p> <p>Halaber, kanpoan geratzen dira indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko duten jarduerak, bai eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> <p>NO_x emisio gutxiko erregailuak sektore askotako errekuntza-instalazioetan jartzen dira, adibidez, honako hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nekazaritza: uzten laborantzak (kristalezko berotegietako laborantza) (NACE 01.19, 01.28 eta 01.29). - Elikagaien industria (NACE 10, ia azpisektore guztiak). - Paper-orearen, paperaren eta bestelako paperezko produktuen fabrikazioa (NACE 17.1). - Petrolio-produktu finduen fabrikazioa (NACE 19.2). - Produktu kimikoen fabrikazioa (NACE 20). - Oinarrizko metalen fabrikazioa (NACE 24). |

| | |
|----------------------|---|
| <p>Ekipoa</p> | <p>Venturi finkoak (aire-banatzailleak, ur-pinturaz margotzeko kabinetarako)</p> |
| <p>Kodea</p> | <p>B-2013</p> |



| | |
|---|--|
| <p>Ingurumen-hobekuntza</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Ur-pinturak lehortzeko denbora gutxitu egiten da, eta beraz, lan horretarako beharrezkoa den energia-kontsumoa gutxitzen da. - Hartara bultzatzen da ur-pinturak eta -bernizak gehiago erabiltzea, disolbatzaile-oinarria duten produktuen ordez, eta azken horiei lotutako KOLen emisioak ezabatzen dira. |
| <p>Honetan datza:</p> | <p>Venturi finkoek energia baxuko teknologia erabiltzen dute ur-pinturek lehortzeko behar duten denbora murrizteko.</p> <p>Disolbatzaile-oinarriko pintura konbentzionalen ordez ur-pinturak (ekologikoagoak, KOLen emisio gutxiago eragiten dutenak) erabiltzeko, pintaketa-kabinak aire-korrente nahikoa izan behar du, lehortze azkar eta eraginkorra lortzeko. Horretarako, aire-banatzzaileak (Venturiak) jar daitezke.</p> <p>Venturi ekipoa da, oinarrian, aire-zirkulazioa eragiten duen ekipoa, sarrerako eta irteerako sekzioen arteko alde handia duena. Venturi ekipoa aire konprimitua sartzen da, eta tarte txiki batetik atera behar du. Ekipoaren sarrerako eta irteerako sekzioen arteko aldearen ondorioz, behe presioko eremua sortzen da ekipoa barnean.</p> <p>Presioen arteko alde hori konpentsatzeko, ekipoa aire asko hartzen du ingurutik, atzealdean dagoen sarbide osagarri baten bidez; horrenbestez, aire-fluxua sortzen da inguruan, eta fluxu horrek lehortze-prozesua bizkortzen du. +/- 470 l aire konprimitu erabiliz gero minutuko, inguruan sor daiteke 7.000 l-ko aire-fluxua minutuko.</p> <p>Venturi horiek jar daitezke, esate baterako, pistolaz pintatzeko kabinaren 4 izkinetan integratuta.</p> |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitezkeen</p> | <p>100 langiletik beherako enpresa txikietan soilik aplikatu daitezke, honako sektore hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Karrozeriak konpontzeko industria (NACE 45.20). - Altzarien fabrikazio eta akaberen industria (NACE 16 eta 31). - Akabera metalikoen industria (NACE 25). - Automobilgintza (NACE 29). |



| | |
|---|---|
| Ekipoa | Molde itxiko sistema - RTM prozesua |
| Kodea | B-2014 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Airera igorritako estireno-emisioak ia % 90 murriz daitezke, molde irekiko sistemak erreferentziatzat hartuta. - RTM teknologia aplikatuz gero, sortutako hondakinen kopurua (material konposatu erretiratu) murriz daiteke, erabilitako material guztien % 10 baino gutxiagora; aitzitik, ohiko teknologia erabilia, hondakinen proportzioa izango litzateke erabilitako material guztien % 30–50 ingurukoa. |
| Honetan datza: | <p>Molde itxiko sisteman, lehenik beira-zuntz purua sartzen da molde irekian. Moldea ixteko, kontramolde bat erabil daiteke. Bai moldea, bai kontramoldea, gogor eta sendo izateko egin behar dira. Beira-zuntza moldean sartu eta kontramoldea jarri ostean, tutu malgu baten bidez konektatzen dira moldea eta erretxina-andela, gehigarriak dituena. Hutsaren edo presio handiaren bidez injektatzen da erretxina hori molde itxiko sisteman.</p> <p>Polimerizazioa moldearen barruan gertatzen da, poliester-erretxina gogortzen da eta estirenoa konposatu sintetikoan harrapatuta geratzen da. Horrenbestez, ia ez da estireno-emisiorik gertatzen.</p> |
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | <p>Kanpoan geratzen dira indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko duten jarduerak, eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> <p>Teknika hori aplikatzen da produkzio-serie txikietarako (400 piezatik beherakoak) honako sektore honetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Plastikoa ekoizteko industria (NACE 22). <p>Teknologia hori ez da egokia beira-zuntzez sendotu gabeko produktu plastikoei beira-zuntzezko sendotze-geruza bat eransteko.</p> |

| | |
|-----------------------------|---|
| Ekipoa | Erregai-banatzailetan II. faseko gasak berreskuratzeko sistema aktiboa |
| Kodea | B-2015 |
| Ingurumen-hobekuntza | Erregaiak hornitzeko garaian KOLen emisioak prebenitzen dira, eta % 75–80 inguruko eraginkortasun-indizea lortzen da KOLak. |

**Honetan datza:**

Zerbitzugune batean bi fase bereizten dira erregaien garraioan:

- I. fasea: erregaia zisterna-kamioitik biltegitratzeko andelera garraiatzea.
- II. fasea: erregaia biltegitratzeko andeletik erabiltzaileen ibilgailura garraiatzea.

Ibilgailuen erregai-deposituetan, erregai likidoak libre uzten duen espazioa erregai-gasekin beteta dago, eta gas horiek KOLak dituzte. Erregai hornitzeko garaian, gas horiek atmosferara igortzen dira, deposituaren ahotik. Emisio horiek eragotz daitezke, II. faseko lurrunak berreskuratzeko sistema bat jarrita.

Pistolak hartzen ditu gasak eta tutu malguaren bidez iristen dira erregaia gordetzeko lurrazpiko andeletaraino. Erregai-mahukak egitura ardazkidea du, eta malgua da. Mahukak, barneko (edo kanpoko) hoditik, erregaia eramaten du erregai-banatzailetik ibilgailuaren erregai-depositura, eta kanpoko (edo barneko) hoditik lurruna ateratzen du. Erregai-banatzailean, erregai-mahuka eta lurrun-mahuka bereizten dira, eta azken hori erregaia biltegitratzeko andeletara konektatuta dago.

II. faseko berreskuratze-sistemak zeharkako eragina du lurrazpiko erregai-andeletako ihes-emisioetan. Izan ere, berreskuratutako lurruna birziklatu eta lurrazpiko andeletara bideratzen bada, gas horrek eragiten du erregaia ponpatzeko garaian aire gutxiago sartzea, eta, horren ondorioz, erregai gutxiago lurruntzen da lurrazpiko andeletan. Galera horietan II. faseko lurruna berreskuratzeko sistemak duen eragina ez dago erabat zehaztuta, eta erabilitako pistolaren araberakoa izango da, ziurrenik.

Lurrunak berreskuratzeko sistema aktiboan metalezko erlaitz bat eransten zaio pistolari. Huts-ponpa baten bidez, behe presioa sortzen da zulo biribil batean, eta handik berreskuratzen da lurruna.

II. faseko lurrun aktiboko berreskuratze-sistema baten osagaiak hauek dira:

- Pistola berezia, drainatze-erlaitz bat duena.
- Mahuka ardazkidea.
- Proporzioak kontrolatzeko balbula: lurrun-korrontea erregulatzen du, erregai-fluxuaren aldiuneko indizearen arabera.
- Huts-ponpa.



| | |
|---|--|
| | Lurruna berreskuratzeko mahuka. |
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | <p>Teknika hau aplikatu daiteke erregaien hornigailu edo banatzailea duten sektore guztietan, adibidez, honako hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bilgailuentzako erregaien txikizkako salmenta (NACE 4730). |

| | |
|---|--|
| Ekipoa | Andelak garbitzeko sistema itxia, disolbatzaileak birsortzearen bidez |
| Kodea | B-2016 |
| Ingurumen-hobekuntza | Birsortutako disolbatzailea berrerabiltzen da eta KOL emisioak gutxitzen dira. |
| Honetan datza: | <p>Pinturak, koloratzaileak eta inprenta-tintak ekoizteko prozesuko jarduera kutsagarrietako bat da nahasketak egiteko erabilitako andelen garbiketa. Jarduera horren ondorioz, disolbatzailea atmosferara igortzen da, eta, gainera, disolbatzaile eta produktu kimiko ugari duten hondakin-urak sortzen dira.</p> <p>Andelak garbitzeko sistema itxian, disolbatzaileak birsortzearen bidez eragozten da disolbatzaileak atmosferara igortzea. Garbiketa prozesuan, disolbatzaileak bildu eta berreskuratu egiten dira, gero berrerabiltzeko.</p> <p>Instalazio osoa garbiketa-unitate itxi bat da, e_bakuazio-sistema eta guzti. Instalazio hori disolbatzaileak birsortzeko unitate batera konektatuta dago.</p> |
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | <p>Kanpoan geratzen dira indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko duten jarduerak, bai eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> <p>Teknika hau honako hauetan aplikatu daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Pinturen, bernizen eta estalduren fabrikazioa (NACE 20.3). - Antzekoak: inprentako tintak, masillak. |

| | |
|---------------|---|
| Ekipoa | Ionizazioa (plasmarekin tratatzea) |
| Kodea | B-2018 |



| | |
|---|--|
| Ingurumen-hobekuntza | <p>Usainak eta KOLak ezabatzea, % 60–90 inguruko efizientziarekin (usainen neurketan soilik oinarritutako neurrien arabera).</p> |
| Honetan datza: | <p>Ionizazio-tratamendua («plasmarekin tratatzea» ere esaten zaio) errekontza-gasak tratatzeko erabiltzen da, gas horiei usaina darienean eta bero-eduki txikia dutenean; adibidez, KOL kontzentrazio txikiko gasak tratatzeko.</p> <p>Gas-emisioak ionizazioaren bidez tratatzeko energia gutxiago kontsumitzen da errekontza osteko ganberako tratamenduan baino. Halaber, tratamendu biologikoekin alderatuta, hondar-gasaren konposizioan izaten diren gorabeherak gutxiago eragiten diote Gainera, ionizazio-instalazioak erraz erabiltzen dira, eta behar direnean pizteko eta itzaltzeko modukoak dira.</p> <p>Errekontza-gasa erreazio-ganbera batetik pasatzen da, eta txandakatu doan eremu elektriko indartsu baten eraginpean jartzen da (20-30 kV). Deskarga elektrikoek eragindako erreazioen ondorioz, «plasma ez-termiko» esaten zaion egoera batera iristen da gasa. Egoera horretan energia handiko elektroiak, ioiak eta erradikal askeak daude, aldi berean, eta oinarriko gasaren tenperatura ez da ia aldatzen. Gasaren tenperatura giro-tenperaturaren antzekoa izaten jarraitzen du.</p> <p>Plasma ez-termikoaren erreaktibotasun handiko osagaiak kutsatzaileen deskonposizio eta oxidazio partziala eragiten dute. Prozesu horretan, N, O eta OH erradikalak dira aktiboak.</p> <p>Batzuetan, hondar-gasaren korrontean dauden kutsatzaileen arabera, ionizazio bidezko tratamendua osatzeko garbitzaile alkalino bat behar da. Garbitzaile horrek eragotzen du atmosferara igortzea euri azidoaren sorrera eragin dezaketen kutsatzaileak.</p> <p>Aurretiazko baldintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Fluxua: 20-200.000 m³/h. - Tenperatura: 20-80 °C. - KOLen kontzentrazioak: < 5000 mgr/m³. - Hezetasun erlatibo txikia (kondentsazioa saihestu). |
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | <p>Kanpoan geratzen dira indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko duten jarduerak, bai eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> |



| | |
|--|--|
| | <p>Hainbat sektoretan aplikatu daiteke, adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nekazaritza (NACE 01). - Elikagaien industria (NACE 10). - Industria kimikoa (NACE 20). - Konpostaren fabrikazioa (NACE 38). - Hondakin-urak tratatzeko instalazioak hainbat sektoretan (NACE 37). |
|--|--|

| Ekipoa | Fotooxidazioa |
|-----------------------------|--|
| Kodea | B-2019 |
| Ingurumen-hobekuntza | <p>Zenbait osagai usaintsu ezabatzen ditu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - H₂S murrizten du: % 98 gehienez. - KOLak: irteera-gasen kontzentrazioa 25-50 mg/Nm³-koa izatea lor daiteke. - Usaina: hondakin-urak tratatzeko instalazioetan % 90eko murrizketak ere lortu dira. |
| Honetan datza: | <p>Fotooxidazioa hoditeriaren amaieran aplikatzen den teknologia bat da, hondar-gasen korronteen usaina (KOL) murrizteko. Fotooxidazioaren bidez, KOL horiek eta zenbait kutsatzaile inorganiko degradatzen dira (H₂S, merkaptanoak, NH₃, aminak). Horretarako, errektantza-gasa errektantzi-ganbera batetik pasatzen da, uhin laburreko izpi ultramoreen eraginpean (UV-C, 100–280 nm-ko uhin-luzera).</p> <p>Osagaien degradazioa gertatzen da honako bi mekanismo hauen ondorioz:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zuzeneko fotolisia: <p>Osagai batzuek H₂S, merkaptanoak, NH₃, aminak eta zenbait KOL) intentsitate handiz xurgatzen dute UV-C erradiazioa; hortaz, izpi horien eraginpean jarriz gero, degrada daitezke. Hauek dira fotolisi-erreakzio batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> - $C_2H_6 + hv \rightarrow CH_3 + HC + 2H.$ |



| | |
|--|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> - $\text{H}_2\text{S} + h\nu \rightarrow \text{H} + \text{HS}$. - Molekula fotolizatuen oxidazioa: <p>UV-C izpien eraginpean, errektibotasun handiko oxigeno-erradikalak sortzen dira. Erradikal horiek erreakzionatzen dute fotolisiaren zuzeneko erreakzioaren ondorioz sortutako produktuekin, bai eta UV-C izpirik xurgatu gabeko beste osagai batzuekin ere.</p> <ul style="list-style-type: none"> - $3 \text{O}_2 + h\nu \rightarrow 2 \text{O}_3$. - $\text{O}_3 + h\nu \rightarrow \text{O}_2 + \text{O}^*$. <p>Azken erreakzioko produktuak dira CO_2, H_2O, N_2; SO_2,... Aurretiazko baldintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Fluxua: ez dago muga kritikorik. - Tenperatura: $< 60 \text{ }^\circ\text{C}$ (jarduera hoberena $20\text{-}40 \text{ }^\circ\text{C}$ artean). - KOLen kontzentrazioak: $< 500 \text{ mgr/m}^3$. - H_2S, merkaptanoak, NH_3, aminak: $< 50 \text{ ppm}$. - Hezetasun erlatibo txikia (kondentsazioa saihestu). - Material haustuen kontzentrazio txikiak. |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitekeen</p> | <p>Kanpoan geratzen dira IPPC jarduera guztiak, 117/2003 Errege Dekretua bete behar dutenak, indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko dutenak, eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> <p>Zenbait sektoretako hondakin-urak tratatzeko instalazioetan aplika daiteke, KOLen kontzentrazioak 500 mgr/m^3-tik beherakoak izanez gero.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nekazaritza (NACE 01). - Elikagaien industria (NACE 10). - Zur-industria (NACE 16). - Industria kimikoa (NACE 20). |



| | |
|--|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> - Errausketa-instalazioak (NACE 38.2). - Biogas-instalazioak (NACE 38.3). - Hondakin-urak tratatzeko instalazioak hainbat sektoretan (NACE 37). |
|--|---|

| Ekipoa | Biogarbitzailea |
|-----------------------------|---|
| Kodea | B-2020 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - KOL kopurua % 80–90 murriz dezake. Aldi berean, amoniakoa % 80–95 murriz dezake. Horrenbestez, usainak, oro har, % 70–80 murriztuko lirateke. - Konposatu organiko lurrunkorrek biodegradatu egiten dira. |
| Honetan datza: | <p>Biogarbitzeta da gasak tratatzeko teknologia, tutueria-amaieran aplikatzen dena, usainak murrizteko. Teknologia horrek gasak garbitzeko bide hezea (xurgatzea) eta biodegradazioa nahasten ditu. Garbitzeta-uretan esekita, mikroorganismo kopuru egokia dago, gasen osagai kaltegarriak oxidatzeko. Biogarbitzaileen bidez tratatzeko, honako baldintza hauek bete behar dituzte emisioek:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hondar-gasetako kutsatzaileak ingurune urtsuan disolbagarriak izan behar dira. - Bereizitako kutsatzaileak biodegradagarriak izan behar dute baldintza aerobikoetan. - Hondakin-gasen korrante nahiko jarraitua egon behar du. - Degradazio biologiko egonkorra bermatzeko, konduktibitatea 5000 $\mu\text{S}/\text{cm}$-koa izan behar da, gutxienez. - Lohien kontzentrazioa (materia lehorra) 15 g/l-tik beherakoa izan behar da. - 15–40 °C-ko tenperaturak (egokienak 30–35 °C-koak dira). - Presio atmosferikoa. <p>Bioerreaktorearen diseinuak lohi aktibatuen sistema bat edo lohien garraiatzaile bat du oinarri. Lohiez eta urez osatutako nahastura erreaktorera</p> |



| | |
|--|---|
| | <p>bidaltzen da. Xurgatutako poluitzaileak aktibazio-andeletan edo lohiak aireztatzeko tokietan degradatzen dira. Garbiketa-dorrea eta aktibazio-andelak diseinatzean, kontuan hartu behar da ukipen-denbora nahikoa eman behar dela, xurgatzea eta degradazio biologikoa gauzatzeko, hurrenez hurren. Erreferentzia gisa, segundo bat ukipen-denbora nahikoa izan daiteke lohiak xurgatzeko, baina, azken finean, eman beharreko denbora kutsatzaileen araberakoa izango da. Biogarbitzaileetan sarritan sartzen dira lohi aktiboak; esate baterako, lohi aktiboak, hondakin-urak biologikoki tratatzeko instalazio batetik ekarriak. Biogarbitzailearen errendimendua maila egokia lortzeko aste batzuetako egokitzapena behar du. Egokitzapen-fase horren iraupena hondar-gasen konposizioaren araberakoa da. Hartzigailuetan prestatutako kulturak sartzen dira, batez ere, sufrea daukaten kutsatzaileak baldin badaude (merkaptanoak, hidrogeno sulfuroa, dimetilo sulfuroa eta abar) edota kloroa dutenak izanez gero (metano edo etano kloratuak).</p> <p>Biogarbitzailea da tutueria-amaieran KOLak (Konposatu Organiko Lurrunkorrek) eta usainak murrizteko teknika. Emisioen emariari eta konposizioari erreparatuta, emisio jarraituetan aplika daiteke. Hondakin-gasen emaria handia denean, eta kutsatzaileen karga txiki samarra (< 5 g/m³ hauts-partikula) ez da egokia; horrelakoetan, teknologia hobereana bioiragazkia da.</p> |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitekeen</p> | <p>Kanpoan geratzen dira IPPC jarduera guztiak, 117/2003 Errege Dekretua bete behar dutenak, indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko dutenak, eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> <p>Zein sektoretan aplikatu daitekeen:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nekazaritza (NACE 01). - Elikagaien industria (NACE 10). - Industria kimikoa (NACE 20). - Findegiak (NACE 24.5). - Konposta (NACE 38). - Hondakin-urak tratatzeko instalazioak hainbat sektoretan (NACE 37). |



| | |
|-----------------------------|--|
| Ekipoa | Gasen tratamendurako bioiragazkia |
| Kodea | B-2021 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - KOL kontzentrazio txikiko emari handietako usainak kentzen ditu. - Disolbagarriak ez diren KOLak ere tratatzen eta arazten dituzte, besteak beste, estirenoa eta toluenoa. - Xurgatutako konposatu organikoak biodegradatzen dira. |
| Honetan datza: | <p>Bioiragazkia da gasak tutueria-amaieran tratatzeko teknologia, usainak murrizteko erabiltzen dena. Hondar-gasen korrontea ohantze iragazle batetik pasatzen da. Ohantze hori material organikoz (zohikatz, txilar, konpost...) edo material bizigabeez (buztina, egur-ikatza, poliuretanoa...) egina da. Material iragazleak ur-geruza mehe bat dauka, mikroorganismoak dauzkana. Adsortzio eta xurgatze bidez, iragazkiko materialek hondar-gas kutsatzaileak (usaintsuak) atxikitzen dituzte, eta gero mikroorganismoek deskonposatzeari ekiten diote. Horrenbestez, prozesu horren emaitza da karbono dioxidoa, sulfatoa, nitratoa, mineralak eta/edo ura eta biomasa. Material iragazleak ematen ditu behar diren elikagaiak.</p> <p>Bioiragazkiak honelakoak izan daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bioiragazki irekiak. - Bioiragazki itxiak. <p>Bioiragazki ireki bat da material bioiragazle porotsuaz osatutako geruza bat, eta geruza horren azpitik tutueria-sare bat dago, aire kutsatua iragazkira bideratzen duena. Iragazki horiek egoitza-denbora luzeak behar dituzte; horrenbestez, iragazki-bolumenaren eta tratatutako gas-bolumenaren arteko erlazioa handia da. Gas-emari txikietan erabil daitezke. Beste alternatiba bat dira zenbait mailatako bioiragazkiak: geruzak bata bestearen gainean jartzen dira, eta ez da azalera handirik behar.</p> <p>Bioiragazki itxi bat da tratamendurako egokia den mikrobio- populazioa duen material-geruza bat. Geruza hori dago hondar-gas kutsatuak iragazkira beti berdinean bideratzen dituen banaketa-sistemaren azpian. Gas-korrontea iragazkian sartzen da, haizagailu elektriko bidez. Gasa hel daiteke, bai behetik (goranzko fluxua), bai goitik (beheranzko fluxua).</p> <p>Haizatzailea, aireztapen-sistema eta bioiragazkia egiteko materialek egokiak izan behar dute hondar-gasen, kondentsatuen, hautsen eta lohien eragin</p> |



| | |
|--|--|
| | <p>korrosiboa minimizatzeko.</p> <p>Bioiragazkiak erabiltzeko baldintzak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hondar-gasen emariak 100 m³/h-koa izan behar du gutxienez, eta 100.000 m³/h-koa gehienez. - Hondar-gasen tenperatura 15–35 °C-koa izan beharko litzateke 35 °C-tik gorako tenperatura duten hondar-gasak hoztu egin behar dira, jarduera termofilikoa (45–60 °C) nahi ez bada. - Gasen hezetasun erlatiboa % 95etik gorakoa izan behar du (agian beharrezkoa izango da gasak aurretiaz bustitzea edo ihinzatzea). - Bioiragazkia ez buxatzeko, hondar-gasek ez dute hautsik eduki behar. - Presio atmosferikoa. - Hidrokarburo-kontzentrazioa: 200–2.000 mg/m³ gehienez 800 mg C/Nm³. - Usaina: 20.000–200.000 ou/m³ (ou = usain-unitateak). - Toluenoa: 20–100 mg/m³. - Estirenoa: 50–500 mg/m³. |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitekeen</p> | <p>Kanpoan geratzen dira indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko duten jarduerak, eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> <p>Kostuak 2.000 eurotik gorakoa izan behar du, eta 500.000 eurotik beherakoa.</p> <p>Konposatu Organiko Lurrunkorrak (KOL) eta usainak murrizteko teknika da. Emisioen emariari eta konposizioari erreparatuta, emisio jarraituetan aplika daiteke, eta tutueria-amaieran jartzen da. Hainbat sektoretan aplikatu daiteke, adibidez, honako hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nekazaritza (NACE 01). - Elikagaien industria (NACE 10). - Industria kimikoa (NACE 20). |



| | |
|--|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> - Findegiak (NACE 24.5). - Konposta (NACE 38). - Hondakin-urak tratatzeko instalazioak hainbat sektoretan (NACE 37). - Lohien eta hondakinen tratamendua (NACE 38.2). - Metalen tratamendua eta estaldura (NACE 25.6). - Larruaren eta oinetakoen industria (NACE 15). |
|--|---|

| | |
|-----------------------------|--|
| Ekipoa | Jauzi-hodi maila-detektagailudunak |
| Kodea | B-2022 |
| Ingurumen-hobekuntza | Partikulen emisioak prebenitzen ditu, material haustuak kargatzeko, garraiatzeko eta deskargatzeko lanetan. |
| Honetan datza: | <p>Jauzi-hodiak erabiltzen dira solteko material lodi eta meheak ontzitan, zulotan, kamioitan, bagoitan eta itsasontzitan kargatzeko, eta uhal garratzaile batetik beste batera aldatzeko. Betetzeko hodiak jauzia du barnean, eta jauzi horren ondorioz materiala erortzen eta irristatzen da (txandaka). Altuera txikiko erorketen eta norabide-aldaketen ondorioz, zamalanetan ia ez da hautsik sortzen. Maila-detektagailuaren bidez, hodiak automatikoki eusten dio distantzia egokiari, materialaren gainazala erreferentziatzen hartuta.</p> <p>Jauzi-hodia erabiltzeko 30 m³/h-ko emaria behar da gutxienez, eta 5.000 m³/h-koa gehienez. Oso dentsitate handiko polietilenoaz, aluminio sinterizatuz, zeramikazko adreiluz eta altzairuz estalita daude, eta material horiek guztiak urradurekiko erresistenteak dira. Egokia da erraz jariatzen diren material solte lodi nahiz haustuekin erabiltzeko. Adibidez: potasa, fosfatoak, aleak, ikatza, kokea, sodio astuna, aluminio oxidoa, zementua, sodio fosfata, artoa eta pentsuak.</p> <p>Teknologia honen osagai nagusiak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Betetze-hodi bat. - Barne-jauzi bat (adibidez, txandaka elkarlotutako kono inklinatuak). - Maila-sentsore bat. |



| | |
|---|--|
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | <p>Kanpoan geratzen dira teknologia hori TEO gisa aplikatu beharra daukaten IPPC jarduerak, indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko dutenak, eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak. Honako hauetan aplikatu daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eraikinen eraikuntza (NACE: 41.2). - Ingeniaritza zibila (NACE: 42). - Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa (NACE: 23). - Hondakinak bildu, tratatu eta deuseztatzea; balorizazioa (NACE: 38). |
|---|--|

| | |
|-----------------------------|---|
| Ekipoa | Disolbatzailerik gabeko itsasgarriak erabiltzen dituen plastifikagailua |
| Kodea | B-2024 |
| Ingurumen-hobekuntza | Ur-oinarria duten ijezketa-itsasgarriak (edo erretxina ultramoreak) aplikatzeak KOLen emisioak prebenitzen edo saihesten ditu. |
| Honetan datza: | <p>Plastifikagailu batean, arrabolez prentsatzeko prozesuaren bidez (beroan prentsatzea) plastikozko mintz bat aplika daiteke paperaren, kartoiaren, paretetan jartzeko paperaren eta material sintetikoaren gainean. Plastikozko mintz hori, itsasgarri-geruza batez estalita, plastifikagailuaren berotzailean zehar pasatzen da. Disolbatzailea lurruntzen da, eta gero pelikula eta euskarria batzen dira, prentsaketa bidez.</p> <p>Ur-oinarria duten ijezketa-itsasgarri eta erretxina ultramoreen ezaugarri fisikoak dira disolbatzaile-oinarria dutenen desberdinak: biskositate desberdina dute, ur-oinarriko itsasgarriek bero sor handiagoa dute lurruntzean... Hortaz, ur-oinarriko itsasgarriak erabiltzeko, egokitzapen batzuk egin behar zaizkio plastifikagailuari, edo berria erosi behar da.</p> <p>Amaierako produktuak iragazgaitza izan behar badu, ez da komeni ur-oinarriko itsasgarriak erabiltzea; izan ere, lehortzeko prozesuaren ostean, osagai hidrofiloak atxikita geratzen dira, eta urek kaltetzeko moduko geruza osa dezakete.</p> <p>Honako hauek dira ezinbesteko osagaiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Disolbatzailerik gabeko itsasgarriak erabiltzen dituen plastifikagailua. |



| | |
|---|---|
| | <ul style="list-style-type: none">- Nahasteko sistema (behar izanez gero).- Izpi ultramoreen unitatea (behar izanez gero). |
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | <p>Honako sektore hauetan aplika daiteke, bi salbuespen hauekin: legedian ezarritako mugak betetzeko aplikatzen dutenak, eta urtean 5 tona disolbatzaileko kontsumo-atalasea daukatenak.</p> <ul style="list-style-type: none">- Papergintza-sektorea (bilgarriak) (NACE 17.21).- Inprenta-sektorea (NACE 18).- Plastikozko produktuen fabrikazioa (NACE 22). |



3. HONDAKINAK

| | |
|-----------------------------|---|
| Ekipoa | Ebaketa-likidoa iragazteko ekipo mugikorra |
| Kodea | C-3000 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Hondakin arriskutsu bat (ebaketa-likidoa) sortzea murrizten du eta ebaketa-jariakinen bizitza luzatzen du. - Ebaketa-likidoen eta/edo -jariakinen kontsumoa murrizten du. |
| Honetan datza: | <p>Konplexutasun-maila desberdinetako konposizioa duten likidoak dira ebaketa-jariakinak. Mekanizazio-operazio bateko pieza/erreminta/txirbil sistemari gehitzen zaizkio, sortutako beroa lubrifikatzeko eta ezabatzeko. Ebaketa-likidoa jariakin urtsu bat da, olio mineral sintetikoak edo erdisintetikoak dituena. Ebaketa-olioak, berriz, jariakin oliotsuak dira.</p> <p>Jariakin horiek mintz baten bidez bereizten dira, eta teknika horrek mintzaren bi aldeetara presio ezberdina eginez funtzionatzen du. Substantzia disolbagarriak eta molekula tamainako partikulek poroak zeharkatzen dituzte. Partikula esekiak, partikula koloidalak, bakterioak, birusak eta makromolekulak, berriz, mintzean atxikita geratzen dira. Mikroiragazketaren bidez, 0,1 µm-tik gorako partikulak atxikitzen dira (1–3 bareko presioarekin). Hainbat materialez egindako mintzak erabil daitezke: beira-zuntza, polikarbonatoak, PVDF (polibinilideno fluordunak), zelulosa-azetatoak, poliamidak... Iragazkia mekanikoki garbitu ohi da fluxuaren alderantzizko norabidea duen aire-fluxu batekin.</p> <p>Ekipo trinko mugikor bat da, eta 0,5 mikratik gorako partikula solidoak atxikitzen ditu, bai eta olioien, ebaketa-likidoen eta jariakin industrialen hezetasuna ere. Ekipoak olio hartzen du zirkuituko presio-puntu batetik. Gero, andelaren puntu batera itzultzen du mikroiragazita, eta tratatu beharreko olio zirkulazioan jartzen du berriz ere.</p> <p>Andeletan «giltzurrun» moduan aplikatzen da eta zirkuitu, ponpa, balbula eta eragingailu guztiak garbi uzten ditu.</p> <p>Ekipoa konektatuta dagoen makinak lanean jarraitzen du (hau da, funtzionamendu autonomoa du gainerako makinekiko eta instalazioekiko).</p> |



| | |
|---|--|
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | <p>Honako sektore hauetan aplikatu daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elementu metalikoak fabrikatzeko industriak, makineriak eta ekipoak izan ezik (NACE 25). - Makineria eta ekipo mekanikoak egiteko industriak (NACE 28). - Automobilgintza (NACE 29). - Metalaren industria (NACE 24). |
|---|--|

| | |
|-----------------------------|---|
| Ekipoa | Briketak egiteko prentsa |
| Kodea | C-3001 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Barruko hondakinak murrizten ditu. - Labe mota jakin batzuen energia-efizientzia hobetzen du. - Zenbait emisio minimizatzen ditu. - Lehengaien kontsumoa murrizten da (besteak beste, metal astunak). |
| Honetan datza: | <p>Prentsa briketatzailea material hauen aurre-tratamendurako erabiltzen da: kontzentratuak, lohi metalikoak, lokatzak, lohiak, galdaketa-labeen keetatik datozen partikula solidoak, hauts metalikoak, aluminiozko txirbilak, magnesiozko txirbilak, txirbil metalikoak, letoizko txirbilak, kobrezko txirbilak eta bigarren mailako beste material batzuk. Teknika hori ez da aplikagarria zink kontzentratua berreskuratzen duen hauts-birziklapenerako.</p> <p>Briketak egiteko prentsaren bidez, bigarren mailako material horiek zilindro trinko bihurtzen dira, antzeko tamainakoak; sendotasun egokia lortzen dute konpresioaren bidez, eta ezaugarri fisiko eta kimiko iraunkorrak izaten dituzte. Halaber, irmotasun egokia izaten dute zatitu gabe erabili ahal izateko, eta, halaber, errazago maneiatu ahal izateko. Zilindro horiek birziklatu egin daitezke; adibidez, berriz ere galdaketa-labeetara eramanez edo beste instalazio batzuetara tratatzera eramanez.</p> <p>Briketatzeko, batzuetan substantzia trinkotzaile ezberdinak erabili behar dira, besteak beste, beira-industriako zementua. Horrek badu ondorio negatibo bat: sulfuro dioxidoaren emisioek gora egiten dute, zementuaren sulfuro-edukiaren ondorioz. Hala ere, energia-kontsumoa gutxitzen du, eta, gainera, briketetan beste material fin batzuk gehitzea errazten du, adibidez, galdaketa-harea.</p> |



| | |
|---|---|
| | <p>Metalaren industrian beste gehigarri batzuk ere erabiltzen dira briketen neutralizazio termikorako (adibidez, antrazita).</p> <p>Bateratzeko osagaiak edo ura gehitu ondoren, prentsa batean sartzen da nahastura. Prentsak briketak sortzen ditu, trinkotzeko danbor edo disko birakari baten bidez.</p> <p>Tamaina askotako hauts-partikulekin eta 5 mm-tik gorako txirbilekin erabil daiteke teknika hori. Bestalde, ekoizpen-ahalmen handia lor daiteke (7.000 kg/h, gehienez), materialaren eta granulometriaren arabera.</p> |
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | <p>Honako sektore hauetan aplikatu daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Metalaren industria (ferrikoak eta ez-ferrikoak) (NACE 24). - Beira-industria (NACE 23.1). - Hondakin-uren bilketa eta tratamendua (NACE 37). - Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztatzea (NACE 38). - Deskutsatzeko jarduerak eta hondakinak kudeatzeko beste zerbitzu batzuk (NACE 39). |

| Ekipoa | Gatz metalikoen kristalizagailua |
|-----------------------------|---|
| Kodea | C-3002 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Ez da hondakinik sortzen. - Araztutako ura beste ekoizpen-prozesu batzuetan erabili daiteke. <p>Gatz metaliko kristalizatuak hain puruak direnez, birziklatu egin daitezke (lehengaia aurrezten da).</p> |
| Honetan datza: | <p>Kristalizagailuan disoluzio urtsuetan disolbatuta dauden gatzak solidotzen dira, kristalizatu egiten dira. Arin elikatzen diren material pikortsuek (mineralak edota harea) eragiten dute, pikorren errektore baten antzera. Jalkinak errektorearen hondora mugitzen dira. Errektorearen dosi jakin batek eta pH-aren doitzeak sistema funtzionarazten dute. Ez da hondakinik sortzen.</p> <p>Honako elementu hauek ditu sistemak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Errektore zilindriko bat: araztu beharreko ura azpialdetik sartzen da |



| | |
|--|--|
| | <p>eta araztutako ura goitik ateratzen da.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Material pikortsua (harea edo mineralak): ohantzearen jariakortasun-ezaugarriak mantentzen ditu. - Zirkulazio-sistema bat, birzirkulaziorako ponpa batekin. <p>Erreaktorearen azpialdetik sartzen den efluentearen abiadurak (40–120 m/h) ohantzearen ezaugarriak egonkor mantentzen ditu. Beraz, gainasetasun erlatibo oso handia dago.</p> <p>Ohantze jariakorraren bidez, eremu handi bat lortzen da kristalizazio-erreakzioak azkar eta modu kontrolatuan gertatzeko (5.000–10.000 m²/m³). Metalak dituzten substantzia eta anioi ia guztiak pikorrean kristalitzen dira. Aldian behin (normalean egunean behin), pikorren zati bat ordezkutzen da beste material batekin.</p> <p>Hau da zirkulazio-sistemaren printzipioa: sisteman sartzen den ur kutsatua zirkulazioan dagoen anioien edo kontzentrazio metalikoen korrontearekin nahasten da. Teknika horren bidez, 10–100.000 ppm-ko kontzentrazioa duten mota guztietako hondakin-urak trata daitezke zirkulazio-maila doituaz. Horrela araztutako ura gehiago garbitu nahi bada, iragazki minerala edo mintz bidezko iragazketa erabil daiteke (sistemaren barruan instala daiteke). Kristalizagailuak ezabatutako partikula pikortsu horiek berriz disolbatzen dira, eta erreaktorera itzultzen diren azidoekin nahasten dira.</p> <p>Gatz-kristalizagailuaren teknika hondakin-uretako metal astunak ezabatzeko erabiltzen da, urak berreskuratzeko eta gero berrerabiltzeko. Halaber, prozesuetako konposatu kimikoak –fluoruroak, fosfatoak, sulfatoak– berreskuratzeko edota elektrolitoen bizitza baliagarria luzatzeko erabiltzen da.</p> <p>Badaude hutseko kristalizagailu jarraituak ere. Araztu beharreko soluzioa hoztu eta hutsean lurruntzen dute, eta horrela, kutsatzaileak kristalitzen dituzte.</p> |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitekeen</p> | <p>Kanpoan geratzen dira indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko duten jarduerak, bai eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> <p>Metal astunak, fluoruroak, fosfatoak, sulfatoak eta prozesuetako konposatu kimikoak berreskuratzeko edota elektrolitoen bizitza erabilgarria luzatzeko (kobre-gatzak izan ezik) aplikatzen da, honako sektore hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Industria kimikoa (NACE 20). |



| | |
|--|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> - Metalak tratatzeko industria (NACE 25,61). - Metalen industria (NACE 24). - Elikagaien industria (NACE 10). - Industria farmazeutikoa (NACE 21). |
|--|---|

| | |
|-----------------------------|--|
| Ekipoa | Lohien lehortze elektrikoa, ekoizpen txikietarako |
| Kodea | C-3004 |
| Ingurumen-hobekuntza | Lohien bolumena (kudeatu beharreko hondakina) txikiagotzen du, eta lohien hezetasuna murrizten du. |
| Honetan datza: | <p>Lohien lehorgailu elektrikoa erabil daiteke edozein lohi motatako kopuru txikiak prozesatzeko, eta, bereziki, lohi bereziak, toxikoak edo arriskutsuak tratatzeko.</p> <p>Prensa-iragazki batetik datozen lohiak ontzi birakari batean sartzen dira. Biraketen ondorioz, lohiak nahasten dira eta gehiago lehortzen dira. Lehortze-prozesua zirkuitu erabat itxian egiten da, atmosferara gasik igorri gabe. Horrenbestez, unitate hori lokal itxi eta kontrolatuetan erabil daiteke.</p> <p>Lehortze-ziklo osoa tenperatura baxuan gauzatzen da (50 °C inguru) eta oso energia gutxi behar da. TE lehorgailu birakaria mota eteneko unitate bat da (sailka lehortzen du) eta ziklo bakoitzean 500–7.000 litro lohi lehor ditzake. Ur-edukia % 5era murriz daiteke, eta ateratako litro bakoitzeko 0,35 kW behar ditu.</p> <p>Lehortze-ziklo bakoitzaren iraupena da unitatean sartutako lohien hezetasun-portzentajearen arabera, eta amaieran lortu nahi den hezetasun-portzentajearen arabera. Lehortze-zikloa automatikoa da, eta lohi mota bakoitzaren ezaugarrien arabera egokitu daiteke.</p> <p>Honako hauek dira ezinbesteko osagaiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lohien lehorgailu elektrikoa, kantitate txikietarako. |



| | |
|---|--|
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | <p>Teknologia hori aplika daiteke lohi gutxi sortzen den edozein instalaziotan, hala nola:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hondakin-urak tratatzeko industria (NACE 37). - Elikagaien industria (NACE 10). - Metalurgia (NACE 24). - Metalaren industria (NACE 25). - Metalen tratamendua eta estaldura (NACE 25.6). |
|---|--|

| | |
|-----------------------------|--|
| Ekipoa | Metal ez-ferrikoen bereizgailua |
| Kodea | C-3005 |
| Ingurumen-hobekuntza | Hondakin metaliko ez-ferrikoak berreskuratu eta birziklatzea. |
| Honetan datza: | <p>Metal ez-ferrikoen bereizgailuek (korrante parasitoen bidezko bereizgailuak ere deitzen zaie) metal ez-ferrikoen 3 eta 150 mm arteko partikulak bereizi ditzakete (adibidez, beruna, kobrea, aluminioa).</p> <p>Metal ez-ferrikoen bereizgailu baten funtzionamendu-printzipioaren oinarria korrante parasitoen printzipioa da. Eredu magnetiko aldakor bat zeharkatzen duen material eroalean, eremu magnetiko horren aurkako korrante parasitoak sortzen dira. Korrante parasito zirkulatzailer horiek elektroimanak sortzen dituzte, eta elektroiman horiek kanpoko eremu magnetikoaren aldaketaren aurkako eremu magnetikoak dituzte (ikus Lenz-en legea). Eredu magnetikoa zenbat eta handiago, edo eroalearen elektrizitate-eroankortasuna zenbat eta handiago, hainbat eta handiago dira sortutako korranteak, eta hainbat eta handiago da aurkako indarra.</p> <p>Aurkako indar horrek metal ez-ferrikoen partikulak hondakin-fluxutik kanpora bidaltzen ditu, eta erraz bereiz daitezke.</p> <p>Metal ez-ferrikoak bereizteko instalazio baten osagai nagusiak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Danbor zentrifugoa (Foucault-en korrantearen printzipioa). - Eroalea, blokeo-balbula. |



| | |
|---|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> - Detekzio-sentsoreak. - Kontrol-unitatea eta - Bereizketa-unitatea. |
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | <p>Ezin da aplikatu erabiltzen ez diren ibilgailuak desegiteko sektoreko jardueratan; zehazki, zatikatzaileetan. Honako jarduera hauetan aplika daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Birziklatzea (NACE 38). - Eraispinak eta lur-mugimenduak (NACE 43.1). |

| | |
|-----------------------------|---|
| Ekipoa | Plastikoak hondakinetatik banantzeko bereizgailua |
| Kodea | C-3006 |
| Ingurumen-hobekuntza | Plastikoen % 85 birzikla dezake (erabiltzen ez diren ibilgailuen hondakinen % 5–20). |
| Honetan datza: | <p>Erabiltzen ez diren ibilgailuen plastikoak bereizteko, hondakin horiek lau bereizketa-danborretatik pasa behar dute. Danbor horiek dentsitate desberdinetako likidoak dauzkate (1,6, 1,25, 2,2 eta 3,2 g/cm³). Etengabeko prozesu horretan, lehenengo ingurunean (1,6 g/cm³) materia organiko eta ez-organikoa bereizten dira. Bigarrean (1,25 g/cm³) PVCa gainerako plastikoetatik bereizten da. Hirugarren eta laugarren inguruneetan (2,2 eta 3,2 g/cm³) metal baliotsuak berreskuratzen dira, plastiko teknikoak zatikitik bereizita.</p> <p>Prozesu horren bidez, termoplastikoen % 90 kontzentratzen dira hasierako masaren % 10eko zatikian. Zatiki hori berriz ere bereiz daiteke, plastikoak bereizteko ohiko unitate batean, polietileno, polipropileno, ABS eta poliestireno zatikiak lortzeko.</p> <p>Teknologia honen osagai nagusiak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dentsitate handiko inguruneke bereizketa-danborren unitatea. - Elikatze-unitatea. - Neurketa- eta kontrol-ekipoak: |



| | |
|---|--|
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | <p>Erabiltzen ez diren ibilgailuen kudeatzaileei ezin zaie aplikatu. Honako jarduera hauetan erabil daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hondakin arriskugabeak bildu eta deuseztatzea (NACE 38.21). - Balorizazioa (NACE 38.31). |
|---|--|

| | |
|-----------------------------|--|
| Ekipoa | Hondakinen kudeaketarako eta bilketarako RFID teknologia |
| Kodea | C-3007 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Bildutako hondakinen kalitatea hobetzea. - Gas-emisioak minimizatzea, bilketa-ibilbidea optimizatzearen ondorioz. - Lurzoruan eta uretan eragindako inpaktua minimizatzea. |
| Honetan datza: | <p>RFID da datuak gordetzeko eta berreskuratzeko urruneko sistema elektronikoa, RFID etiketa, txartel edo transpondedoreak (RFID tagak) esaten zaien dispositiboak erabiltzen dituenak. RFID teknologiaren helburua da objektu baten identitatea eta ezaugarriak (serie-zenbaki baten antzera) igortzea irrati-uhinen bidez. RFID teknologiak Auto ID esaten zaien teknologien artean daude (<i>automatic identification</i> edo identifikazio automatikoa). RFID sistema batek honako hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Tag bat edo gehiago. - Gailu bat edo gehiago. - Antena bat edo gehiago. - Aplikazio-softwarea eta ordenagailu nagusia. <p>Hondakinen kudeaketaren alorrean, azpimarratzekoa da RFIDak baldintza batzuk bete behar dituela, egoki jardun ahal izateko. Lehenik, sistema sendoa eta oso fidagarria izan behar dute; izan ere, teknologia horren helburu nagusietako bat da bilketa-zerbitzuan eragitea eta kudeaketa nahiz fakturazioa hobetzea. Bigarrenik, baldintza hauek kontuan hartu behar dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Tenperatura-tarte hedatua: operatiboa 30–70 °C, biltegitratzea 30–85 °C. - Gutxieneko ingurumen-babesa IP65. |



| | |
|--|--|
| | <ul style="list-style-type: none"> - Bibrazioa eta talka (testak gainditzea). - Kapsularatze erresistenteak. - Bus CAN, ibilgailuetako gailuen (pisaketa, identifikazioa,...) eta sistemen arteko komunikaziorako, ibilgailuen arteko komunikaziorako nazioarteko estandarra baita. - Elikaduraren tentsio-tartea: 8–30 Vdc. <p>Betekizun guztiz hertsia ez badira ere, RFID identifikazio-sistemek ezaugarri hauek izan behar dituzte, hondakin-bilketaren sektorean jarduteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 134 kHz-ko <i>half-duplex</i> teknologia (HDX) - Irakurketarako soilik diren 134 kHz-ko <i>half-duplex</i> (HDX) transpondedore identifikatzaileak. - Gutxieneko irakurketa-distantzia: 200 mm. - Identifikazio-akatsen gehieneko ehunekoa < % 0,05 - Ibilgailuko ordenagailuarekin konektatutako irakurgailua, ibilgailuentzako bus CAN komunikazio estandarren bidez. - Datuen osotasuna eta segurtasuna bermatzeko sistema, erakunde ofizial batek egiaztatua. |
| Zein sektoretan aplikatu daitezkeen | <p>Sektore hauetan aplikatu daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hondakinak bildu, tratatu eta deuseztatzea; balorizazioa (NACE: 38). |

| | |
|-----------------------------|---|
| Ekipoa | Pintura eta estaldura indukzio bidez desugertzea |
| Kodea | C-3008 |
| Ingurumen-hobekuntza | <p>Ez da beharrezkoa material urratzaileak kontsumitzea. Ez dute partikula-emisiorik sortzen, ezta zaratarik ere.</p> <p>Horrekin lotutako hondakinen sorkuntza minimizatzen da. Energia-kontsumo efizientea.</p> |



| | |
|--|---|
| <p>Honetan datza:</p> | <p>Bero-indukzio bidezko desugerketa-sistemak konduktibitate elektrikoa duten gainazaletako (altzairua, etab.) pintura, estaldurak, herdoil-zolda lodiak, korrosio bakteriologikoa eta koipe eta olioien hondarrak desugertzen ditu. Desugertu beharreko materialaren eta euskarriaren arteko azal-itsaspena hausten da, indukzio bidezko bero kontrolatu eta lokalizatua erabiliz.</p> <p>Indukzio-buruak sortzen duen eremu elektromagnetikoa tratatu beharreko gainazalaren gainean jartzen da. Indukzio-buruaren posizioan, altzairua segundo milaren gutxian beharrezko den aurredoikuntza-tenperaturara iristen da. Horrek pintura, estaldura, herdoila, eta abar berehala askatzea eragiten du. Induzitutako beroa 0,3 mm inguru sartzen da substratu metalikoan eta objektuaren tratatutako aldearen estaldura edo herdoila askatzen da, atzealdeko pinturari edo estaldurari eraginik edo kalterik sortu gabe. Pintura, herdoil, estaldura eta abarren geruza askatu eta espatula batekin edo antzeko tresna batekin zuritu edo kentzen da.</p> <p>Teknologia honen osagaiak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Frekuentzia, tenperatura eta beroaren sarrera kontrolatzeko aukera ematen duen indukzio-bidezko sorgailu trinko bat. - Kondentsadoreen tarteko kutxa. - Hoztea duen luzapen-mahuka; mahuka eta burua uraren bidez hozten dira. Zirkuitua ur-emariaren beherakadaren kontra babestuta dago, tiratze-sentsoreen bidez. <p>Hala ere, zirkuitu itxiko hozte-sistema bat edo beste edozein hozte-diseinu hornitu daiteke, lan egin behar den tokiko baldintza zehatzen arabera.</p> <p>Eskuzko inductore estandar bat, indukzio-buru bat barne (desugerketako). Eskuko tresna bat, indukzio-bobina barne; hainbat forma eta neurritakoa izan daiteke. Tresna hori sentsorez ekipatuta dago, tenperatura langilearen aitzinamendu-abiaduraren arabera erregulatzeko.</p> |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitekeen</p> | <p>Kondukzio-egiturak —normalean, metalezkoak— dituzten sektore guztietan aplika daiteke. Honelako egiturak izan daitezke, adibidez: altzairuzkoak (zubiak, pasabideak, garabiak, etab.), itsas-flotak, produktu kimikoak metatzeko tangak, petrolio-plantak edo erauzketa-plantak, offshorea, industria mekanikoak, kondukzioak, galdaragintza, garbiketa eta pintaketa industrialeko enpresak, etab.</p> |
| <p>Ekipoa</p> | <p>Laser bidezko garbiketa eta gainazalen tratamendua</p> |



| | |
|-----------------------------|---|
| Kodea | C-3009 |
| Ingurumen-hobekuntza | <p>Ez da beharrezkoa material urratzaileak kontsumitzea. Partikulen emisioak minimizatzen dira,</p> <p>Horrekin lotutako hondakinen sorkuntza minimizatzen da.</p> <p>Materialen galerak minimizatu edo saihesten dira.</p> |
| Honetan datza: | <p>LASER izpiak sortzea (ingelesez, <i>Light Amplification by Stimulated Emission of Radiation</i>), euskaraz, erradiazio-emisio estimatutaren bidez anplifikatutako argia. Gailu horrek mekanika kuantikoko eragin bat erabiltzen du, igorpen induzitua edo estimatua, dagokion ingurunerako koherentea den neurri, forma eta purutasun kontrolatuko argi sorta bat sortzeko.</p> <p>Laserrek argia indartzen dute, energia xurgatuz eta irradiatuz. Laser bidezko erradiazioa laser-iturri baten bitartez sortzen da. Horretarako, kristalezko barra batera (laserraren gorputz finkoa) energia kontzentratua edo gas-nahasketa berezi bat zuzentzen da. Energia hori argiaren bitartez (izpien lanparak edo diodo-laserra) edo deskarga elektriko baten bitartez (lanpara fluoreszente baten antzekoa) sor daiteke. Kristalezko barra edo laserraren bidez aktibatutako gasa bi ispiluren artean zuzentzen da. Horrela, argi-erresonadore bat sortzen da. Horrek laserraren argiari norabide jakin bat ematen dio eta etengabe indartzen du.</p> <p>Laser-ablazioa laser batek objektu solido baten gainean jardunda horren gainazaleko materiala kentzeko edo lurruntzeko prozesu bat da. Segundo bakoitzean tratatu beharreko gainazalera enfokatutako milaka bulkada banatzen dira. Gainazalak laser-energiaren zati handiena xurgatzen du eta kutsatzaileak, estaldurak, herdoilak, olioak, koipeak eta bestelako hondarrak deuseztatzen dira, sublimazioaren bitartez. Energia termikoa azkar sakabanatzen da, laserrak lurrindutako hondarrak substratutik kentzen diren neurrian. Prozesuaren abiadura materialen xurgapen optikoaren arabera da.</p> <p>Substratuko materiala, deuseztatu beharreko kutsatzailearen edo hondarraren kasuan gertatzen denaren kontra, normalean ez da xurgatzen; horren ordez, laserraren argi sortaren energia islatzen du. Substratuko material islatzaile batera iristean, laser bidezko ablazio-prozesua automatikoki gelditzen da. Energiaren dentsitatearen doitzeek aplikazio askotarako tratamenduak ahalbidetzen dituzte, substratuan nahi gabeko eragin mekanikoak edo termikoak sortu gabe.</p> <p>Gainazalen tratamendu edo garbiketa-tratamendu optimoak lortzeko, parametro egokienak aurkitu behar dira: uhin-luzera, bulkadaren iraupena,</p> |



| | |
|---|---|
| | <p>energiaren dentsitatea eta bulkaden errepikapen-maiztasuna.</p> <p>Laser-ekipoek, nagusiki, hiru zati dauzkate:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Unitate zentrala. - Zuntz optikoa eta hurrupatze-kanala. - Buru optikoa. |
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | <p>Hauek dira aplikazio-sektore nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreprodukzioa (EJSN 18) - Hainbat industria- eta ekoizpen-jarduera, aeronautika barne (EJSN 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 30, 30.3, 32.2, 32.5, etab.) - Ekipo elektroniko eta optikoen konponketa (EJSN 33.13) - Garbiketa-jarduerak (EJSN 81.2) |

| | |
|-----------------------------|---|
| Ekipoa | Hutseko lurrungailua |
| Kodea | C-3010 |
| Ingurumen-hobekuntza | <p>Ez du erreaktibo kimikorik behar.</p> <p>Prozesatzeko urak lehengoratzeta eta berrerabiltzeta. «0» isurtzeko aukera.</p> <p>Horrekin lotutako hondakinen sorkuntza minimizatzen da</p> |
| Honetan datza | <p>Nahasketaren osagaietako bat irakite-puntura iritsi arte berotzean eta erabat lurrindu arte irakiten uztean datza. Metodo hori lurrundutako osagaia erabiltzeko asmorik ez daukagunean erabiltzen da.</p> <p>Kontzentrazio-lurrunketaren teknikaren ezaugarria hau da: efluente likido bat eraldatuz bi korrante sortzen dituena, bata kalitate handiko ura, eta bestea, hondakin kontzentratua. Lortutako uraren kalitatea berrerabiltzeko adinakoa da; hondakina, berriz, kontzentratua izan daiteke, ia erabat lehorra izatera iristeraino.</p> <p>Hala, lanerako erabiltzen den presioaren arabera, temperatura baxuagoan lurrundu daiteke, beraz, efluentea prozesatzeko tenperaturara arte berotzeko</p> |



prozedura kontuan hartuta, hutseko hainbat lurrungailu bereizten dira:

- **Bero-ponparen bidezko hutseko lurrungailua:** ekipoa edo erreaktorea hutseko baldintzen pean egonda, efluenta 40 °C inguruko tenperaturetan lurruntzea ahalbidetzen du, eta horri esker, ez da beharrezkoa bero edo hotz handiagoa ematea. Gas hoztaile baten konpresioaren eraginez gertatzen da hori. Gasa kondentsatu egiten da eta lurrundu beharreko likidoari beroa ematen dio, truke termikoaren bidez. Geroago, gasa hedatu egiten da, balbula termostatiko baten bidez eta lurrundutako likidoa hoztu eta jariatutakoa ateratzen duen kondentsadore baten bidez.

- **Lurrunaren konpresio mekanikoaren bidezko hutseko lurrungailua:** Teknika honetan, destilatua mekanikoki konprimatzen da tenperatura handitzeko eta, horrela, lurrun gainberotua lortzeko (lurrunketan sortutako lurrunaren tenperatura handitu egiten da, lurrunaren beraren konpresioaren bidez). Lurrun horrek, bero-trukagailu baten bitartez, bere energia lurrundu beharreko likidoa berotzeko uzten du, lurruna bera kondentsatzen den bitartean. Horrela, lurrundu beharreko likidoa berotzeko energia gutxiago behar da, eta beste alde batetik, kondentsaziorako hozte-iturri bat behar izatea saihesten da.

- **Eragin askotako hutseko lurrungailua:** katean konektatutako hainbat lurrungailu instalatzean datza. Horietako lehenengoan, ur beroa edo lurrun freskoa erabiltzen da lurrundu beharreko likidoa berotzeko. Eragin askotako hutseko lurrunketan, lehenengo lurrungailuan sortzen den destilatua bigarren lurrungailuan berotzeko agente gisa erabiltzen da. Bigarren lurrungailuan sortutako lurruna hirugarren lurrungailuko likidoa berotzeko erabiltzen da eta horrela hurrenez hurren.

Lurrungailu estandar baten osagai nagusiak hauek dira:

- Konpresorea (gas hozgarria).
- Lurruntze-ganbera.
- Bero-trukagailua, aire edo ur bidezkoa.
- Kondentsazio-ganbera.
- Huts-ponpa.
- Destilatua metatzeko tanga.
- Kontzentratua deskargatzeko ponpa.



| | |
|---|---|
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | <p>Efluente likido bat edo hondakin-ura tratatzeko aplika daiteke, ura prozesuaren barruan berrerabiltzeko helburuarekin. Aipatutako teknologia ezartzeko eskakizuna bete behar duten IPPC jarduerak edo teknologia beraien baimenetan adierazitako emisioen muga-balioak betetzeko ezartzen duten jarduerak baztertzen dira.</p> <p>Beraz, edozein motatako jardueretan edo sektoretan aplika daiteke</p> |
| Ekipoa | VIS eta NIR bidezko bereizgailu optikoak |
| Kodea | C-3011 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Hondakinak bereizteko efikazia hobetzen da (% 90-95eko efikazia) - Hondakinak bereizteko prozesuaren errendimendua handitzen da eta denbora gutxiagoan hondakin gehiago bereizten dira. |
| Honetan datza: | <p>Bereizgailu optikoek ahalbidetzen dute hainbat material-tipologia automatikoki sailkatzea eta bereiztea, konposizioaren (NIR) edo kolorearen (VIS) arabera. Sailkatu beharreko materiala askotan uhal garraiatzaile batean jartzen da, oso abiadura azkarrean funtzionatzen duena, isolagailuaren antzeko eginkizuna bete dezan. Argi-lanparak eta detektagailu optikoak uhal garraiatzailea baino gorago instalatzen dira. Detektagailu horiek infragorri hurbileko espektroskopian (NIR) oinarritutako sentsoreak izan daitezke —materialaren konposizioaren arabera sailkatzeko—, edo argi ikusgaiaren espektroskopian (VIS) oinarritutakoak, materialak kolorearen arabera bereizteko. Bereizgailu optikoetan sentsore horietako bat egon daiteke edo teknologia berberean hainbat sentsore mota sartu daitezke.</p> <p>Sentsoreek identifikatutako zatikiak banatzeko, deskargaren muturrean kokatutako txorroetako aire-pultsuak erabiltzen dira. Hainbat aire-txorro indibidual dira, eta elkarren artean gutxi gorabehera 30 mm-ko distantzia egoten da. Sentsoreek lortutako datuen prozesadoreak seinale bat transmititzen du materiala detektatzen bada, eta aire-pultsuak gainerako materialetatik bereizten du, aire-txorro bat edo gehiago aktibatuta.</p> <p>Teknologia hau mota askotako hondakinak gaika bereizteko erabili daiteke, hala nola papera, kartoia, beira, zepak, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak (EEH), metalak, biohondakinak, polietilenoa (PE), polipropilenoa (PP), poliestirenoa (PS) eta abar, baita ehunak ere. Hondar-erregai solidoan metal astunen eta kloroaren edukia murrizteko ere aplikatzen da. NIR sistemarekin egiten den birziklagarrien berreskuratzea % 80-90 ingurukoa da, eta % 85-95ekoa, lineako bi NIR sentsoreekin egiten bada. Baina lortu daitekeen kalitatea % 90-97 artekoa izan daiteke, adibidez, bi sentsore motak</p> |



| | |
|---|---|
| | (VIS eta NIR) eta adimen artifiziala konbinatzen badira. |
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | Teknologia honen aplikazioko sektore nagusia da Hondakinak bildu, tratatu eta deuseztatzea; balorizazioa (EJSN 38). Gainera, EEHak bereizteko ere teknologia oso erabilgarria izan daiteke. |

| | |
|-----------------------------|---|
| Ekipoa | Ohe fluidotuko lehorgailuak |
| Kodea | C-3012 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Material granularrak eta hautsa lehertzeko efikazia handia; horrela, hainbat material berreskuratu ahal dira, berrerabili edo birziklatu ahal izateko. - Lehertzeko denbora gutxiago eta materialak lehertzeko energia-kontsumo txikiagoa. |
| Honetan datza: | <p>Ohe fluidotuko lehorgailua erabiltzen da eta askotariko hautsen eta granuluen hezetasuna murrizteko. Ohe fluidotuko lehorgailuaren funtzionamendu-printzipioa da presio handiko aire beroa sartzea partikula solido hezeak dituen ohe zulatu batetik zehar. Partikula horiek aire-korrontean esekita geratzen dira eta egoera fluidotua eskuratzen dute; horrela, solidoek emari libreko jariakin irakin gisa jokatzen dute. Hala, banakako partikula heze bakoitzaren gainazala aire beroarekin kontaktuan lehortzen jartzen da; ondorioz, handia da bero-transferentzia, eta lehortze-denbora, laburra.</p> <p>Ohe fluidotuko lehorgailuak aire-ganbera bateratu batek eta lehortze-ganbera batek osatzen dituzte. Ganbera horiek aire porotsua banatzeko plaka batek bereizten ditu, eta gas jariakorra ohearen gainazalean uniformeki banatzea bermatzen du. Oro har, deflektore bertikal asko badaude lehortze-ganberan, ohe fluidotua hainbat ganbera txikietan zatitzeko, eta plaka banatzaile bakoitzak bahearen hondoaren eta plakaren arteko distantzia gorantz eta beherantz doitu dezake, materiala lehertzeko denbora bateratuagoa izan dadin. Material granularra etengabe sartzeko lehorgailuaren lehen ganberan elikatzaile batetik. Materiala fluidotuta dagoenez, aske mugitu daiteke lehenengo ganberatik ondoko atzeko ganberara, eta lehortutako produktua azken ganberatik deskargatzen da. Ohetik ateratzen den gasa orokorrean partikulak biltzeko bi gailutatik igarotzen da. Lehendabizi, zikloi-bereizgailu batetik, ohera sartutako material granularren finak sortzen dituena, eta, ondoren, gas-garbigailu batetik, partikulen legezko emisio-mugak betetzea ahalbidetzen duena.</p> <p>Beste aukera bat da material fluidotua dagoen lehortze-ganberan zeharkako beroa transferitzeko tutu edo xafla batzuk murgiltzea. Modu horretan, materiala deshidratatzeko behar den beroa bero-trukatzaileak eta fluidotzeko aire beroak ematen dute. Sistema horrekin, alde batetik, energia asko</p> |



| | |
|---|---|
| | aurrezten da, trukagailuaren efizientzia oso handia baita (% 90ekoa gutxi gorabehera), eta, bestetik, behar den aire beroa nabarmenki gutxitzen da, eta horrenbestez, partikula-emisioak murrizten dira. |
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | <p>Teknologia hau hainbat sektoretan aplikatu daiteke, besteak beste: industria kimikoa, elikagaien industria, plastikoen industria, beira eta metalezkoak ez diren produktu mineralak.</p> <p>Hala eta guztiz ere, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren esparruan teknologia hori aplikatu daitezkeen sektore bakarra Hondakinak bildu, tratatu eta deuseztatzea; balorizazioa da (EJSN 38), uste baita teknologiak ingurumen-hobekuntza benetakoa dakarrela sektore horretan, oso teknologia erabilgarria baita agregakin mota guztiak lehertzeko eta ondoren berrerabili edo balorizatzeko.</p> |

| | |
|-----------------------------|--|
| Ekipoa | Galdaketako moldekatze-hondarrak birsortzea |
| Kodea | C-3013 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Erabilitako galdaketako moldekatze-hondarren hondakinak gutxitzen dira. - Lehengai gutxiago erabiltzen dira, galdaketako moldekatze-hondarrak berrerabiltzen baitira. |
| Honetan datza: | <p>Hondar berdeentzat, teknologia gisa sartu da higadura edo atrizio txikiko tratamendua hau da, lehen-mailako birsorkuntza. Tratamendu honetan sistema mekaniko sinpleak erabiltzen dira hondarra xehatzeko eta moldeetatik eta arretatik bereizteko. Honako hauek dira teknika ohikoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bibrazioa: hondarraren lehen mailako berreskurapenean gehien erabiltzen den teknika sareta edo parrilla dardarkaria da. Hondarra bahetu egiten da eta ondoren tratatu egiten da (hoztu, tamainaren arabera sailkatu...). - Danborra: desmoldekatze-hondarra danbor birakari batean sartzen da, eta danborrak zeharkako eta goitik-beherako mugimendu-barrak izaten ditu. Hondarra danborretik mugitzen doan heinean, danborraren errotazioarekin eta gorako mugimenduekin hondar-partikulak bata bestearen aurka igurtzen dira eta banakako pikorrak sortu arte xehatzen dira. - Granailaketa: pieza eta moldea zuzenean sartzen dira granailatzeko makinan. Granailak oso-osorik desegiten du moldea eta piezaren gainazala ere garbitzen du. Ondoren, hondarra eta granaila bereizten dira. <p>Nahasketa-baldintzak egokiak izan daitezen, hondarra hoztu egin behar da 40 – 45 °C-raino. Horregatik, zenbait kasutan ekipo bat behar izaten da hondarra</p> |



| | |
|---|--|
| | <p>hozteko (lurruntze bidezko hozkailuak, ohe zurrunbilotsuak edo fluidotuak eta bero-trukagailuak). Gainera, batzuetan homogeneizazio-sistemak ere erabiltzen dira hondarraren kalitate-maila egonkor mantentzeko eta hondarra birsortzearen prozesua erraztu eta hobetzeko.</p> <p>Hondar kimikoentzat, teknika gisa sartu da atrizio txikiko tratamendu bat egitea, eta ondoren birsorkuntza termikoko bat. Teknika honek beroa erabiltzen du aglomeratzailea eta hondarrean dauden kutsatzaileak kiskaltzeko. Hondarra normalean ohe fluidotuko labe batean berotzen da, 700-800 °C inguruko funtzionamendu-tenperaturan. Labe birakariak edo zola anitzekoak ere erabiltzen dira. Beroa gas-errekuntzarekin lortzen da, berogailu elektriko bidez edo uhin motzeko infragorrien igorgailuen bitartez.</p> <p>Tratamendu termikoan sortzen diren gasak erre egiten dira karbono-monoxidoa eta KOLak deuseztatzeko. Horretarako, labeko espazio librea erabili daiteke nahikoa handia bada, eta aire osagarria gehitu daiteke edo gasaren errekuntza-ostekoak erabili daitezke. Kasu guztietan ere, emisioak hutsalak dira. Gainera, errekuntza-gasak nagusiki mahuka-iragazkien bidez iragazten dira partikulen emisioak murrizteko.</p> |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitezkeen</p> | <p>Teknologia horiek moldekatze berdea eta moldekatze kimikoa erabiltzen dituzten galdategietan aplikatzen dira. Beraz, aplikazio-sektorea Metalen galdaketa da (EJSN 245).</p> |



4. ENERGIA

| | |
|--|---|
| Ekipoa | Mikrokogenerazioko unitate trinkoa |
| Kodea | D-4010 |
| Inguruen-hobekuntza | <p>Kogenerazio-instalazioek oinarrizko energia aurrezteko daukaten potentziala oso handia da, elektrizitatea eta beroa bakoitza bere aldetik sortzeko prozesuekin alderatuz gero. Sistema horien bidez, neurri handi batean aprobetxatzen da erabilitako erregaiaren energia. Aurrezten den portzentajea inguruko baldintzen arabera da, baina normalean % 80tik gorakoa izaten da.</p> |
| Deskribapena | <p>Mikrokogenerazioko unitate trinkoek eta eskala txikiko kogenerazioko unitateek osagai hauek dituzte: motosorgailu bat eta motorreko irteera-gasen berreskurapen termikorako sistema bat. Unitateak edukiontzietan edo kabinetan itxita egoten dira, eta, normalean, kogenerazio-unitateka banatzen dira.</p> <p>Unitate horiek «Plug & Play» gisa izendatzen dira, hau da, fabrian amaituta eta probatuta daude; beraz, instalatuko diren lekuan jartzeko nahikoa da sarera konektatzea. Konexioa sarearekin paraleloan egin daiteke (energia elektrikoa esportatu edo inportatu nahi bada soberakinak botatzeko edo defizitak konpentsatzeko) edo saretik kanpo (ekipoak modu autonomoan funtzionatzea nahi bada).</p> <p>Txosten honen ondorioetarako, 1 MW elektrikitik beherako potentzia instalatua duten kogenerazioko unitate konpaktuak ebaluatzen dira. 2004/8/EE Zuzentarauaren arabera, ezaugarri hori betetzen dute mikrokogenerazioko unitateek (potentzia < 50 kWe) eta eskala txikiko kogenerazio-unitateek (50 kWe < potentzia < 1 MWe).</p> <p>Mikrokogenerazioko moduluek larrialdietarako multzo elektrogenoen funtzioak ere bete ditzakete.</p> |
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen eta erabilerak | <p>Elektrizitatea eta ur/aire beroa aldi berean jasotzeko eskaria egiten duen edozein instalaziotan aplika daiteke teknologia hori (zerbitzuen sektorean nahiz ETE industrialetan). Horrenbestez, sektore guztietan aplikatu daiteke.</p> |



| | |
|--|--|
| Ekipoa | Errendimendu handiko bero-ponpak (SPF>2,5) |
| Kodea | D-4013 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Energia-efizientzia hobetzea. - Klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzea. |
| Deskribapena | <p>Bero-ponpa bat makina termiko bat da, beroa iturri hotz batetik xurgatu eta iturri bero batera banatzen duena. Bero-ponpa gehienek konpresiozko ziklo termodinamikoaren bidez funtzionatzen dute. Hauek dira ekipo horien barruko osagai nagusiak: konpresorea, kondentsadorea, espantsio-balbula eta lurrungailua.</p> <p>Teknologia Garbien Euskal Zerrendan, soilik 2,5 baino gehiagoko SPFa duten errendimendu handiko bero-ponpak sartu dira. Balio hori justifikatzeko, fabrikatzailearen zehaztapan teknikoak erabiliko dira, eta horrek UNE-EN 14825 araua kontuan izango du urtaroko errendimendua kalkulatzeari dagokionez.</p> |
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen eta erabilerak | Sektore guztietan aplikatu daiteke, baina soilik 2,5 baino gehiagoko SPFa duten bero-ponpetan. |

| | |
|-----------------------------|--|
| Ekipoa | Eguzki-kolektore termiko lau ura berotzeko |
| Kodea | D-4018 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Energia aurreztea eta energia-efizientzia. - Klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzea. |
| Deskribapena | <p>Eguzki-kolektore termikoa da gehien erabiltzen dena, erraz fabrikatzen delako. Lau elementu ditu: ura eramateko zirkuitua, xurgatzeko plaka, estalki gardena eta babesteko karkasa. Zati mugikorrik ez duenez, asko irauten du.</p> <p>Eguzki-kolektore termiko lauaren bidez, berotegi efektua sortzen da modu artifizialean karkasa-estalkiaren barrualdean. Hala, eguzki-erradiazioa estalki gardenetik sartzen da, eta xurgatzeko plakari eragiten dio zuzenean. Plaka jariakinaren eroapen-sistemara soldatuta dago, eta jariakinaren temperatura igotzen denean, eroapen bidez, xurgatutako beroa transmititzen dio lanerako jariakinari.</p> |



| | |
|--|--|
| | <p>Eguzki-kolektore termiko laua ura berotzeko beiraren ezaugarriei esker, plakak jasotako energiaren hamarrena bakarrik islatzen da atmosferara. Izan ere, beira gardena da eguzkiaren erradiazioa jasotzeko, baina, aldi berean, iragazgaitza da plakak berriz emititzen duen erradiazio infragorriarekiko.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sistemaren errendimendua aldagai hauen baitan dago: jasotako eguzki-erradiazioa, kanpoko tenperatura, lanerako erabilitako jariakina, plakaren eta estalkiaren ezaugarriak, tutuen eta plakaren arteko soldaduraren kalitatea, ekipoaren isolamendu termikoa, funtzionamendu-eskema, etab. |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitezkeen eta erabilerak</p> | <p>Enpresa txiki eta ertainen esparruan, lehenengo sektorean, zerbitzuetan eta industrian erabil daitezke. Zehazki, honako hauek dira erabilera nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Igerilekuen berokuntza. - Berotegietarako ur beroa. - Tenperatura baxuko industria-prozesuak. - Ur bero sanitarioa udal-instalazioetarako, adibidez, kiroldegia, kultur-etxeak, etab. - Ur bero sanitarioa ikastetxeetarako, unibertsitateetarako. - Orokorrean, ura berotzeko. <p>Sektore guztietan aplikatu daitezke.</p> |

| | |
|------------------------------------|---|
| <p>Ekipoa</p> | <p>Hutseko eguzki-kolektore termikoa ura berotzeko</p> |
| <p>Kodea</p> | <p>D-4019</p> |
| <p>Ingurumen-hobekuntza</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Energia aurreztea eta energia-efizientzia. - Soinu-emisioak murriztea. - Klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzea. |
| <p>Deskribapena</p> | <p>Hutseko eguzki-kolektore termikoa eguzki-teknologia efizienteenetakoa bat da, baina, aldi berean, garestienetakoa bat. Kolektore horiek klima hotz edo oso hotzetan instalatzen dira, tutuaren hutsuneak eroapenaren eta konbekzioaren bidez galdutako beroa minimizatzen baitu. Beraz, klimatologiak eraginik izan gabe (eguzki-erradiazioa, haizea, euria, hotza...) lortzen duen efizientzia da</p> |



| | |
|--|---|
| | <p>sistema horren abantaila nagusienetako bat. 50 eta 95 °C arteko aplikazioetan erabiltzen da, eta kasu batzuetan, 160 °C-ra ere irits daiteke, kokalekuaren arabera.</p> <p>Kolektore mota horietan, xurgatzeko lamina beirazko hodi baten barrualdean jartzen da, eta hodi hori hutsean ezartzen da. Lanerako jariakina xurgatze-laminarekin kontaktuan egoten da etengabe, U formako hodi baten bidez. Azken kolektorean, hainbat hodi elkarrekin lotzen dira.</p> <p>Horrelako kolektoreetan egiteko bi modu daude. Batetik, zirkulazio zuzeneko da. Bertan, jariakin bakarrarekin lan egiten da, eta hodian arteko konexioa mahuken bidez egiten da. Bestetik, tarteko jariakin bat sartzen da, hodian lurruntzen dena, eta kondentsatu egiten dena trukatzailean urarekin kontaktuan jartzen denean. Besteak beste, kokalekuko klimatologiaren baitan dago lan egiteko modu bat ala bestea aukeratzea.</p> <p>Teknologia horren abantaila nagusienetakoa da kolektoreak horizontalki jar daitezkeela eraginkortasunik galdu gabe. Nahikoa da hodiak beren ardatzen gainean biratzea, makurdura-angelu egokia lortzeko.</p> <p>Hutseko eguzki-kolektore termikoek eta kolektore lauek antzeko erabilerak dituzte: eraikinak berotzea eta ur bero sanitarioa, igerilekuak klimatizatzea, eta ura orohar berotzea. Horrek guztiak dakar gas natural gutxiago kontsumitzea. Teknologia horren efizientzia eta ur oso beroz hornitzeko gaitasuna direla-eta, xurgatzearen bidez hozteko sistemekin batera erabili daiteke (adibidez: hozteko zikloak, eraikinen klimatizazioa, eta lurruna edo ur beroa behar duten industria-prozesuak).</p> |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitezkeen eta erabilerak</p> | <p>ETE-en mailan lehen mailako sektoretan eta industria zerbitzuetan erabili daiteke. Zehazki, honako hauek dira erabilera nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Igerilekuen berokuntza. - Berotegietarako ur beroa. - Tenperatura baxuko industria-prozesuak. - Ur bero sanitarioa udal-instalazioetarako, adibidez, kiroldegia, kultur-etxeak, etab. - Ur bero sanitarioa ikastetxeetarako, unibertsitateetarako. - Orokorrean, ura berotzeko. Sektore guztietan aplikatu daiteke. |



| | |
|-----------------------------|---|
| Ekipoa | Panel fotovoltaikoa |
| Kodea | D-4020 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Energia aurreztea. - Klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzea. |
| Deskribapena | <p>Eguzki-energia fotovoltaikoa da diodo motako gailu erdieroaleen bidez energia elektrikoa lortzeko modu bat. Gailu horiek eguzki-erradiazioa jasotzen dutenean kitzikatu egiten dira, salto elektronikoak eragiten dituzte, eta potentzial-diferentzia txiki bat sortzen dute beren muturretan. Fotodiodo horietako batzuk seriean akoplatzen direnean, tentsio handiagoak lor daitezke oso konfigurazio bakunetan, eta nahikoak dira gailu elektriko txikiak elikatzeko.</p> <p>Eskala handiagoan, plaka fotovoltaikoen ematen duten korrante elektriko zuzena korrante aldizkatzaille bihurtu daitezke, eta sarean injektatu. Isolatutako inguruetan (horietan korrante elektriko gutxi behar izaten da eta sarerako sarbidea garestia da distantziarengatik), besteak beste, estazio meteorologikoetan edo komunikazioen errepikagailuetan, baserrietan, etxebizitza isolatuetan eta abarretan, plaka fotovoltaikoak erabiltzen dira ekonomikoki bideragarria den irtenbide gisa.</p> <p>Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren esparruan, plaka fotovoltaikoen bete beharreko gutxienezko errendimendu-ehunekoa % 20 baino handiagoa da.</p> <p>EAEn, hornitzaileen informazioaren arabera, 2003an, 678 eguzki-instalazio fotovoltaiko zeuden eta instalatutako puntako 1.285.000 W-koa zen.</p> <p>EAEn azken bi urteotan eraikitako eguzki-instalazio fotovoltaiko adierazgarriena da, agian, BECeko 5. eta 6. pabiloien estalkien zati batean jarrita dagoena. Gutxi gorabeherako azalera 1.000 m²-koa da, eta 628 eguzki-modulu ditu; guztira, instalatutako eguzki-potentzia 100.000 kWp ingurukoa da.</p> <p>Inbertsioa, guztira, 540.000 euro baino gehiagokoa izan da eta BEC Solar izeneko sozietateak egin zuen. Sozietate horretako kide dira BEC – Bilbao Exhibition Centre (% 45), EEE – Energiaren Euskal Erakundea (% 30) eta Millennium Energy (% 25).</p> <p>ICO-IDAE finantzaketa-lerrorako aurkeztu da proiektua, eta % 20ko dirulaguntza lortu du, itzuli beharrik gabe. Hemendik aurrera, instalazioaren produkzio elektrikoaren ondorioz, urtean 95.000 kg-tan murriztuko dira CO₂ emisioak.</p> |



| | |
|--|--|
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen eta erabilerak | Energia elektrikoaren hornidura, sare-instalazio isolatuen, autokontsumoko instalazioen eta sarerako konexioen bidez. Jarduera mota guztietan aplika liteke. |
|--|--|

| | |
|-----------------------------|---|
| Ekipoa | Aerosorgailuak |
| Kodea | D-4021 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Energia aurreztea. - Klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzea. |
| Deskribapena | <p>Haizearen energia zinetikoa energia elektriko bihurtzeko gailuak dira aerosorgailuak. Antzina ehotzeko eta irina lortzeko erabiltzen ziren haize-errotetatik datozen zuzenean (oraindik ere batzuk erabiltzen dira).</p> <p>Aerosorgailuen beso edo palen profilari esker, haizeak ardatz baten inguruan birarazten ditu, eta engranajeen sistema mekaniko baten bidez, sorgailu baten errotorea (normalean, alternadore bat) birarazten du. Hala, korrante elektriko sortzen da.</p> <p>Aerosorgailuek modu isolatuan funtziona dezakete, edota sare elektrikora konektatuta. Lehenengo kasuan, eguzki-sistema fotovoltaikoekin eta energia elektrikoaren metagailuekin konbina daitezke (diesel sorgailu baten bidez ordezkari daitezke). Horrenbestez, eskaria ase daiteke eguzki-erradiazio gutxi dagoenean edo haizerik ez dagoenean. Sare elektrikora konektatuta dauden aerosorgailuek, berriz, sinkronizazio-sistema sofistikatu bat izan behar dute, sortutako korrontearen maiztasuna sarearekin erabat sinkronizatuta egon dadin (Espainiaren kasuan 50 Hz-koa da maiztasun hori).</p> <p>Beste alde batetik, haize-parkeen ekoizpen-etekina % 30eraino murrizten da neguko hilabeteetan, besoen gainean izotza metatzen delako eta aldi baterako utzi egiten diotelako jardunari. Aukeran, arazo hori konpondu egin daiteke, izotzaren kontrako pinturak edo estaldurak garatu, horiek sorgailuei aplikatu eta urte osoan ohiko jarduna ahalbidetuta.</p> <p>Edonola ere, errotazioaren abiadura kontrolatzeko sistema bat eduki behar da, haize indartsuegiek instalazioa arriskuan jar baitezakete. Kontrolatzeko sistema horien bidez, palak edo besoak jartzen dira haizeari ahalik eta gutxien kontra egiteko, eta errotazioaren abiadura murrizteko aukera ematen dute.</p> <p>Aerosorgailuak azkar zabaldu dira, energia berriztagarria lortzeko iturri garbia direla uste baita; izan ere, sistema horretan ez dago hondakin kutsatzaileak</p> |



| | |
|--|---|
| | <p>sortuko dituen errekuntzaren beharrik.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Historikoki zenbait kolektibo energia-iturri berriztagarri horren aurka agertu dira, hegaztiak hiltzen direlako, erroten besoekin talka egin ostean. Fenomeno hori ia konponduta dago parke berrietan. Arazoak sortzen ziren biraketa-abiadurak oso handiak zirelako, eta, horren ondorioz, erroten besoak ez zirelako ikusten. Gainera, ez ziren pasabideak uzten. Gaur egun, hegazti batek aerosorgailu batekin talka egiteko arriskua da automobil batek hegazti hori harrapatzeko arriskua baino txikiagoa. Gainera, kontuan hartu behar da aerosorgailuek ez dutela argirik, hegaztiak itsutuko dituenik, automobilerik bai ordea. |
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen eta erabilerak | <p>Hauetan erabiltzea proposatzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Abeltzaintzako ustiategiak. - Nekazaritzako kooperatibak - Abeletxeak eta baserriak. - Artzainen bordak eta mendi-aterpeak. - Industrialdeak. - Teknologia-parkeak. - Jarduera guztietan aplikatu daiteke. Energia elektrikoaren hornidura, sare-instalazio isolatuen, autokontsumoko instalazioen eta sarerako konexioen bidez. |

| | |
|-----------------------------|---|
| Ekipoa | Energia berriztagarrien edo hondar-beroaren bidez klimatizatzeko ekipoa |
| Kodea | D-4027 |
| Ingurumen-hobekuntza | Teknologia hori aplikatuz gero energia gutxiago kontsumitzen da, eta energia berriztagarriak eta hondar-beroak aprobetxatzen dira. Horrenbestez, lagungarria da berotegi efektua eragiten duten emisioak (berotze globalaren erantzule potentzialak) murrizteko. |
| Honetan datza: | Eguzki-energia (doako beroa) biltzeko instalazio bati lotutako ekipoei hotza sortzen dute: zenbat eta eguzki gehiago, hainbat eta hotz gehiago sortzeko aukera. Bai energia berriztagarriekin (eguzki-energia, energia geotermikoa eta abar), bai hondar-beroekin funtzionatzen dute, bai eta galdara |



| | |
|---|--|
| | <p>konbentzional batek emandako beroarekin ere. Azken kasu horretan, ordea, errentagarritasun txikiagoa dute. Beroa sortzeko ere erabil daitezke, 1,6 inguruko COParekin.</p> <p>Beroaren bidez hotza sortzeko, hiru makina mota hauek erabili daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Xurgatze bidez hozteko makina. Ekipo hedatuenak dira. - Adsortziozko hozteko makina. Aurrekoak baino gutxiago hedatu dira, baina gero eta interes gehiago sortzen dute, sendoak eta sinpleak baitira. - Lehortze eta lurruntze bidezko hozteko sistemak (DEC). Ziklo irekiko sistema horiek material higroskopiko bat erabiltzen dute hozgarri gisa, eta lurruntzearen bidez hozteko etapa bat txertatzen dute. <p>Xurgatze- eta adsortzio-ekipoek, sistema konbentzionaletako Rankine zikloko konpresorearen orde, lurrun-sorgailu/xurgagailu bat eta zirkulazio-ponpa bat dauzkate. Lehortze bidezko hozteko sistemek, berriz, material lehorgarria eta bero-trukagailuak erabiltzen dituzte.</p> |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitezkeen</p> | <p>250 kW termiko baino gutxiagoko instalazioak, eraikin mota guztietako klimatizazio-sisteman aplikatu daitezke.</p> |

| Ekipoa | Ibilgailu elektrikoa |
|------------------------------------|---|
| <p>Kodea</p> | <p>D-4028</p> |
| <p>Ingurumen-hobekuntza</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Motorrak igortzen duen zarata murriztea. - Energia primarioa aurrezten da. - Emisio kutsatzaileak murriztea. - Tokiko emisiorik (<i>tail-pipe</i>) ez dago. |
| <p>Honetan datza:</p> | <p>Motor elektriko bat edo gehiago dituzten ibilgailuak dira, eta metaketa elektrikoko ekipo bat, sare elektrikora entxufatuta kargatzen dena, haien energia-iturri bakarra da. Horrenbestez, ez dute motor termikorik, ibilgailu hibridoek (HEV) eta hibrido entxufagarriek (PHEV) ez bezala.</p> <p>Teknologia horrek, turismoak ez ezik, beste ibilgailu batzuk ere funtzionarazten ditu; adibidez, motozikletak, scooterrak, eta golf-zelaietan eta</p> |



| | |
|---|---|
| | <p>beste toki batzuetan erabiltzen dituzten «orgak».</p> <p>Gaur egun saltzen diren turismo elektrikoaren autonomia nominalak 120–483 km-koak dira, eta elektrizitate metatua 11–70 kW/h-koa izaten da. Modeloen arabera, 9–16 kW/h-ko karga behar du bateriak 100 km-ko autonomia izateko. Ibilgailu elektrikoaren batez besteko kontsumoa 13,78 kW/h-koa da 100 km-ko. Kargatzeko behar den denborari dagokionez, modeloen arabera aldatzen da. Kasu batzuetan, 4 ordutan karga daitezke; beste batzuetan, 8 ordutan. Modeloren batez besteko karga azkarrak egiteko aukera ematen du (ez % 100ekoak) ordubete baino gutxiagoan.</p> <p>Horrenbestez, ibilgailu elektrikoaren ezaugarri bereizgarria da metaketa elektrikorako sistemaren mende dagoela, eta ezaugarri hori da, hain zuzen, teknologia horren elementu kritikoa, autonomiari, pisuari, eta erabakigarria den kostuari begira.</p> <p>Gaur egun ioi-litio teknologia dira aurreratuenak eta erabilienak.</p> |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitezkeen</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Taxiak. - Enpresako ibilgailuak. - Alokatzeko ibilgailuen flotak. - Erakunde publikoen flotak (udalak, aldundiak eta abar). |

| | |
|------------------------------------|---|
| <p>Ekipoa</p> | <p>Ibilgailu elektrikoaren kargalekuak</p> |
| <p>Kodea</p> | <p>D-4029</p> |
| <p>Ingurumen-hobekuntza</p> | <p>Kargatzeko zutoinak lagungarriak dira ibilgailu elektrikoaren erabilerak ingurumenari eragiten dizkion onurak lortzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Motorrak igortzen duen zarata murriztea. - Energia primarioa aurrezten da. - Emisio kutsatzaileak murriztea. - Mantentze-lan gutxiago behar izatea. |

**Honetan datza:**

Ibilgailu elektriko puruen eta hibrido entxufagarrien bateriak kargatzeko gailuak dira eta saretik datorren energia ematen dute. Ibilgailuaren kontzeptua zentzu zabalean ulertzen da. Horrenbestez, turismoak ez ezik, beste ibilgailu batzuk ere kontuan hartzen dira; adibidez, motozikletak, scooterrak eta golf-zelaietan eta beste toki batzuetan erabiltzen dituzten «orgak».

Kargalekuaren ezaugarri teknikoak eta instalazioaren osagaiak honako faktore hauen mende daude:

o Karga mota (geldoa, erdi-azkarra edo azkarra):

- **Karga geldoa:** estandarizatuena da, eta ibilgailu elektrikoen fabrikatzaile guztiek onartu dute. Korrante alerno monofasikoaren bidez egiten da, 220 volteko (V) tentsioarekin eta 15 ampere (A) arteko intentsitatearekin. Bateria guztiz kargatzeko 6 ordu inguru behar dira. Garaje pribatuetarako egokia da, etxeko tentsio eta korrante berbera behar baitu.

- **Karga erdi azkarra:** ibilgailu batzuek soilik onartzen dute, baina, ziur asko, nahiko karga arrunta izango da laster. Korrante alerno trifasikoaren bidez egiten da, 400 V-ko tentsioarekin eta 63 A arteko intentsitatearekin. Kasu horretan, 50 minutu inguru behar dira kargatzeko.

- **Karga azkarra:** epe luzera planteatua, zailtasun tekniko handiak baititu. Gainera, ez dago estandarrik, saltzen diren ibilgailu guztientzat baliozkoa denik; hala ere, fabrikatzaile batzuek onartu dute jada. Ibilgailua korrante zuzenekoaz elikatzen da 400 V-ko tentsioarekin eta 600 A arteko intentsitatearekin. Kasu horretan, 10 minutu inguru soilik behar dira kargatzeko.

o Zutoinaren erabilera:

- Autonomia, banakakoa eta sarbide irekikoa. Adibidez, bizitegietan erabiltzeko, bai eta merkataritza-aplikazioetarako ere: enpresak, hotelak eta saltoki gunetako aparkalekuak.

- Autonomia, banakakoa eta sarbide mugatukoa. Adibidez, merkataritza-aplikazioetarako: enpresak, hotelak eta saltoki gunetako aparkalekuak.

- Puntu aniztuna, kolektiboa eta sarbide irekikoa: Adibidez, merkataritza-aplikazioetarako: enpresetako ibilgailu-flotak, hotelak eta saltoki gunetako aparkalekuak.

- Puntu aniztuna, kolektiboa eta sarbide mugatukoa: Adibidez, aplikazio hauetarako: errepide ondoan kargatzea, garaje komertzialak, eta merkataritza-aplikazioak (enpresetako ibilgailu-flotak, hotelak eta saltoki



| | |
|---|---|
| | <p>gunetako aparkalekuak).</p> <ul style="list-style-type: none"> - Puntu aniztuna, kolektiboa, sarbide mugatukoa edo erabiltzeko ordaindu beharrekoa: Adibidez, aplikazio hauetarako: errepide ondoan kargatzea. - Autonomia, banakakoa eta sarbide mugatukoa edo erabiltzeko ordaindu beharrekoa: Adibidez, azkar kargatzeko hornitegiarako. <p>Kargatzeko puntu horien ezaugarri orokorrenak eta arruntenak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bandaloen aurkako gorputz metalikoa. - Pintura ez-eroalez estalia. - Bandaloen aurkako teknikak (graffitiak, manipulazio bidegabeak edo bestelako erasoak eragozteko) - Saldoa monitorizatzeko displaya. - Kargak buru argiz eta efizientziaz kudeatzeko tresnak. - Diferentziala, birkonexio automatiko integratu eta guzti. - Energia lapurtzeko saialdiei aurre egiteko babes-sistema. - Hurbiltasuneko txartelen bidez sarbidea izatea eta aurrez ordaintzea (modeloaren arabera). - Eta abar. |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitezkeen</p> | <p>Golf-zelaiak aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira.</p> <p>Gainerakoan, teknika hori aplika daiteke ibilgailu elektrikoak dituzten edo izan ditzaketen eta kargaleku bat jar dezaketen sektore guztietan. Adibidez, hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Taxiak. - Enpresako ibilgailuak. - Alokatzeko ibilgailuen flotak. - Erakunde publikoetako flotak (udalak, aldundiak...). |



| | |
|--|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> - Aireportuak. - Merkataritza-guneak. - Hotelak. - Eta abar. |
|--|---|

| | |
|---|--|
| Ekipoa | Instalazio geotermikoa ponpa-beroarekin |
| Kodea | D-4032 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Emisio kutsatzaileak murrizten dira. - Energia primarioa aurrezten da. - Tokiko emisiorik ez. |
| Honetan datza: | <p>Lurzoruko beroa lurpeko trukagailuen bidez ateratzean eta bero hori Rankine ziklo alderantzikatu batean (bero-ponpa) erabiltzean datza. Konpresore baten kontsumo elektrikoaren bidez, bero horren tenperatura igotzen da, lurzoria baino tenperatura altuagoan dagoen lokal bat berotzeko erabilgarri egiteraino.</p> <p>Horrela lortzen diren efizientzia estazionalak oso altuak direnez, kontsumitutako elektrizitate kW/h bakoitzeko lurzorutik hiru atera eta 4 kW/h-ak eraikinean sar daitezke, berokuntza gisa.</p> <p>Lurpeko bi trukagailu mota nagusi daude: horizontala (1-2 metroko sakonerako lubaki batean lurperatutako hodi-begiztak) eta bertikala (120 m arteko sakonerako putzuetako joan-etorriko hodiak). Gainera, putzuetako uraren beroa aprobetxatu daiteke. Kasu horretan, ez da trukagailurik lurperatzen; horren ordez, putzutik ura ateratzen da, plaka-trukagailu batean edo antzeko batean beroa kentzen zaio eta putzura itzularazten da.</p> <p>Kasu guztietan, efizientzia handiko beste teknologia batzuek bezala, tenperatura baxuko banaketa-sistemekin ondo funtzionatzen du (zoru bero-emaileak, <i>fan coil</i>-ak, erradiadore gaindimentsionatuak) eta tenperatura altuetara gaizki egokitzen da (adibidez, ura 50 °C-ko edo hortik gorako tenperaturan jasotzeko dimentsionatutako erradiadoreak).</p> |
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | Berokuntza edo ur beroa behar duten jarduera guztietan aplikatu daiteke. Baita 50 °C-tik beherako beroa behar duten prozesuetan ere. |



| | |
|---|--|
| Ekipoa | Biomasa solidoko galdarak, % 90etik gorako errendimendukoak |
| Kodea | D-4033 |
| Ingurumen-hobekuntza | Emisio kutsatzaileak murrizten dira. Bereziki, CO ₂ emisioak hutsaltzat jo daitezke praktikan; izan ere, lurrazaleko karbonoaren ziklo naturalaren parte dira (ez da karbono fosil erauzia). |
| Honetan datza: | <p>Ondo dimentsionatutako trukagailu baten bidez biomasa erretzean (peletak, ezpala, egurra, etab.) sortzen diren keetatik ahalik eta bero-energia gehien erauzten duten galdarak dira. Gehienek % 30etik % 100era bitarteko modulazio-tartea daukate, gutxi gorabehera</p> <p>Bi maila daude:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kondentsaziokoak ez diren galdarek berotze-ahalmen handienaren % 90 eta % 95 arteko errendimenduak dauzkate. - Kondentsaziozko galdarak % 104koak eta hortik gorakoak izatera irits daitezke. Galdara horien ezaugarria galdararen irteeran trukagailu-kondentsagailu bat edukitzea da. <p>Kasu guztietan, bero-ahalmena modulatzeko aukera izatea beharrezkoa da, abiatze- eta gelditze-zikloen kopurua handia izatea saihesteko eta trukagailuaren errendimendua optimizatzeko.</p> <p>Biomasa-galdaren kasuan, kostua asko handitzen da, berau metatu beharraren eta maneiatzeko behar diren baliabide mekanikoen eraginez (torloju amaigabeak, xurgatze-sistemak, etab.)</p> |
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | Berokuntza edo ur beroa eskatzen duten jarduera guztietan aplika daiteke, baita tenperatura-maila horretako beroa behar duten prozesuetan ere (30etik 80 °C-ra, g.g.b.) |

| | |
|-----------------------------|--|
| Ekipoa | Hidrogeno-elektrolizagailuak |
| Kodea | D-4034 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Erregaia (hidrogenoa) ekoiztea jatorri berriztagarriko baliabideekin (ura eta jatorri berriztagarriko elektrizitatea). - Erregai fosilen ekoizpenari lotutako kutsatzaile-emisio atmosferikoak ezabatzea (BEG, emisio toxikoak, partikulak...). |

**Honetan datza:**

Hidrogeno-elektrolizagailuak hidrogenoa ekoizten du, elektrolisia izeneko prozesu kimikoaren bitartez; uraren hidrogeno eta oxigeno molekulak bereizten dira elektrizitatea erabilita. Teknologiaren oinarria da elektrodo eroaleen pilaketa bat; mintz batez bereizita egoten dira, eta tentsio eta intentsitate altuak aplikatzen zaizkie. Horren ondorioz, korrante elektrikoa sortzen du uretan, eta bere osagaiak deskonposatzen dira, hidrogenoa eta oxigenoa, hain zuzen ere. Sistema osoak ponpak, potentzia-elektronikoa, gasen bereizgailua eta bestelako osagaiak ditu, biltegitratze-tangak adibidez.

Sortutako hidrogenoa gas konprimatu moduan biltegitratzen da edo likidotu egiten da, industrietan erregai gisa erabiltzeko, edo hidrogenozko erregai-piletan. Horiek, elektrizitatez elikatzen dituzte garraiobideak, besteak beste, auto, tren, ontzi edo hegazkinak. Paraleloan sortzen den oxigenoa atmosferara askatzen da edo ondoren medikuntza- edo industria-gas gisa erabiltzeko gorde daiteke zenbait kasutan.

Gaur egun bi elektrolizatzaile mota daude, baina gehien garatutakoak eta erabilienak honako hauek dira:

- Elektrolizatzaile alkalinoa: soluzio elektrolitiko likido bat erabiltzen da, hala nola potasio hidroxidoa edo sodio eta ur hidroxidoa. Hidrogenoa anodoa, katodoa eta mintza dituen gelaxka batean sortzen da. Elektrolisi-gelaxken pilari korrantea aplikatzen zaionean, hidroxido-ioiak elektrolitoan zehar mugitzen dira, zelula bakoitzaren katodotik anodoraino, eta hidrogeno-gasezko burbuilak sortzen dira elektrolizatzailearen katodoaren aldean, eta oxigeno-gasezkoak, anodoarenean. Egiaz, duela 100 urtetik baino gehiagotik erabiltzen da, eta ez du metal noble katalizatzaile behar; hala eta guztiz ere, ekipo handiak dira, purutasun ertaineko hidrogenoa sortzen dute eta ez dira oso malguak funtzionamenduan.

- Protoi-trukerako mintza duen elektrolizatzailea (PEM): PEM elektrolizatzaileek protoiak trukatzeko mintz bat eta elektrolito polimeriko solido bat erabiltzen dute. Pilari korrante alfernoa aplikatzen zaionean, ura hidrogenoan eta oxigenoan bereizten da, eta hidrogeno-protoiak mintzetik igarotzen dira katodoaren aldean hidrogeno-gasa sortzeko. Ohikoenak dira, purutasun handiko hidrogenoa ekoizten dutelako eta erraz hoztu daitezkeelako. Gainera, egokienak dira energia berriztagarrien aldakortasunera moldatzeko eta trinkoak dira. Alderantziz, alkalinoak baino zerbait garestiagoak dira, katalizatzaileak metal preziatuak direlako.

- Oxido solidoko elektrolizatzailea (SOEC): elektrolizatzaile horiek tenperatura altuagoetan funtzionatzen dute (500 eta 850 °C artean) eta PEMak eta alkalinoak baino askoz ere efizienteagoak izateko potentziala dute. Prozesua tenperatura altuko elektrolisia (HTE) edo lurrunezkoa deitzen da, eta material zeramiko solidoko elektrolito bat erabiltzen du. Kanpoko zirkuituko elektroioak urarekin konbinatzen dira katodoan, hidrogeno-gasa eta karga



| | |
|--|--|
| | <p>negatiboko ioiak sortzeko. Oxigenoa zeramikazko mintz irristagarritik igarotzen da eta anodoan erreazionatzen du, oxigeno-gasa eta kanpoko zirkuiturako elektroiak sortzeko. Teknologikoki, ez daude aurreko biak bezain garatuta</p> |
| Zein sektoretan aplikatu daitezkeen | <p>Hidrogeno-elektrolizagailuak merkatuko 3 eremu hauetan aplikatu daitezke:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Hidrogenoa sortzea lehengai gisa bezero industrialentzako: lurrindendak, atmosfera gutxitzailak, tratamendu termikoko labeak, beira ekoiztea, etab. (EJSN 20, EJSN 23, EJSN 24, EJSN 25...). Orokorrean, tenperatura altuko aplikazio termikoak dituzten edo edozein erregai mota erabiltzen duten sektoreetan erabili daitezke. 2) Mugikortasunerako hidrogenoa: errepide- eta trenbide-bidez garraiatzeko ekoizpena (EJSN 49) edo itsasontzian hidrogenoa sortzea itsas- edo ibai-garraiorako (EJSN 50). Azken finean, garraio-erregaiak erabiltzen dituzten eta erregaiok ekoizten eta merkaturatzen dituzten enpresetan aplikatu daitezke. 3) Hidrogenoa balia daitezke elektrizitate-sorkuntza deszentralizaturako edozein sektore ekonomikotan, adibidez, back up data-centerretan, ospitaleetan, aireportuetan, etab. (EJSN 61, EJSN 861, EJSN 51...) |

| | |
|-----------------------------|--|
| Ekipoa | Mintz bidezko errektore eta bereizgailu aurreratuak |
| Kodea | D-4035 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Erregaiak (hidrogenoa) ekoiztea jatorri berriztagarriko baliabideekin (bioetanola, biogasa...). - Erregai fosilen ekoizpenari lotutako kutsatzaile-emisio atmosferikoak ezabatzea (BEG, emisio toxikoak, partikulak...). - Hidrogenoaren egungo garraio-sistemari lotutako CO₂ emisioak eta H₂ ihesak deuseztatzea, H₂ in situ ekoiztea ahalbidetzen baitu. |
| Honetan datza: | <p>Mintz bidezko errektore eta bereizgailu aurreratuarekin, erregaiak pilan kontsumitzeko nahikoa den purutasuneko hidrogenoa in situ bereizten edo sortzen da, berotegi-efektuko gasik sortu gabe. Teknologia hidrogenoaren kontsumo txiki edo ertainerako diseinatuta dago.</p> <p>Abiapuntua kate logistiko sinple eta ezagun bat duten molekula dira (amoniako berriztagarria, biometanola, bioetanola, biogasa, syngasa, DMEa, azido formikoa eta abar). Hala, ekipo horiek hidrogenoa sortzen dute, egungo estandarrak baino % 10-20 arteko energia-efizientzia handiagoarekin, aldi</p> |



| | |
|--|---|
| | <p>berean krakeatu eta bereizteko prozesu baten bidez. Biak konbinatzen direnean, teknologia horri esker, hidrogeno-bektore molekularen bihurtzea maximizatu daiteke, erreakzioaren oreka produktu-eremurantz mugituz, Le Chatelier-en printzipioaren arabera. Modu horretan, mintzezko erreaktoreek eta bereizleek hidrogeno purua sortzen dute prozesuaren etapa bakarrean, zati mugikorrik gabe eta egungo soluzioak baino 2 eta 4 aldiz trinkoagoak diren unitateetan.</p> |
| Zein sektoretan aplikatu daitezkeen | <p>Mintz bidezko erreaktore eta bereizgailu aurreratuak merkatuko 4 eremu hauetan aplikatu daitezke:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Hidrogenoa sortzea lehengai gisa bezero industrialentzako: lurrin-dendak, atmosfera gutxitzailak, tratamendu termikoko labeak, beira ekoiztea, etab. (EJSN 20, EJSN 23, EJSN 24, EJSN 25...). Orokorrean, tenperatura altuko aplikazio termikoak dituzten edo edozein erregai mota erabiltzen duten sektoreetan erabili daitezke. 2) Mugikortasunerako hidrogenoa: errepide- eta trenbide-bidez garraiatzeko ekoizpena (EJSN 49) edo itsasontzian hidrogenoa sortzea itsas- edo ibai-garraiorako (EJSN 50). Azken finean, garraio-erregaiak erabiltzen dituzten eta erregaiok ekoizten eta merkaturatzen dituzten enpresetan aplikatu daiteke. 3) Hidrogenoa balia daiteke elektrizitate-sorkuntza deszentralizaturako edozein sektore ekonomikotan, adibidez, back up data-centerretan, ospitaleetan, aireportuetan, etab. (EJSN 61, EJSN 861, EJSN 51...) 4) Hidrogenoa bereiztea (<i>unblending</i>) gas naturalaren garraio- eta banaketa-saretik (EJSN 352) |

| | |
|-----------------------------|--|
| Ekipoa | NO_x emisio gutxiko hidrogeno-erregailuak |
| Kodea | D-4036 |
| Ingurumen-hobekuntza | Erregailuetan erregai fosilak erabiltzeari lotutako CO ₂ emisioak deuseztatzea. |
| Honetan datza: | <p>Hidrogeno-errekuntzako sistemek erregailuak eta kontrol-ekipoak dituzte, eta hidrogeno puruarekin, eta hidrogenoaren eta gas naturalaren arteko nahasketen edozein ehunekorekin lan egin daiteke.</p> <p>Ohiko errekuntza-sistema batek honako hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontrol-panel bat edo gehiago, fluxua modu estekiometrikoan neurtzeko, eta erregaiaren (gas naturala, hidrogenoa, etab.) eta erregarriaren |



| | |
|---|--|
| | <p>presioa kontrolatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oxierrekuntzako erregailu bat edo gehiago, erregaia eta erregarria nahasten dituztenak, eta, ondoren, erreakzionatu egiten dute errekkuntza-prozesua erraztuz eta sugar egonkor bat sortuz. <p>Hidrogeno-sugarraren tenperatura altuak (gas naturalarena baino 170 K handiagoa, gutxi gorabehera) NO_x sortzea errazten du; beraz, aplikatzekoa den indarreko araudiak ezarritako mugak gainditu ahalko lirarteke. Horregatik, teknologiak soluzio hauetakoren bat izan behar du kutsatzaile horien emisioak gutxitzeko edo modu baliokidean NO_x emisioak gutxitzen dituen bestelako teknologia-soluzioren bat izan beharko du:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Oxierrekuntzako erregailuak. Airearen ordeaz, oxigenoa erabiltzen dute erregari gisa, eta, beraz, ez dute nitrogenorik behar eta NO_x emisiori batere ez dute. Teknologia horrek, gainera, efizientzia energetiko gehigarria du, nitrogenoa eta NO_x emisioak ezabatzen direnez, gas horietan ez baita energia termikorik alferrik galtzen. b) Gasen birzirkulazio-teknologiak. Horiekin, sugarraren tenperatura gutxitzen da, eta, horrenbestez, aireratutako NO_x kantitatea ere bai. |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitezkeen</p> | <p>Teknologia hau errekkuntza-prozesuak dituzten sektore guztietan aplikatu daitezke, besteak beste, honako hauetan: Industria kimikoa (EJSN 20), Kautxu produktuen eta plastikoen fabrikazioa (EJSN 22), Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa (EJSN 23), Metalurgia; burdinazko, altzairuzko eta burdin aleaziozko produktuen fabrikazioa (EJSN 24), beste batzuen artean.</p> |

| | |
|------------------------------------|---|
| <p>Ekipoa</p> | <p>Erregai-piladun hidrogeno-ibilgailua</p> |
| <p>Kodea</p> | <p>D-4037</p> |
| <p>Ingurumen-hobekuntza</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Garraioari lotutako berotegi-efektuko gasak murriztea, nagusiki CO₂, NO_x, SO_x, etab. - Motor termikoko trakzioa duten ibilgailu konbentzionalen zarata murriztea. |
| <p>Honetan datza:</p> | <p>Erregai-piladun hidrogeno-ibilgailua ibilgailu elektriko bat da, eta higiarazteko erregai-pila bateko energia elektrikoa erabiltzen du, eta ez du inolako motor termikorik. Ibilgailu horietan energia hidrogeno (H₂) moduan biltegitzen da. Presio altuan konprimatuta (350 bar edo 700 bar) egoten da ibilgailuko tanga batean. Tangak hidrogendegietan kargatzen dira, gas naturala erabiltzen</p> |



| | |
|--|---|
| | <p>duten ibilgailuen antzera.</p> <p>Ibilgailu horietan, erregai-pilen funtzionamendu-printzipioa alderantzizko elektrolisia da. Hau da, erreakzio elektrokimiko bat sortzen da biltegitan hidrogenoaren eta airean dagoen oxigenoaren artean, eta erreakzio horren ondorioz, energia elektrikoa eta ur-lurruna lortzen dira. Energia hori erabiltzen da autoaren motor elektrikoa mugitzeko. Gainera, normalean erregai-pilak bateria txiki bati konektatuta egoten dira, eta bertan gordetzen da energia-soberakina, beharrezkoa denean erabili ahal izateko.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Horrela, hidrogenozko erregai-pila duten ibilgailuak neurri handi batean murriztu egiten ditu garraioari lotutako berotegi-efektuko gasak (BEG), batez ere CO₂, NO_x, SO_x eta beste emisio kutsatzaile batzuk, hala nola partikulak (PM₁₀ eta PM_{2,5}), ibilgailuak motor elektrikoarekin funtzionatzen baitu, eta hidrogenoaren errektuntzan ura eta lurruna baino ez baitira sortzen. |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitekeen</p> | <p>Hidrogeno-ibilgailuak baliagarriak izan daitezke garraio eta mugikortasuneko mota guztietako zerbitzuak eta operazio-profilak emateko. Horrenbestez, ekonomia-sektore guztietan aplikatu daitekeen zeharkako teknologia da. Hala eta guztiz ere, gaur egun lehentasunezkoak dira bidaiarien eta salgaien garraio astuna eta matrikulatu gabeko <i>off-road</i> ibilgailuekin lotutako zerbitzuak logistikan, biltegitan, aireportuetan, portuetan eta abarrean. Beraz, teknologia horren aplikazio zuzenekoak honako sektore hauetan izango litzateke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bidaiariak garraiatzeko hiriko eta hiri inguruko lurreko garraioa (EJSN 4931). - Taxi bidezko garraioa (EJSN 4932). - Beste inon sailkatu gabeko bidaiarien garraiorako lurreko beste garraio mota batzuk (EJSN 4939). - Salgaien garraioa errepidez eta etxe-aldaketako zerbitzuak (EJSN 494). - Enpresako ibilgailuak. - Ibilgailuak alokatzeko flotak. <p>Azken finean, teknologia hau ekonomia-sektore guztietan aplikatu daiteke eta ibilgailu mota guztiak barne hartzen ditu, besteak beste, autoak, kamioiak, autobusak, orgatxoak, kale-garbigailuak, etab.</p> |



| | |
|---|--|
| Ekipoa | Mugikortasunerako hidrogenoa banatzeko sistemak (hidrogendegiak) |
| Kodea | D-4038 |
| Ingurumen-hobekuntza | Erregai-piladun hidrogeno-ibilgailuak erabiltzea ahalbidetzen eta sustatzen du. BEG emisio gutxiagoko ibilgailuak dira eta zarata gutxiago sortzen dute motor termikodun ibilgailuekin alderatuta. |
| Honetan datza: | <p>Hidrogendegiak hidrogenoa banatzeko ekipamenduak dira. Horietan, hidrogenoa kargatu daiteke 350 barreko presioan garraio astunaren kasuan (kamioiak eta autobusak) eta 700 barreko presioan garraio arinaren kasuan (turismoak eta furgonetak).</p> <p>Horrenbestez, orokorrean beharrezkoa da honako hauek izatea: biltegiatze-ekipoak, konpresiokoak, hornitutako energia kontatzekoak, hidrogeno-fluxua ibilgailuarekin konektatzeko behar den mahuka duten hornigailuak, bai eta ekipoen arteko material osagarri eta konexiokoak ere. Ekipamenduaren parte izan daitezke, orobat, tokiko eta urruneko kontrol-, monitorizazio-, eta komunikazio-elementuak.</p> |
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | <p>Hidrogeno-ibilgailua modu funtzionalean erabiltzeko, beharrezkoa da mugikortasunerako hidrogeno-banaketako sarea garatzea. Igarobideetatik edo bidaiari eta salgaien garraio-zentroetatik gertu estrategikoki kokatutako hidrogendegiak ezartzean, hidrogeno-ibilgailuak sustatuko dira, eta, modu horretan, gaur egun existitzen ez den merkaturak sortzen hasiko litzateke. Hidrogendegiek, hidrogenozko ibilgailuek bezala, irtenbideak eman ditzakete garraio eta mugikortasun mota guztietako zerbitzuak eta eragiketa-profilak emateko; horrenbestez, ekonomia-sektore guztietan aplikatu daitekeen zeharkako teknologia da. Hala eta guztiz ere, gaur egun lehentasunezkoak dira bidaiarien eta salgaien garraio astuna —bereziki ibilgailuaren autonomia-eskariak albo batera uzten duenean bateriadun ibilgailu elektrikoak erabiltzea— eta matrikulatu gabeko <i>off-road</i> ibilgailuekin lotutako zerbitzuak logistikan, biltegietan, aireportuetan, portuetan eta abarretan. Beraz, teknologia horren aplikazio zuzenekoak honako sektore hauetan izango litzateke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Txikizkako erregai-hornidura (EJSN 4730). - Bidaiariak garraiatzeko hiriko eta hiri inguruko lurreko garraioa (EJSN 4931). - Taxi bidezko garraioa (EJSN 4932). - Beste inon sailkatu gabeko bidaiarien garraiorako lurreko beste garraio mota batzuk (EJSN 4939). |



- Salgaien garraioa errepidez eta etxe-aldaketako zerbitzuak (EJSN 494).
- Enpresako ibilgailuak.
- Ibilgailuak alokatzeko flotak.

Azken finean, teknologia hori edozein ekonomia-sektoretan hidrogeno-ibilgailuak erabiltzen dituzten enpresa guztietan aplikatu daiteke.



5. ZARATA

| | |
|--|---|
| Ekipoa | Isilgailu xurgatzailea |
| Kodea | E-5000 |
| Ingurumen-hobekuntza | Hodietako zarata murrizten du –bai tartekoa, bai atmosferara irteten dena– eta soinu-immisioen maila hobetzen du. Soinu-murrizketaren efizientzia hainbat faktoreren menpe dago (temperatura, gas-presioa, emaria, isilgailua eraikitze materiala, neurriak eta abar). |
| Honetan datza: | <p>Gasa jariatzen den hodietan (aireztapen-sistemak, aire girotua) tartekatzen diren elementuak dira isilgailu xurgatzaileak. Transmittzen den zarata ahalik eta gehien murriztea da haien egitekoa.</p> <p>Bi isilgailu mota hauek daude:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Isilgailu erresistiboak: material xurgatzaileko estaldura dute barruan, eta estaldura horren arabera izaten da isilgailuaren funtzionamendua. Hainbat motatakoak izan daitezke (gelaxkak, zirkularrak eta abar). - Isilgailu erreaktiboak: forma geometrikoekiko mendekotasuna dute ezaugarri nagusi. Ganbera bat edo gehiago, barreiatzaileak, erresonadoreak eta abar eduki ditzakete, eta elementu horiek nolabaiteko inpedantzia ematen diote transmititzen den energiari. Inpedantzia horrek eragiten du energia akustikoaren zati bat atzera itzultzea, isilgailuak igorri gabe. Besteak beste, lasaikuntzako isilgailu erreaktiboak, lasaikuntza atmosferikokoak eta erreaktibo-xurgatzaileak azpimarratu behar dira. <p>Honako atal hauek dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Inguratzailea eta gelaxkak, txapa galvanizatuzkoak eta/edo lakatuzkoak edo altzairu aleatuzkoak edo herdoilgaitzezkoak. - Material xurgatzailea: beira-zuntza/harri-ilea/poliesterra. <p>Soinu-eraginaren maiztasunaren eta zarataren ezaugarrien baitan dago soinua indargabetzea.</p> |
| Zein sektoretan aplikatu daitezkeen | <p>Elementu hauek dituzten industria guztietan aplikatzen da, oro har: haizagailuak, putz-egileak, ekipo elektrogenoak, kogeneradoreak, motorrak eta abar (NACE: C atala, manufaktura-industria).</p> <p>Kanpoan geratzen dira indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko duten jarduerak, bai eta dagozkien</p> |

| | |
|--|--|
| | baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak. |
|--|--|



6. BALIABIDEAK

| | |
|---|--|
| Ekipoa | Bere kasa garbitzen den iragazki minerala |
| Kodea | F-6000 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - 1 mikra arteko partikula solidoak iragazten ditu, % 99,9ko bereizketa-efizientziarekin. - Olio askeak atxikitzen ditu, eta 5 mg/l-tik beherako hondakina uzten du. |
| Honetan datza: | <p>Makina-erremintan integratutako iragazkia da.</p> <p>Ale mineralez betetako tanga bat da. Likido zikina sartzen da goiko aldetik, eta, hondakinak mineralean atxikita geratu ondoren, likido garbia ateratzen da beheko aldetik, gero erabiltzeko.</p> <p>Mineralaren artean hondakinak pilatu ahala, bonbona iragazleko presioa areagotu egiten da. Presioa balio jakin batera heltzean, bonbona iragazlea garbitzeko unea da.</p> <p>Ale iragazlea korrontez kontra garbitzen da. Likidoa beheko ahotik sartzen da eta goiko aldetik atera, eta mineralean pilatutako partikulak arrastatzen ditu dekantazio-tangarantz. Geroago, garbitzeko erabilitako likidoa berreskura daiteke, eta partikulak tangaren hondoan geratzen dira, ateratzeko zain.</p> <p>Hain zuzen ere, hurrengoak dira iragazketa-sistema honen ezaugarri nagusiak:</p> <p>Langileak ez dauka adi egon beharrik, makinak berak bere kasa detektatzen baiu garbitzeko beharra eta bere kasa egiten baititu behar diren garbiketak</p> <p>Korrontez kontrakoko garbiketan hondakinak bakarrik ateratzen dira, eta ez ale iragazlea. Beraz, elementu iragazlerik galtzen ez denez, iragazkiak iraupen mugagabea du.</p> |
| Zein sektoretan aplikatu daitekeen | <p>Honako hauetan aplikatu daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elementu metalikoak fabrikatzeko industriak, makineriak eta ekipoa izan ezik (NACE 25). - Makineria eta ekipo mekanikoak egiteko industriak (NACE 28,4). |



| | |
|--|--|
| | <ul style="list-style-type: none"> - Automobilgintza (NACE 29). - Metalaren industria (NACE 24). |
|--|--|

| | |
|-----------------------------|--|
| Ekipoa | Ultrasoinuen bidez garbitzeko, koiepegabetzeko eta lehortzeko makina |
| Kodea | F-6004 |
| Ingurumen-hobekuntza | Ez da perkloroetilenorik eta trikloroetilenorik kontsumitzen, haien ordez detergente biodegradagarria erabiltzen baita. Horrenbestez, hondakinak minimizatzen dira, eta ez da konposatu organiko lurrunkorrik igortzen. |
| Honetan datza: | <p>Ultrasoinuen bidezko garbiketak frekuentzia handiko soinu-uhinak erabiltzen ditu hainbat objektu efizientzia handiagoz garbitzeko, bai disoluzio urtsuetan, bai disoluzio erdi-urtsuetan, bai garbiketa-disoluzioetan. Garbiketa-disoluzioetan presio txikiko eta handiko eremuak sortuz, soinu-uhinek burbuila mikroskopikoak sortzen dituzte, eta, soinuaren presioa aldatzen den neurrian, burbuila horiek hutseko presioa egiten dute tratatu beharreko azaleraren gainean. Prozesu hori kabitazioa deitzen da.</p> <p>Teorikoki, 1.000 baretik gorako presio lokalizatua sortzen da, eta horrek errazten du gantzak eta zikinak ezabatzea. Hainbat materialen osagaiak eta zatiak garbitzeko, koiepegabetzeko eta aurre-akabera automatikorako erabiltzen da teknika hori.</p> <p>Piezak saski birakarietan sartzen dira. Saskiak automatikoki kargatzen den zinta garraiatzailean jartzen dira, eta, robot bidez, koiepegabetze-, irakuzketa- eta lehortze-prozesuko fase batetik bestera doaz.</p> <p>Saski batean sartutako piezak urez eta detergentez betetako upel batean sartzen dira. Detergentearekin, temperatura jakin batean eta ultrasoinuek aktibatuta, piezen gainazalean dauden zikin-partikulak ezabatzen dira. Piezak upel batetik bestera igarotzen dira, ongi irakuzi eta lehortzeko.</p> <p>Prozesuak, orokorrean, honetan datza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Piezak saski birakarietan kargatzea. - Sakietan detergente beroa sartzea (ezberdina da burdinazko piezetarako eta ez-burdinazkoetarako). - Piezak murgildu ondoren, ultrasoinuen bidez aktibatutako detergentearen eta errotazioaren laguntzaz, piezen gainazaleko zikin- |



| | |
|---|---|
| | <p>partikulak ezabatzen dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Pieza ferriko eta ez-ferrikoentzat. Ultrasonuekin aktibatutako uretan irakuztea. - Pieza ez-ferrikoentzat. Tratamendu-sistematik datorren ur berotan murgilduz irakuztea (ondoren, ur hori tratamendu-sistemara itzultzen da). - Pieza ferrikoentzat. Uretan disolbagarria den produktu babeslean irakuztea. - Aire beroarekin lehortzea. - Deskarga. <p>Saskiak upel batetik bestera automatikoki mugitzeko, ultrasoniak eta kargatzeko/deskargatzeko eremua ere kontrolatzen dituen manipulatzaila erabiltzen da.</p> |
| <p>Honako hauetan aplikatu daiteke</p> | <p>Kanpoan geratzen dira indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko duten jarduerak, bai eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> <p>Horrelako prozesuak egiten dituzten sektore guztietan, adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Tratamendu metalikoen industria (NACE 25.6). - Metalaren industria (NACE 24). - Industria aeronautikoa (NACE 30.3). - Industria kimikoa (NACE 20). |

| | |
|------------------------------------|--|
| <p>Ekipoa</p> | <p>PVD lurrun-faseko tekniken bidezko estaldura-ganbera</p> |
| <p>Kodea</p> | <p>F-6005</p> |
| <p>Ingurumen-hobekuntza</p> | <p>Hondakin arriskutsuak eta produktu kimikoen kontsumo eta isurketak erabat ezabatzen dira.</p> |
| <p>Honetan datza:</p> | <p>PVD (<i>physical vapour deposition</i>) hutsean estaltzeko prozesua da (10^{-4} Mbar-etik 10^{-7} Mbar-era bitarteko presioa, gutxi gorabehera). Prozesu horren bidez, estaltzeko materiala hutsean lurrundu eta garraiatzen da, estali beharreko</p> |



| | |
|--|--|
| | <p>piezarekin lotura molekularra osatzeko.</p> <p>Estaldura kondentsatu egiten da, eta geruza fin bat sortzen du (2–5 µm) piezaren gainean, gainazal iraunkor bat sortzeko.</p> <p>PVD teknologiaren bidez, ordezeko estaldurak (Cr purua, CrN edo ZrCN) sintetizatu egiten dira egoera metalikoan (kromoa edo zirkonioa) edo gaseosoan (nitrogenoa eta hidrokarburo bat) dauden osagaien bidez. Teknologiaren muina osagai solidoak in situ lurruntzeko erabiltzen den teknika da, eta intentsitate handiko (100-150 A) arku elektrikoko deskarga batean datza. Lurruntzeko materialaren (Cr edo Zr) elektrodo bat erabiltzen da katodo gisa, eta kobre-elektrodo osagarri bat anodo gisa.</p> <p>Kromo hexabalentzeko edo zianurozko ohiko bainu urtsuen ordezkari, material horiek erabiltzen badira, birziklatzeko lanak errazten dira. Izan ere, elektrodoa agortu ondoren, hondakin horiek solidoak dira, erraz kudea daitezke eta beste elektrodo batzuk egiteko erabil daitezke.</p> <p>Estaldura osatzen duen konposatuaren sintesia argonean egiten da, 1–10 mTor inguruko presioan.</p> |
| <p>Honako hauetan aplikatu daitezke</p> | <p>Kanpoan geratzen dira indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko duten jarduerak, bai eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gailu elektronikoak ekoiztea (NACE 26.4). - Ekoizpen optikoak (NACE 26.7). - Akabera metalikoen tratamenduak (NACE 25.6). |

| Ekipoa | Gutxieneko kantitateekin lubrifikatzeko sistema (MQL) |
|-----------------------------|---|
| Kodea | F-6006 |
| Ingurumen-hobekuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Ebaketa-likidoa egiteko ur-kontsumoa % 100 ezabatzen da. - Lubrifikatzailearen kontsumoa % 60 murrizten da. - Material iragazleetatik sortzen diren hondakinak % 100 ezabatzen dira (kartutxo iragazleak, paper-bandak). - Hondakin arriskutsuen ehuneko handia ezabatzen da (ebaketa-likido |



| | |
|------------------------------|--|
| | <p>agortua).</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lainoen, lurrunen eta ebaketa-keen gantz-kontzentrazioa murrizten da. |
| <p>Honetan datza:</p> | <p>Teknika horren bidez, makinek eta erremintek ondo funtzionatzeko behar duten lubrifikatzailearen gutxieneko kantitatea erabiltzen da. Hala, lubrifikatzaile atomizatu emari fin bat aplikatzen da, presio konstantean, konprimatutako aire-emari batean.</p> <p>Makineria eta erremintak lubrifikatzeko tratamendu eraginkorra da: lubrifikatzailearen 0,5 l/h aurrezten da, baita mantentze- eta garbiketalanetako kostuak ere.</p> <p>Kanpoko lubrifikazioa:</p> <p>Lubrifikatzaile-tanga, nahastea neurtzeko unitate bat edo gehiago eta ihintzatzepitadun lubrifikatzaile-hodiak dauzka.</p> <p>Sistemak elikatzeko erabiltzen den aire konprimatuak lubrifikatzaileen tanga presurizatzen du, eta, ondorioz, lubrifikatzailea lerroan dagoen hodi-sistema batean zehar garraiatzen da ihintzatzepitetaraino.</p> <p>Lubrifikatzaile-lerroak ardazkideak dira, aire atomizatua eta lubrifikatzailea ihintzatzepitaraino bereizita garraiatu ahal izateko. Pitaren irtengunean gertatzen da lubrifikatzailearen atomizazioa eta nahastea, Venturi efektua deritzonaren bidez. Olioaren irteeran zirkulatzen duen aire eramaileak lubrifikatzailea arrastatzen eta azeleratzen du, eta partikula lubrifikatzaile oso fin bihurtzen du.</p> <p>Diseinu horren ondorioz sortzen den olioeko eta airezko fluxu zentrokideak aerosola hedatzea eragozten du, eta horrela, inguruak ez dira kutsatzen. Horretarako, oso garrantzitsua da olioaren etengabe isurtzea, eta ez aldizka.</p> <p>Barruko eta kanpoko lubrifikazioa:</p> <p>Andean aerosol fin bat sortzen da $<0,5 \mu\text{m}$-ko tamaina homogeenoko partikulekin (lubrifikatzailea eta aire konprimatua), pita berezien sistema baten bidez. Partikulen tamaina txikiari esker, aerosola mekanizazio-zentroetako torlojuetatik igarotzen da, edo mekanizazio-zentro modernoetako dorretxoetako hodi bihurrietatik, bidean aire-olio nahasketan inolako bereizketarik gertatu gabe. Mekanizazio-zentro modernoek tresna asko dituztenez, baliteke aerosol-kantitatearen banakako kontrola eskatzea, NC zenbakizko kontrol-sistemen edo kontrol-sistema programagarrien (PLC) bidez.</p> |



| | |
|--|---|
| | <p>Teknika hori prozesu mota hauetan aplikatzen da: lubrifikatzaileak behar dituzten fresaketa-prozesuetan, torneaketa-prozesuetan, mekanizazio-zentroetan, transfer makinetan, brotxaketa-prozesuetan... Bestalde, teknika horren ordez «lehorreko ebakidura» esaten zaion teknika erabil daiteke. Baina teknika hori baldintza hauek betetzen dituzten prozesuetan bakarrik aplika daiteke: prozesu ezberdinetan sortutako marruskadura-tenperatura altuak jasan ditzaketen materialak izatea eta kalitate txikiagoko akabera egin ahal izatea.</p> |
| Honako hauetan aplikatu daiteke | <p>Txirbil-harroketa gertatzen den edozein aplikazio. Adibidez: fresaketa, torneaketa, mekanizazio-zentroak, transfer makinak, brotxaketa eta abar, marruskadura-tenperatura altuak jasaten ez dituzten materialak direnean eta kalitate handiko akabera lortu behar denean. Adibidez, sektore hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elementu metalikoak fabrikatzeko industriak, makineriak eta ekipoa izan ezik (NACE 25). - Makineria eta ekipo mekanikoak egiteko industriak (NACE 28). - Automobilgintza (NACE 29). - Metalaren industria (NACE 24). - Lubrifikatu beharreko makineria duen industria, oro har. |

| | |
|-----------------------------|---|
| Ekipoa | Zirkuitu itxiko koipegabetzea (hutseko destilagailua+ikatz aktiboa) |
| Kodea | F-6007 |
| Ingurumen-hobekuntza | <p>Disolbatzaileen erabilera murrizten da; horrenbestez, lehengai gutxiago behar da.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Emisioak gutxitzen dira (disolbatzaileen KOLak). - Hondakin arriskutsuak gutxitzen dira: % 75-% 90 artean (disolbatzaileak). |
| Honetan datza: | <p>Garbiketa-prozesu batean batutako bi teknologien sistema integratua da:</p> <p>Batetik, disolbatzailea hutsean destilatzeko tresna; eta, bestetik, ikatz aktibozko iragazkia, lurrunketatik datozen ur kondentsatuek dituzten disolbatzaile-aztarnak ezabatzen.</p> <p>Distilazioaren bidez likidoak bereizteko eta arazteko teknika da, hain zuzen,</p> |



| | |
|--|--|
| | <p>likido lurrunkorrak arazteko teknika nagusietako bat. Hala, nahaste bat osatzen duten bi substantzien irakite-puntuaren arteko diferentzia erabiltzen du distilazioak. Hauek dira distilazioaren bi faseak: lehenengo, lurrinketa gertatzen da, alegia, likidoa lurrin bihurtzen da, eta ondoren, kondentsazioa gertatzen da, hau da, lurruna likido bihurtzen da.</p> <p>Hainbat sektoretako garbiketa-prozesuetan, zikin-aztarnekin nahastutako disolbatzaileak egoten dira (olioak eta gantzak). Disolbatutako zikinkeria distilazioaren bidez bereiz daiteke. Disolbatzaile zikina irakiten jartzen da. Horrenbestez, disolbatzaile garbia lurrundu egiten da, eta han disolbatutako substantzia zikinak (olioak eta gantzak) bereizita geratzen dira. Irakite-puntua 150 °C-tik gora duten likidoak bereizteko erabiltzen da teknika hori. Likido batek irakiten du bere lurrin-presioa kanpoko presioaren berdina denean. Beraz, distilazioaren presioa murriztuz, irakite-puntua murriz daiteke. Teknika horri presio murriztuko distilazioa edo hutseko distilazioa esaten zaio. Hutseko distilazioa erabiltzen da likidoak irakite-puntu altuegia duenean edo tenperatura altuetan deskonposatzen denean. Horrenbestez, energia gutxiago kontsumitzen da.</p> <p>Karbono aktiboaren tratamenduan, karbono aktiboaren adsortzio-ahalmena erabiltzen da lotura organiko ez-biodegradagarri batzuen kontzentrazio txikiak ezabatzeke (disolbatzaile mota batzuk, adibidez).</p> <p>Karbono aktibozko iragazketa klasikoan, partikula zikinak (disolbatzailea) ikatzaren pikorretara itsastean gertatzen da adsortzioa. Pikor horiek ase egiten dira, eta birsortu egin behar dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Xurgatzea: koipegabetze-makina martxan dagoenean lan egiten du. Lurrinketa-prozesuan sortutako disolbatzaile-lurrinak biltzea da bere egitekoa. - Birsortzea: makina geldirik dagoen bitartean gertatzen da. Iragazkia berotu egiten da, makina martxan zegoen bitartean bildutako disolbatzailea kanporatzeko; eta, ondoren, disolbatzaile garbi gisa itzultzen da laneko upelera. Prozesua amaitu ostean, iragazkia hoztu egiten da (3 ordu behar izaten ditu) eta xurgatzeko prest jartzen da. |
| <p>Zein sektoretan aplikatu daitekeen</p> | <p>Kanpoan geratzen dira indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko duten jarduerak, bai eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Garbiketa industrialen industria (NACE 81.22). - Automobilgintza (NACE 29). |



| | |
|--|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> - Metalaren industria (NACE 24). - Metalak tratatzeko industria (NACE 25). |
|--|---|

| | |
|-----------------------------|---|
| Ekipoa | Koipe-kentze eta/edo fosfatazio organikoa |
| Kodea | F-6009 |
| Ingurumen-hobekuntza | <p>Energia elektrikoaren kontsumoa murrizten da. Uraren kontsumoa murrizten da.</p> <p>Ez da ia hondakinik sortzen.</p> |
